

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak

ISSN (bertsio inprimatua): 2603-5766 • ISSN-L (loturako): 2603-5766

DOI (bilduma): <https://doi.org/10.18543/LFGQ4860>

113 zenb.

ISBN (zenbakia): 978-84-1325-273-5

DOI (zenbakia): <https://doi.org/10.18543/PICP8936>

Etorkizun bat giza eskubideetarako

Cristina de la Cruz Ayuso (koord.)



Deusto

Instituto de Derechos Humanos

Pedro Arrupe

Giza Eskubideen Institutua

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak

DOI (bilduma): <https://doi.org/10.18543/LFGQ4860>

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak

113 zenb.

DOI (zenbakia): <https://doi.org/10.18543/PICP8936>

Etorkizun bat giza eskubideetarako

Cristina de la Cruz Ayuso (koord.)

Bilbao
Deustuko Unibertsitatea
2025

ERREDAKZIO BATZORDEA

Encarnación La Spina, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Cristina de la Cruz, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Trinidad L. Vicente, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Felipe Gómez Isa, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

ARGITATZE BATZORDEA

Anja Mihr, Utrechteko Unibertsitateko Human Rights Centereko ikertzailea, Herbehereak.

Antoni Blanc Altemir, Lleidako Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna.

Carlos Villán Durán, Presidente de la Asociación Española para la Promoción del Derecho Internacional de los Derechos Humanos.

Carmen Márquez, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna, Sevillako Unibertsitatea.

Cristina Churrua, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Eduardo J. Ruiz Vieytez, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Fernando Fantova, gizarte zerbitzuekin lotutako gaietako aholkularia, Bilbao.

Francisco López Bárcenas, Giza Eskubideen Mexikar Akademia, Mexiko.

Gaby Oré Aguilar, giza eskubideetako eta genero gaietako nazioarteko aholkularia eta Human Rights Aheadeko kidea, Madril.

Gloria Ramírez, Mexikoko Unibertsitateko Autonomo Nazionaleko Politika Zientziako katedraduna, UNAM, Mexiko.

Gorka Urrutia, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Jaume Saura, Kataluniako Giza Eskubideen Institutuko presidentea, Bartzelona.

Joana Abrisketa, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea.

Jordi Bonet, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko Bartzelona Unibertsitatea.

José Aylwin, Giza Eskubideen behatorko zuzendaria, Temuco, Txile.

José Luis Gómez del Prado, Mertyzenarioak erabiltzeari buruzko Nazio Batuetako lan-taldeko kidea, Ginebra, Suitza.

José Manuel Pureza, Ikasketa Sozialen Zentroa, Coimbrako Unibertsitatea, Portugal.

Judith Salgado, Giza Eskubideetako Andeetako Programa, Simón Bolívar Andeetako Unibertsitatea, Quito, Ekuador.

Koen de Feyter, Nazioarteko Zuzenbide Publikoko katedraduna, Amberesko Unibertsitatea, Belgika.

Manuela Mesa, Bakerako Hezkuntza eta Ikerketa Zentroko (CEIPAZ) zuzendaria, Madril.

Noé Cornago, Nazioarteko Harremanetako irakasle titularra, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

Pablo de Greiff, International Center on Transnational Justice, New York.

Víctor Toledo Llancaqueo, Politika Publikoetako Zentroa, ARCIS Unibertsitatea, Santiago, Txile.

Vidal Martín, Nazioarteko Harremanetarako eta Kanpoko Elkarriketarako Fundazioko (FRIDE) ikertzailea, Madril.

Lan honen berregintza, banaketa, komunikazio publiko edo moldaketaren bat egiteko, ezinbestekoa da egileen baimena izatea, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Lan honen atalen bat fotokopiatu edo eskaneatu behar izanez gero, jo ezazu CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org <<http://www.cedro.org>>).

© Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak

1 posta-kutxa - 48080 Bilbao

Posta elektronikoa: publicaciones@deusto.es

ISSN (bertsio inprimatua): 2603-5766 • ISSN-L (loturako): 2603-5766

ISBN (zenbakia): 978-84-1325-273-5

DOI (bilduma): <https://doi.org/10.18543/LFGQ4860>

DOI (zenbakia): <https://doi.org/10.18543/PICP8936>

Lege gordailua: LG BI 01122-2025

Aurkibidea

Sarrera-oharra	9
Giza eskubideak, etorkizunari begira <i>Cristina de la Cruz</i>	11
Giza eskubideen oinarriari buruzko gogoeta batzuk kristau- pentsamenduaren ikuspegitik <i>Jaime Oraá</i>	19
Giza eskubideak: Konponbideetarako bidea <i>Volker Turk</i>	25
Gutxiengoak eta Aniztasuna: Giza Eskubideen Erronka Lortu Gabea <i>Eduardo J. Ruiz Vieytes eta Gorka Urrutia Asua</i>	33
Komuna pentsatzea, pentsamendu kritikoaren erronka <i>Alfonso Dubois Migoya</i>	43
Utopia lortu nahian: hiru mugimendu giza eskubideak (berr)an- tolatzeko <i>Itziar Ruiz-Gimenez Arrieta</i>	49
Nire bidaia giza eskubideen historiografian zehar <i>Jean-Paul Lehnert</i>	63
Europako giza eskubideen erronkei aurre egitea: Europako Kontseiluko komisarioaren funtzioa <i>Michael O'Flaherty</i>	73

Alfabetatze juridikoa: Funtsezko konpetentzia giza eskubideen hezkuntzan <i>Thérèse Murphy eta Orla Ní Cheallacháin.</i>	79
Haurren eskubideen erronkak Espainian <i>Jorge Cardona.</i>	87
Genero-berdintasuna giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidean: atzerapausoen aurkako erresistentzia <i>Lourdes Peroni.</i>	95
Migratzaileen giza eskubideen alorrean dauden joerak eta erronkak <i>Felipe González Morales</i>	101
Herri indigenen eskubideak Nazio Batuetan: aurrerapenak eta egungo erronkak <i>Patricia Borraz</i>	107
Ekintza humanitarioak eta giza eskubideak: tentsioak eta sinergiak <i>Karlos Perez de Armiño</i>	115
Deustuko Unibertsitatea eta giza eskubideak <i>Juan Jose Etxeberria.</i>	123

Sarrera-oharra

Zein da gogoeta hauen helburua? Espazio bat irekitzea giza eskubideen etorkizun posiblea irudikatzeko. Etorkizun hori inoiz baino mehatxatuago dago gaur egun. Oraingo egoerak agerian uzten du giza eskubideen narriadura, eta estatuek berek dituzten gaindiezinezko oztopoak eraginkortasunez betetzeko Nazio Batuen Batzordeek, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak edo Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak emandako ebazpenak.

Zalantzarik gabe, testuinguru horren aurrean erresistentzia modu bat da eskubide horiek aldarrikatzeko aukerari uko ez egitea, gizatasuna lantzeko eta zaintzeko. Koaderno honetan jasotako ekarpen guztiek norabide bakar batean egiten dute aurrera: gizarte justu batek ezin du aukera hori baztertu.

Beraz, gogoeta hauek elkarriketa bat abiarazten dute giza eskubideen inguruan helburu jakin batekin: haiek (ber)kokatzea horizonte zehatz batean. Lehenengo gogoeta izan ezik, Cristina de la Cruzek idatzitako sarrera, gainerakoak, beste batzuekin batera, duela hilabete batzuk argitaratutako Bildumaren 100. zenbakiaren parte dira. Guztiak hautatu dira diskurtso estuegi baten horizontea -zalantzasu beteriko garaian gertatzen den diskurtsoa- zabaltzen duten begirada eskaintzen dutelako.

Begirada horrek gure pentsamoldeak eraldatzea bilatzen du, eta giza eskubideen etorkizunerako itxaropena hartzeko lekua eskaintzea. Garrantzitsua da begirada horrek giza eskubideen inguruko narrazio berri bat eskaintzen digula, ez bakarrik haien egungo egoera antzemateko, baizik eta oraina berreskuratzeko; agian giza eskubideek babes-

ten duten onaren, haien ulermenaren eta funtzionamenduaren aurrean sentikorrago bihurtuko gaituena.

Etorkizun hori irudikatzeko itxaropen-izpi oro, gure garaiarekin eta gure gizarteekin bat datorren hizkuntza batean itzuli behar da. Hautatutako testuek, gure ustez, helburu hori betetzen dute. Testu guztiak euskaraz idatziak edo itzuliak izan dira, jatorrizko gaztelaniazko edo ingelesezko bertsioetatik abiatuta. Hautaketa hau euskaraz ere eskaini nahi izan dugu: euskara garai batean euskal kulturaren biziraupenerako erresistentzia funtsezko izan zen.

Denborarekin, hizkuntza berak erakutsi digu munduan lekua egiteko eta proiektatzeko gaitasuna duela. Giza eskubideen asmoa hori ere bada. Hizkuntza utopia izan daiteke. Hitzak errealitatea eraldatu dezake. Asmo horrekin, giza eskubideei buruz pentsatzea. Haientzako etorkizun bat irudikatzea, eta hori euskaraz ere egitea izan da liburu honi bide eman dion bulkada.

Giza eskubideak, etorkizunari begira

Cristina de la Cruz Ayuso

Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea (Bilbao)

Colamus Humanitatem. Hauxe da Senekak *De ira* tratatua amaitzeko darabilen agindu ospetsua: «*Giza izaera landu dezagun*». Gaur egun, gertakari jakin batzuen aurrean gure haserretzeko gaitasunaren geldotasun harrigarriak gizatasunaren beraren ahultzea eragiten du. Basakeriaren konplize ere bada. Edo, gutxienez, uste duguna baino hurbilago kokatzen gaitu horretatik. Giza eskubideek duintasunaren horizonte gisa duten indar inspiratzaileak nagusi diren testuinguruetan, haiek berreskuratzea posible da, gizatasuna lantzeko eta zaintzeko bide ezinbesteko gisa. Prest al gaude aukera horri uko egiteko?

Gaur egun, giza eskubideek aurre egin behar dieten erronka nagusiak asmo horrekin lotuta daude, hain zuzen ere. Lehenik eta behin, gero eta desorekatuagoa den mundu batean elkarbizitzarako erronkan gauzatzen dira, zeinaren bilakaerak ziurgabetasunak eta aurreikusi ezin diren eszenatokiak eskaintzen dituen. Bigarrenik, bizitzaren iraunkortasunaren erronkan ere forma hartzen dute, bizitza bera jasangarri bihurtzeko ezinbesteko eginkizuna erdigunean jarritz. Bizitza hori, sistema natural eta gizatiar guztiena, presio ezohikoen mende dago, eta horrek etorkizuna zinez zalantzan jartzen du. Azkenik, behar horrek areagotu egiten da gobernantza globalaren erronkaren aurrean, zeina indar boteretsuen eskuetan baitago, eta mundu sistematikoki konplexuago, erronkatsuago eta segurtasun gutxiagoko baten gobernu-arauak abiadura bizian birkonfiguratzen ari baitira. Giza eskubideak ardatz egituratzaile gisa agertzen dira, basakeriaren aurrean gizatasuna lantzeko asmoa dutenak, eta, horrekin batera, une honetan haien etorkizuna serioz arriskuan jartzen duten oztipo nagusiei irmotasunez aurre egiteko helburua dutenak.

Giza eskubideen etorkizunari buruzko gogoeta

Giza eskubideen etorkizunari buruzko gogoeta batek, lehenik eta behin, behartzen gaitu aitortzera eskubideek marko normatibo gisa jasaten duten atzerakada globala. Horrek berak erronka ukaezina planteatzen du epe ertain eta luzerako, eta, horrexegatik komeni da gogoraraztea, giza eskubideek gaur egun pairatzen duten zilegitasun faltaren aurrean, haien ahultasunak agerian uzten duela ez dela unea gizatasunaren horizonteari uko egiteko edo amore emateko.

Giza eskubideen atzerakada horren kausak zuzenean lotuta daude botere politiko eta ekonomikoaren desplazamendu globalarekin, eta Estatuaren ahalmen galera nabarmenarekin, zeinak giza eskubideak bermatzeko gaitasuna nabarmen murriztu duen. Giza eskubideek une kritiko bizi dute eszenatoki global batean, non demokraziaren atzerakada prozesu garrantzitsuak gertatzen ari diren, segurtasunaren izenean eskubideak suntsitzen diren eta gizarte zibilaren askatasun espazioa murrizten den. Gaur egun, giza eskubideen babes eta eraginkortasun eskaerak bat datoz Estatuaren gaitasuna ahuldu daitekeen une batekin, eskaera horiei modu eraginkor eta berme bidezkoan erantzuteko.

Testuinguru honetan, giza eskubideek jada ez dute funtzionatzen gobernuaren kalitatea, demokraziaren maila edo harreman sozialen izaera kritiko baloratzeko jokabide estandar gisa. Isilaraziak edo ikusezin bihurtuak izan dira, haien aipamen zuzena saihesten duten narraitibek bidez, edo desiratutako helburu huts gisa aurkezten dira; alegia, lortu beharreko balio edo xede gisa, baina haien ezarpena eta gozamenaren eragozten duten oztopoak jartzen zaizkie. Horrela, giza eskubideek galdu egin dute zuzenbide arau gisa duten izaera, zeinak bete-behar lotesleak ezartzen baititu, lehenik eta behin Estatuentzat, baina baita taldeentzat eta norbanakoentzat ere.

Giza eskubideen ahultzeak bi joera kezkagarri dakartza berekin: batetik, gero eta babes gutxiago izatea interes eta pribilegio taldeek egingdako erasoaren aurrean, zeinek arau horien kanpoan jardun nahi duten; eta, bestetik, giza eskubideen defentsaren kriminalizazioaren joera larriagoa, zeinak pertsonen ilegalizazioa, jazarpen penala, atxiloketa edo kartzelaratzeari dakarren, eskubideak praktikan jartzen dituzten, haiek defendatzen dituzten edo eskubide horiek ez dituzten pertsonen alde elkartzasuna adierazten dutenen aurka.

Premisa horietatik abiatuta, eta giza eskubideen erronkei nazioarteko harremanetan nola erantzungo zaien inguruko ziurgabetasunaren aurrean, analisi geopolitikoko joerak azpimarratzen dute estatu-azpiko mailak —autonomikoa, eskualdekoa, udal mailakoa— erabakitze gaitasun eraginkorra duten eszenatoki gisa, eta aukera-egitura gisa

giza eskubideen defentsa eta sustapenerako ekintza zehatzak gauzatzeko, bai eskubideen beraren alde, bai haien alde lan egiten duten pertsona eta erakundeen alde.

Bestalde, giza eskubideen etorkizunari buruzko gogoetak behartzen gaitu deslegitimazio joera hori gainditzera, eta eskubide horiek erronka zehatzekin lotzera: desberdintasunak, giza mugikortasuna, hezkuntza, pobrezia mailak, garapen teknologikoa, klima-aldaketa eta etorkizun hurbilean haien garapenean eragin sakona izango duten beste hainbat joera. Erronka horiek joera batzuk definitzen dituzte, balio iragarleaz haratago, aukera, mehatxu eta desafio materialak dakartzatenak, eta horiek giza eskubideen etorkizuna baldintzatzen dute.

Horregatik guztiagatik, premiazkoa da giza eskubideen etorkizunari buruzko gogoeta zabaltzea ikuspegi zabal eta sistemiko batetik, aukera emango duena eszenatoki global honen analisi sakona egiteko, non ahultze kroniko eta orokortu bat gertatzen ari den. Helburua da alternatibak proposatzea, etorkizun hori arriskuan jar ez daitezen. Horretarako, giza eskubideen erronkak zehaztu eta definitu behar dira, epe labur, ertain eta luzera haien urraketa arriskua handiena duten eremuak kontuan hartuta, arreta berezia eskainiz eskubideen urraketa sistematiakoaren mehatxupean dauden taldeei, bereziki zaurgarrienak edo gehiegizko esposizioa pairatzen dutenak.

Bolumen honetan jasotzen diren gogoeten helburua da hautema-tea non irekitzen diren hausturak, erronkak eta aukerak, giza eskubideek benetako etorkizun bat izateko itxaropena mantendu dezaten, hain zuzen ere orain, etorkizun hori benetan kolokan dagoenean. Eskubide horien arteko lotura estua aitortuta ere, aukeratu da giza eskubideen etorkizunaren aukera azpimarratzea eta etorkizun hori sostengatzeko oinarri funtsezko batzuk gogoraraztea. Jaime Oraa, Volker Turk, Alfonso Dubois, Itziar Ruiz-Giménez, Jean-Paul Lehnert eta Juan José Etxeberriaren gogoetek norabide horretan egiten dute ekarpena. Gainerako kolaborazioek gogoeta partikularrak eskaintzen dituzte, eta, multzoan hartuta, giza eskubideekin lotutako hainbat alderdi jorratzen dituzte, bereziki mehatxatuak edo urratuak direnak eszenatoki global batean, non haien defentsa eta sustapena nabarmen ahuldu den.

Giza eskubideen etorkizuna estuki lotuta dago eskubide horiek guztiek bermatzen duten onaren babesarekin, zeinak bizitza posible egiten baitu planeta agoniko batean. Gaur egungo testuinguruak, dirudienez, atrofiatu egin du bizitzaren beraren hotsa baloratzeko dugun gaitasuna, bai eta bizitza hori bizigarri izateko aukera ere. Horregatik, premiazkoa da haustura-espazioak irekitzea, giza eskubideek bidea egin dezaten.

Zeregin horretan, ezinbestekoa da behin eta berriz hizkuntzaren bidez adieraztea eta aitortzea zor diogun errespetua, bai gizakiaren barnean eta bai haren kanpoan garenari. Giza eskubideen hizkuntza berreskuratzea, haien presentzia soziala indartzea eta haien defentsa legitimatzea funtsezkoak dira etorkizun bizigarri baterako bidea eraikitzeko.

Munduaren ertzak zabalduz

Giza eskubideen etorkizunaz pentsatzea, zalantza betetako garai honetan, bi norabideko esfortza eskatzen du: batetik, gogoeta diskurtso estuegi baten horizonte mugatutik urruntzeko biraketa; bestetik, gure pentsamendu-ereduak zein gizartearen bizimoduak eraldatzeko premia. Egungo egoerak ez du erraztasunik eskaintzen irekidura horretarako.

Desberdintasun ugariak eta gero eta handiagoak zailtasun larriak sortzen dituzte gizarte-bizikidetzarako, eta horrek ekar dezake indarkeria handiagoa, irekitze txikiagoa eta elkartasun eskasagoa. Azkenean, gizartearen kalitate demokratikoan eragiten du, elkartasun-printzipioa oztopatzen duelako. XXI. mendearen lehen hamarkadan herrialdeen arteko desberdintasun batzuk murriztu badira ere, herrialde bakoitzaren barruan arrakala sozioekonomikoa handitzen jarraitzen du. Aurreikuspen guztiek berresten dute desberdintasunek sistema ekonomiko eta politikoetan dituzten ondorioei arreta handiagoa eskaini behar zaiela. Desberdintasunek ez diete soilik haiek pairatzen dituztenei eragiten, baizik eta estatuen eta gizartearen egonkortasun politikoari eta emaitza ekonomiko orokorreari ere. Ondorio horiek areagotu egin daitezke mugikortasun sozialaren faltagatik, zeinak aukera eta hobekuntza-aukerak mugatzen baititu gizartearen kaltetuenentzat.

Beste joera bat ere finkatzen ari da, eta mendebaldeko gizarteetan geldiezina izango dela aurreikusten da: bizikidetzaren estilo bat, baliabide etiko lausoetan oinarritua. Egoera horrek gertakarien atzean edo ertzean mugitzeko joera areagotzen du, eta horrek desafezio kultural, politiko eta sozial sakona eragiten du, nazionalismoen, populismoen eta erradikalismo ideologiko zein erlijiosoen gorakada sustatuz. Demokrazien artean, higuak ageri dira alderdi politikoaren, sindikatuen eta talde zibilen eragina, ahots indibidualen hedapen teknologikoaren eta eliteekiko konfiantza faltaren ondorioz. Frustrazioak gizarte osoaren eta eliteen arteko distantzia handiagoa eragiten du.

Itxaropen eta asmo indibidualen hazkundeak, gizarte-desberdintasunek, aukera-diferentzia handiagoak, gizartearen zatiketak eta egon-

kortasun faltaren arrisku gero eta handiagoak barne protesten eta desordenen probabilitatea handitzen dute. Teknologia berriek bi joera sustatzen dituzte: batetik, demokrazia zuzenago baterako norabidea; eta, bestetik, Estatuaren aparatuen aldetik herritarren kontrol gaitasun handiagoa.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapen espontzialak, robotikaren, energia-eraginkortasunerako teknologiarren, nanoteknologiarren, ingeniaritza bionikoaren, sistema biometrikoen, medikuntzaren eta elikaduraren aurrerapenekin batera, etorkizun bat osatzen dute, aukera, arrisku eta ziurgabetasunez betea. Aldi berean, eragin erreala dute herritarrengan, bereziki datuen babesaren, zibersegurtasunaren eta pribatutasun elektronikoaren arloan dituzten eskubi-deetan. Hala ere, kontuan hartu behar da iraultza teknologikoak, suntsitze-sorkuntza efektuarekin, desberdintasun larriak areagotzen lagun dezakeela.

Biosfera, bizitza sostengatzen duen sistema eta gainerako sistemak jasangarri izatea ahalbidetzen duena, presio ezohikoen mende dago, eta horrek sistema natural eta gizatiar guztiei eragiten die maila globalan, eta ondorio argiak eta inplikazioak ditu eskualde eta tokiko mailan, epe labur, ertain eta luzean. Osasunerako eskubidea, uraren eskubidea eta saneamendurako eskubidea jada giza eskubideen barruan sartu dira, eta etorkizun hurbilean airearen eta energiaren eskubideak ere gehitu daitezke. Giza eskubide horiek bizitzaren jasangarritasunarekin eta gizateriari kalte larriak eragitea saihesteko muga ezartzeko deia-rekin lotura zuzena dute.

Munduak gaur egun aurre egin behar dien ingurumen-arazo nagusien artean daude airearen eta lurzorua hondatzea, ur eskasia, baso-soiltzea, itsas kutsadura eta lurzorua erabilera-aldaketaren ondoriozko biodibertsitate-galera, klima-aldaketa, espezie inbaditzaileen hedapena, gehiegizko ustiapena eta kutsadura. Bizitzaren jasangarritasunaren erronkak premia larria aurkezten du, bere konplexutasuan eta jasaten dituen presioek areagotua. Erronka horrek, alde batetik, garapen jasangarria ikuspegi sistemiko batetik aztertzea eskatzen du, ura-elikagaiak-energia lotura kontuan hartuta irtenbideak emateko; eta, bestetik, ekoizpen-eredua eta ekosistemen ustiapena benetan eta eraginkortasunez birplanteatzea.

Azkenik, aurreikusten da hurrengo hogeitaz urteko aroa aldaketa eta egonkortasun faltaren garaia izan daitekeela, bai estatuen arteko harremanetan, bai estatuen barruko taldeen artekoetan. Biztanleriaren hazkunde azkarra, baliabideen banaketa desorekatua eta munduko geopolitikaren aldaketek iradokitzen dute erronka horiei ezin zaiela modu isolatuan erantzun. Gobernantza global eraginkor bat

ezartzeko erronka gai nagusi bihurtu da. Globalizazioak, desberdintasun globalak, klima-aldaketak eta berrikuntza teknologikoak planetako biztanle guztien bizitzan eragiten dute, eta estatuen, taldeen eta indibiduen arteko elkarren mendekotasun handiagoa eta lehia areagotzea eskatzen dute. Mundu anitz, konplexu eta azkar aldatzen den batek egitura arinak eta moldagarriak behar ditu, ingurune berria kontrolatzeko, hura suntsitu gabe. Izan ere, labiltasuna, aurreikusezintasuna eta konplexutasuna uztartzen dituen etorkizuneko munduak eskatzen ditu estrategiak: aurreikuspena ahalbidetuko duten ikuspegiak, erreakzioa erraztuko duten mekanismoak eta erresilentzia sustatzeko bideak.

Zein etorkizun giza eskubideentzat?

Zenbait erronkak, hala nola intolerantziaren, arrazakeriaren eta xenofobiaren gorakadak, edota genero-desberdintasunaren arrakalak ezabatzeko zailtasunek, giza eskubideen mehatxu edo urraketa esplizituak agerian jartzen dituzte. Beste batzuek, teknologia edo hezkuntzaren eraginak kasu, eszenatoki mistoak iradokitzen dituzte: aurrerapen teknologikoek eskubideetarako sarbidea bermatzeko baliabide izan daitezke, baina, aldi berean, haien urraketa eragin dezakete, sarbide berdintsua ez bada bermatzen. Urbanizazioaren gisako erronkek, oinarrizko eskubideetarako sarbidea errazten duten arren, indarkeria, intolerantzia edo desplazamendu forma berrien jatorri bihur daitezke. Eta badaude beste erronka batzuk ere, ziurgabetasuneko eszenatokiak iragartzen dituztenak, konpromiso politikoak eskatzen baitituzte, boterearen sakabanaketa testuinguru batean, non Estatuen rola eta erantzukizuna ahulagoak edo lausoagoak diren.

Orokorrean, erronka batzuek emaitza baikorrak eskaintzen dituzte hezkuntza, osasuna edo habitat urbanoetan bizi diren pertsonen bizikaltatearen hobekuntzari dagokionez. Erronka horiek guztiek giza garapenaren maila hobetzeko norabidea erakusten dute: autonomia eta hazkunde pertsonala sustatuz, bizi-itxaropena eta bizi-kaltatea handituz, eta, oro har, pertsonen gaitasunak hobetuz beste giza eskubide batzuetara iristeko. Eskubide horiek, funtsezkoak izateaz gain, «giltza-eskubideak» dira, oinarrizko eskubide zibil, politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen erabilera eta gozamena ahalbidetzen dutenak.

Hala ere, eszenatoki horiek beste aurpegi bat ere erakusten dute, ezinbestekoa dena kontuan hartzea. Klima-aldaketak giza eskubideetan dituen ondorioek argi erakusten dute nola ahultzen diren eskubide horiek bizitzaren beraren aurkako eragin suntsitzaileen bidez. Bizitzaren

jasangarritasunerako baliabide oinarritzkoetarako sarbide berdintsuaren mugak erronka horren lotura erakusten dute «eskubide sortu berriekin», hala nola ur edangarri seguruaren eskubidea, lurra, itsasoa, kutsadurarik gabeko airea edo energia.

Bestalde, teknologiaren eraginak edo segurtasun globalaren eskakizunek eskubideei interpelazio zuzenak egiten dizkiete, hala nola pribatutasunari, mugitzeko askatasunari eta/edo adierazpen-askatasunari. Mehatxu globalek Estatuak salbuespen-neurriak hartzera behartuko dituzte, eta horrek eskubideen murrizketa edo baliabide batzuetarako sarbidearen mugaketa ekar dezake. Demografia-eraginari dagokionez, bilakaerak iragartzen du habitat urbanoetan kokatutako biztanleria ahularen hazkunde kezkaragria, eta giza eskubideetan arrakalak sortu ditu: etxebizitza duin baterako sarbidea, delinkuentzia edo indarkeria domestikoa, ur edo osasun-zerbitzuetarako sarbide falta, tratu desberdintasuna, diskriminazioa eta jabetza-eskubidea.

Migrazio globalek giza mugikortasunaren eszenatoki bat iragartzen dute, eta horrekin batera, klimaren aldaketak eragindako errefuxiatu, asilo eta desplazamendu behartuen egoerek herritartasun-eskubideen inguruko eztabaida sustatzen dute, eta giza eskubideen nazioarteko babes-sistemak indartzeko beharra azaleratzen dute, zenbait estatutan babes konstituzionalik ezaren eta babesgabetasunaren aurrean. Gai honek huts juridikoaren eszenatokiei ere eragiten die, premiazkoa bihurtuz horiek behar bezala definitzea eta artatzea, ondasun komunaren kasuan gertatzen den bezala.

Giza eskubideen etorkizuneko joerek urraketen hazkundera iragartzen dute egoera administratibo irregularrean dauden migratzaileen-tzat, arrisku handiagoarekin emakumeentzat, haurrentzat eta ageriko gutxiegoentzat. Bortzaketa horiek lotuta daude bereziki pertsonen salerosketarekin, laneko diskriminazioarekin, oinarritzko zerbitzuetarako sarbidearekin (hezkuntza, osasuna, gizarte segurantzak) eta eskubide politiko eta zibilen aitortza faltarekin, besteak beste.

Gobernuek giza mugikortasunak sortzen duen kasuistika aurreikusezin eta problematikoari erantzuteko dituzten zailtasunek egoera are gehiago larriagotzeko arriskua dakarte. Faktore globalek gatazkak eta baliabideetarako sarbide-falta ekartzen dituztenean, baztertutako eta diskriminatutako kolektiboek haien egoera okertuago ikusiko dute.

Giza eskubideen etorkizunarekin konprometitzea

Giza eskubideen inguruan, modu zuzen edo zeharkakoan, erronkak ezartzeko joerak, oro har, eraginkortasun eskasa erakutsi du haien sen-

dotzean. Erronkek giza eskubideen narratibak erradikalizatzen dituzte, bai norabide positiboan, bai negatiboan; hala ere, eztabaida diagnostiko eta iragarpenetan soilik mugatzen eta agortzen dute. Biak beharrezkoak izan arren, ez dira nahikoa.

Zalantzarik gabe, giza eskubideen arloko erronken identifikazioak eskubideak ezagutzeko, aldarrikatzeko eta defendatzeko gaitasuna hobetzen laguntzen du. Haien etorkizuna proiektatzeko hutsune normatiiboak identifikatzeko aukera ere eskaintzen du. Ariketa horrek ikuspegi bat eskaintzen du, ez soilik gobernantza globalaren zailtasunei buruz, baizik eta eszenatoki horrek eskaintzen dituen aukera-egiturei buruz ere.

Hala ere, giza eskubideen etorkizuna serio hartzeak ez du soilik haiekin konprometitzea eskatzen. Giza eskubideak gonbidapen edo desideratum huts gisa mantentzen diren bitartean, haien indar juridikoa desnaturalizatu eta ahuldu egingo da. Horregatik, haien etorkizuna serio hartzeak haien indar normatiboa sendotzea eskatzen du, eskubide horien eskagarritasuna eskala desberdinetan aktibatuz: tokikoan, eskualdekoan, nazionalean eta supranazionalean. Haien etorkizunarekin konprometitzea haien eraginkortasuna bermatzea da, erronkak helburu estrategiko bihurtuz, egitura-, prozesu- eta emaitza-adierazleen bidez, haien betetze-maila eta eraginkortasuna ebaluatzeko aukera emanez.

Deustuko Giza Eskubideen Bildumako 113. ale honetan jasotzen diren ekarpenek giza eskubideek gaur egun eskatzen duten konpromisoaren izaera erakusten dute, eta haien etorkizuna posible izan dadin konpromisoa hartzeko moduak agerian jartzen laguntzen dute.

Giza eskubideen oinarriari buruzko gogoeta batzuk kristau-pentsamenduaren ikuspegitik

Jaime Oraá

Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko
katedradun emeritua

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 75. urteurrena dela eta, Fedearen Doktrinarako Dikasterioak Dignitas Infinita¹ izeneko adierazpen interesgarri bat argitaratu berri du, giza duintasunari buruzkoa. Adierazpena lantzen 5 urte baino gehiago eman dute; Frantzisko aita santuak berak iradokizun garrantzitsuak egin zituen, eta amaitzean berak eman zion oniritzia. Testuak giza duintasunaren kontzeptuaren ezinbesteko alderdi batzuk azpimarratu nahi ditu kristau-antropologia-ren argitan, eta maila sozial, politiko eta ekonomikorako zenbateko eragin eta inplikazio onuragarriak dituen erakutsi.

Gizaki guztien duintasuna «infininitutzat» har daiteke, pertsona-ren edozein urritasun fisiko, psikologiko, sozial edo moral alde batera utzita. Beraz, «egia unibertsal» baten aurrean gaude, giza eskubideen oinarri gisa aitortu behar duguna, gure gizarteak egiaz bidezkoak, bakesuak eta benetan gizatiarrak izan daitezzen. Beti azpimarratu behar da gizakiaren lehentasuna eta haren eskubideen babesa.

Gaur egun pertsona askoren kontzientzian ilunduta egon daitezkeen giza duintasunaren alderdiak nabarmendu nahi ditu dokumen-

¹ Fedearen Doktrinarako Dikasterioaren Adierazpena «*Dignitas Infinita, giza duintasunari buruz*», 2024ko apirilaren 8a.

tuak; alderdi horietako batzuk eztabaidagarriak izan daitezke, baina gogoetarako eta elkarriketarako balio dezakete, egun bizi dugun une historiko konplexuan. Gainera, gaur egun gure munduan giza eskubideen alorrean gertatzen diren urraketa larri batzuk salatzean datza dokumentuaren zati garrantzitsu bat.

Ondo dakigunez, giza eskubideen errealitatea jorratzeko diziplinarteko ikuspegitik heldu behar zaio gaiari. Horregatik, filosofiaren eta teologiaren ekarpenak garrantzitsuak dira, eta aberasgarriak izan daitezke, kontuan hartuta zer-nolako formulazio sakonak egin dituzten historian zehar, ikuspegi katolikotik, pentsamendu sozial kristauak eta antropologiak.

Arrazoimenaren eta errebelazioaren arteko integrazioak eta elkarriketak —gaur egun giza eskubideen alorrean gertatzen ez dena, erabat sekularizatuta dagoen gizarte honetan— aberastu egin dezakete gure diziplina.

Adierazpenean adierazten den bezala: «Elizak, Errebelazioaren argitan, erabat baieztatzen eta berresten du gizakiaren duintasun ontologiko hori, gizakia Jainkoaren irudi eta antzera sortua baita, eta Kristo Jesusen bidez berrerosia». Gizaki bakoitzaren duintasun ontologiko hori eta balio paregabe hori Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsean (1948) jaso ziren. Ordutik 75 urte igaro ondoren, indarrez berretsi behar da konbikzio hori, giza eskubideetan gertatzen ari diren urraketa larriak ikusita. Elizak, Joan XXIII.aren «Pacem in Terris» entziklika eman zuenetik, eta haren ondorengoei jarraikiz, agerian utzi du zenbateko garrantzia duten giza eskubideek, nazioarteko bakearen eta segurtasunaren oinarri diren aldetik.

Frantzisko aita santuak animatu egiten gaitu «aitortzera Jainko Aitak infinituki maite duela gizaki bakoitza, eta deskubritzera horrekin duintasun infinitua ematen diola, hori dela giza eskubideen oinarria, eta horretan oinarritu behar dela gizakien arteko bizikidetzaren berria, senidetasun-harremanean. Egia bada ere Jesu Kristoren Ebanjelioan daukela giza duintasun hori eta senidetasun hori, egia da, era berean, giza arrazoimenak hausnarketa eta elkarriketaren bidez irits dezakeela uste sendo hori. Ikuspegi horretatik, gizaki orok duintasun besterenezina izatea giza izaerari dagokio, edozein aldaketa kulturaletatik haratago. Guk ez dugu besteen duintasuna asmatzen, balio bat da berez, eta berrekin dakar beste horiek beren oinarritzko eskubideen arabera tratatzea.

Aipatu dugun Dikasterioaren dokumentuan, gogoeta interesgarria egiten da Elizak historian zehar giza duintasunaren zentraltasunari buruz izandako kontzientzia progresiboaz. Zentraltasun horrek Itun Zaharrean eta Berrian ditu sustraiak. Horri dagokionez, testuak azaltzen du Jesus Nazaretekoak argi nabarmendu zituela gizaki ororen balioa eta

duintasuna, Jainkoaren irudira egina den aldetik, gizarte-egoera eta kanpoko inguruabarrak edozein izanda ere. Jesusek berak oztupo kulturalak hautsi zituen, eta duintasuna itzuli zien baztertuei eta gizartetik kanpokotzat hartzen zituztenei: zerga-biltzaileei, emakumeei, haurrei, legendunei, gaixoei, atzeritarrei eta alargunei. Munduaren amaieran, lagun hurkoarenganako maitasunaren arabera epaituko gaitu, hau da, begiratuko du ea arreta eman diegun gose denari, egarri denari, kanpotarrari, gaixo dagoenari, espetxean dagoenari, haiekin identifikatzen baita bera. Jesusen ustez, odol- edo erlijio-loturak alde batera utzita gizaki orori egin diogun ongia da epaitzeko irizpide bakarra.

Gaur egun, «duintasun» terminoa batez ere gizakiaren izaera berezia nabarmentzeko erabiltzen da, pertsona oro parerik gabea baita unibertsoko gainerako izakien aldean. Hala, Adierazpen Unibertsalak (1948) «giza familiako kide guztien berezko duintasun eta eskubide berdin eta ukaezinak» aipatzen ditu. Ez dira gizakiak, beraz, dohain edo nolakotasun jakin batzuetan oinarrituta duintasuna ematen dutenak, baizik eta duintasuna berezkoa du pertsonak, ezein aitopenen aurretik, eta ezin du duintasun hori galdu.

Frantzisko aita santuak berak gogorarazi zuenez, kultura modernoan, Adierazpen Unibertsala (1948) dugu pertsonaren duintasun ukaezinaren printzipioaren erreferentzia hurbilena. Joan Paulo II.ak honela definitu zuen: «mugarria da gizakiaren bide luze eta zailean», eta «giza kontzientziaren adierazpenik gorenetakoa bat da».

Adierazpen Unibertsalaren esanahi sakona aldatzeko edo ezabatzeko saiakerai buruz ere ohartarazten du dokumentuak, eta, hori dela eta, funtsezko printzipio batzuk gogorarazten ditu.

1. Gizakiaren berezko duintasuna —inoiz galdu ezin dena, sortzetik heriotzarainokoa— aitortuz bakarrik berma dakioke nolakotasun horri oinarri bortxaezin eta segurua. Erreferentzia ontologikorik gabe, giza duintasunaren aitopena balorazio desberdin eta arbitrarioen mende egongo litzateke.
2. Dokumentuak agerian jartzen du egungo joera batzuek gehiegikeriaz erabiltzen dutela giza duintasunaren kontzeptua, esku-bide berrien ugalketa arbitrarioa justifikatzeko; hain zuzen ere, eskubide berri horietako asko jatorrian definitutakoen aurka-koak izaten dira, eta, askotan, kontraesanean daude bizitzeko oinarritzko eskubidearekin. Arrisku bat dugu: duintasuna askatasun isolatu eta indibidualistarekin identifikatzea, askatasun horren izenean nahi eta lehentasun subjektibo batzuk «esku-bide» gisa inposatzeko, komunitateak bermatuta eta finantzatuta. Gizaki izateko behar diren ezinbesteko ezaugarrietan oinarritzen

da gizakiaren duintasunaren defentsa, eta ezaugarri horiek ez daude ez norbanakoaren arbitrariotasunaren mende, ez gizartearen onarpenaren mende. Eskubideek eduki zehatz eta objektiboa izan behar dute, giza izaera komunean oinarritua. Erreferentzia objektibo hori gabe, duintasun kontzeptua hainbat arbitrariotasunen eta botere-interesen mende geratzen da.

3. Gizakiaren duintasunak, pertsonaren harreman-izaeraren argitan, askatasun autorreferentzial eta indibidualistaren ikuspegi murriztailea gainditzen laguntzen du. Izan ere, askatasun horrek norberaren balioak sortu nahi ditu, ongiaeren arau objektiboak eta gainerako izaki bizidunekiko harremana alde batera utzita. Hori gainditu ezean, giza duintasuna subjektibitatera mugatzeko arriskua dago, hau da, gizakiak berari buruz eta bere patuari buruz bere irizpideen arabera erabakitzea, besteena alde batera utzita, giza komunitateko kide izatea kontuan hartu gabe. Gizakiaren duintasunak barnean hartzen du gizakiak besteekiko betebeharrak bere gain hartzeko duen berezko gaitasuna.

Hemen hizpide dugun Dikasterioaren dokumentuak, bigarren zati osoan —dokumentuaren erdia da hori—, giza duintasunaren alorrean munduan gaur egun gertatzen diren urraketa larrienetako batzuk jorratzen ditu. Elizak, giza duintasuna eta giza eskubideak iragartzeko eta sustatzeko duen misioaz jabetuta, bere egitekoan funtsezkotzat jotzen du duintasun eta eskubide horien urraketak irmo eta etengabe salatzea ere. Eta nazioarteko komunitate osoari etengabe eskatzen dio har dezala konpromisoa giza eskubideak arduraz eta aktiboki errespetatzeko. Hori egin ezean, gizateriaren senidetasunak eta biziraupenak ez du etorkizunik.

Dokumentuan, giza duintasunaren alorrean gaur egun egiten ari diren urraketa larri batzuk nabarmentzen dira, asmoa ez bada ere urraketa guztiak zehaztasun osoz aztertzea. Hemen aipatu besterik ez ditugu egingo; beraz, zehatzago aztertu nahi dituenak dokumentura jo beharko du.

1. Pobrezia lazgarria. Mundu garaikideko bidegabekeria handienetako bat aipatzen hastea erabakitzen du, ondo erabaki ere. Bidegabekeria hori aberastasunaren banaketa desorekatu eta bidegabeari zor zaio, gutxi batzuek asko baitute, eta askok ez baitute ia ezer. Oxfamek berriki egindako ikerketa baten arabera, gizateriaren % 1ek munduko aberastasunaren % 95 du.
2. Gerra. Gerra, suntsipenaren eta minaren arrastoa utziz, hainbat eta hainbat zibil errugaberen heriotza eraginez, izugarri ugari-

tzen ari da munduko hainbat lekutan, «hirugarren mundu-gerra etapatan» dei genezakeenaren formak hartzeraino.

3. Gainera, dokumentuak beste urraketa larri batzuk ere jasotzen ditu, hala nola emigranteen lana, pertsonen salerosketa, sexu-abusuak, emakumeen aurkako indarkeriak, abortua, amatasun subrogatua, eutanasia eta lagundutako suizidioa, desgaitasuna duten pertsonak baztertzea, genero-teoria, sexu-aldaketa, indarkeria digitala eta heriotza-zigorra.

Aztergai dugun dokumentua Adierazpen Unibertsalaren (1948) oso balorazio positiboa eginez amaitzen da. Adierazpen hori da benetako bidea, eta horrekin lotuta hainbat aurrerapauso eman dira, baina beste asko falta dira oraindik emateko. Giza eskubideekiko konpromisoa ez da inoiz amaitzen. Azken hamarkadetan, giza eskubideei buruzko doktrina izugarri garatu da: nazioarteko itunak egin dira, konferentziak egin dira, eta estatuek eskubide horiek betetzen dituztela kontrolatzeko mekanismoak ezarri dira, baina, aldi berean, ez da gertatu gizateriaren gehiengoak benetan eskubide horiek izatea.

Elizak sutsuki eskatzen du gizakiaren duintasunaren errespetua jar dadila guztion onerako konpromisoaren eta ordenamendu juridiko ororen erdigunean, hori baita bidezko zuzenbidean —eta ez bote-rearen indarrean— oinarritu nahi duen gizarte zibilizatu ororen ezinbesteko funtsa. Pertsona bakoitzak, giza komunitate bakoitzak, giza duintasuna modu eraginkorrean eta zehatzean gauzatu beharra du, eta estatuek, duintasun hori babesteaz gain, gizakiaren eta haren eskubideen erabateko sustapena lortzeko beharrezko baldintzak bermatu behar dituzte.

Gogoeta labor hauek amaitzeko, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko gure «Doctor Honoris Causa» ekarriko dut gogora, Jon Sobrino teologo eta irakasle maitea, hark erakutsi baitzigun «jainkozkoa dela giza eskubideen alde borrokatzea».

Giza eskubideak: Konponbideetarako bidea

Volker Türk¹

Goi-komisarioa, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako
Goi-komisarioaren Bulegoan (UNHRC, Geneva)

Volker Turk goi-komisarioak ikuspegi hau *Etorkizuneko Goi-bilerarako* egindako ekarpen gisa azaldu zuen. Goi-bilera hori New Yorken egin zen, 2024ko irailaren 20tik 23ra. Etorkizuneko Goi-bilera munduko liderren topaketa bat izan zen. Orainaldi hobea nola lortu eta etorkizuna nola babestu eztabaidatzeko bildu ziren. Goi-bilera hori aukera ona izan zen lankidetzaren global eraginkorra sustatzeko eta sortzen ari diren mehatxu eta aukerei heltzeko.

Turk goi-komisarioak eskubideekiko konpromisoa berritzeko eta duela 75 urteko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean onartutako kontzeptuak berresteko eskatzen du. Hau adierazi du: «une prekarioan gaude eta ezin ditugu gauzak ziurtzat eman». Turkek adierazi du ikuspegi-adierazpen horren oinarria izan direla Human Rights 75 Ekimenean parte hartu izana eta mundu osoko hainbat eragileekin lankidetzan aritu izana. Human Rights 75 ekimenak hiru helburu nagusi zituen: unibertsaltasuna sustatzea, etorkizuna eratzea, eta konpromisoa babestea. Ekimen horren amaierarako, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipioak betetzeko 770 promesa jaso zituzten 150 estaturengandik, bai eta 255 promesa ere, enpresa, gobernu arteko erakunde, giza eskubideen aldeko erakunde nazional, parlamentu, gizarte zibileko erakunde eta beste hainbat elkarterengandik. Turk goi-

¹ Hau da *Etorkizuneko Goi-bilerarako* duen ikuspegiaren adierazpena.

komisarioaren esanetan, Human Rights 75 ekimenak aukera eman zuen egungo ibilbidea ulertzeko, giza eskubideen arloko arrakastei eta porrotei dagokienez. Mundu osoan giza eskubideen aldeko babes handia ikusi dutela adierazi du, eta Open Society Barometer erakundeak egingdako ikerketa baten arabera, haien inkestan parte hartutako gehiengo batek giza eskubideak «ongirako indarra» zirela adierazi zuen. Giza eskubideek batasunerako ahalmena dutela dio, eta orain da unea gizateariak giza eskubideak indartu eta aldarrikatzeko, krisiari aurre egiteko.

Giza eskubideen promesa iheskorra betetzeko moduari dagokionez, Turk goi-komisarioak dio benetako aukera bakarra dugula eta hori giza eskubideen botere osoarekin bat egitea dela, mundu baketsuago, berdintsuago eta jasangarriago bat lortzeko. Giza eskubideak babes gisa erabili behar ditugula esaten du, baina baita etorkizuneko erronkei aurre egiteko indar eragile gisa ere. Halaber, adierazi du giza eskubideen babesa eta aurrerapena sustatzeko modu bakarra elkarrizketa zailak baina eraikitzaileak izatea dela. Elkarrizketa horiek gabe, ezinezkoa da gizartearen eboluzionatzea eta sendatzea. Gobernuak giza eskubideen markoak arazoak konpontzeko formula gisa erabil ditzakete, eta giza-banakoei, berriz, giza eskubideak euskarri moral eta juridiko gisa eta itxaropen-iturri gisa ikus ditzakete, batez ere gazteentzat.

Turkek idatzi du testigantza indartsu asko entzun zituztela Human Rights 75 Ekimenean, eta horietan deskribatu zituztela nola giza eskubideei buruzko ikuspegiak eta politikek eragiten duten aldaketa gizartean. Turkek adierazi du giza eskubideen diskurtsoak gobernu-maila guztietako politika guztien ardatza izan beharko lukeela. Halaber, dio ekimenaren bultzada baliatu egin behar dugula, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala onartu zenetik izandako porrotetik eta garaipenetatik ikasteko. Adierazi du giza eskubideen kategoria guztiak berdin errespetatu behar direla eta haiekin bat egin behar dela. Zehazki, aipatzen du zein garrantzitsua den giza eskubideen azterketa egitea krisi planetario hirukoitzari eta teknologiaren iraultzari aurre egiteko.

Turkek Human Rights 75 Ekimeneko zortzi mezu nabarmendu zituen, bere bulegoaren lehentasunak eta antolakuntzaren 2024-2027rako Kudeaketa Plana kokatzeko.

1. mezua: **Giza eskubideen aldeko mugimendu global indartsua dugu: babestu egin behar da, eta berritzeko espazioa eman behar zaio**

Turk goi-komisarioak aniztasuna eta ikuspegi anitzak garrantzitsuak direla nabarmentzen du, giza eskubideen agenda tokian-tokian eta

mundu mailan bultzatzeko orduan. Eragileen komunitate anitz batek aukera gehiago ematen die gizarte zibileko erakunde eta estatu askori elkarlanean aritzeko eta aliantzak sortzeko giza eskubideen funtsezko helburuetarako. Eragile horien arteko diskurtso eraginkorrerako funtsezko faktoreak dira denek izan behar dutela zeresan berdina lehenetasunak eta ekintzak taxutzerakoan, eta konpromisoa areagotzeko eta zabaltzeko bideak aurkitu behar ditugu. Adierazi du eskua luzatu behar dugula eta giza eskubideak babesten dituen gehiengo isila eta eskubide horiek zalantzan jartzen dituztenak integratu behar ditugula. Era berean, adierazi du garrantzitsua dela aldeko narratibak sortzea eta informazioa gehiago zabaltzea, eta artearen, kulturaren eta kirolaren esparruak erabiltzea jendeari eskubide kulturalen garrantzia gogorarazteko. Gainera, ohartarazi du gobernuek adierazpen-askatasunak babestu behar dituztela, eta giza eskubideen aldeko ekintzaileei ikus-entzuleengana modu eraginkorrean iristen utzi behar zaiela, haiek beren segurtasunagatik beldurrik izan gabe.

2. mezua: **Gatazka ziklikoak amaitzeko, jarri giza eskubideak prebentzioaren eta bake-erakuntzaren erdigunean**

Turk goi-komisarioak nabarmendu du giza eskubideak beste ezeren gainetik jartzea bakeari eusteko garrantzitsua dela. Zehazki honako hau adierazi du: «Nazioarteko giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren printzipioak dira gure kontzientzia kolektiboa, gure gizatasunaren beraren bermatzaileak. Errespetatu egin behar dira, hutsik egin gabe». Giza eskubideen esparruak eta legeak indarkeria prebenitzeko tresna oso garrantzitsuak direla dio, giza eskubideen urraketak indarkeria- eta ezinegon-agerraldien aurretik gertatu ohi direlako. Beraz, giza eskubideek eta giza eskubideak babesteko lan egiten dutenek funtsezko rola izan behar dute bake-operazioetan eta indarkeriaren prebentziarako misio politiko berezietan. Era berean, giza eskubideetan oinarritutako prebentzio-metodoak eraginkorrak izan daitezzen, herritar guztien parte-hartze esanguratsua izan behar dela adierazten du, eta, zehazki, askotan baztertuta geratzen diren kolektiboak, hala nola emakumeak eta gazteak, barne hartzen direla ziurtatu behar dela. Halaber, justizia trantsizionalak eta indarkeriazko gatazken osteko kontu-emateak lehenetasuna izan beharko lukete. Hau dio Turke: «epe luzera, egonkortasuna lortzeko, ezinbestekoa da kausa sakonei aurre egitea, hala nola pobrezia, diskriminazio sozial eta ekonomikoari eta ustelkeriari.» Halaber, adierazi du oso garrantzitsua dela ordenako indarrek giza eskubideen arauak betetzea eta gehiegikeriarik ez egitea.

3. mezua: **Gure ekonomiak eraldatu behar ditugu, berdintasuna eta jasangarritasuna ardatz hartuta**

Turkek adierazi du une honetan krisi ekonomiko batean gaudela, eta muturreko desberdintasunak daudela biztanle aberatsenen eta pobreen artean. Hori, berez, giza eskubideen krisia dela dio. Beraz, estatuei eta komunitateei eskatu behar diegu beren ekonomiak erreformatzeko, giza eskubideen kontzeptuak ardatz hartuta. Giza Eskubideen Ekonomiaren kontzeptua baliabideak berdintasunez emateko erabili behar dugula adierazten du. Giza Eskubideen Ekonomia kontzeptuaren ikuspegia BPGd-tik harago doa, eta desberdintasunetan eta herritarren ongizatean jartzen du arreta, eta lehentasuna ematen die emakumeen eta nesken eskubideei, ordaindu gabeko zainketen sektorean neurritz kanpoko rola baitute.

Turkek nabarmentzen du garrantzitsua dela zerga-autonomia indartzea zerga-politika progresiboagoak erabiliz eta finantza-sektorearen barruko ustelkeria eta legez kanpoko jarduerak eragotziz. Adierazten du zerga-fluxuetan eta legez kanpoko finantza-fluxuetan ere nazioarteko lankidetzak gehiago izatea funtsezkoa dela giza eskubideei begirako garapen ekonomikorako. Era berean, herrialde asko zorpetzekargak jasaten ari diren arren, idatzi du giza eskubideak babesteko konpromiso ekonomikoak hartzea ez dela alboratu behar, herrialde baten zorpetze-egoera soilik kontuan hartuta. Are gehiago, giza eskubideak lehenetsiz, zorra arintzeko esparru eraginkorrak sor ditzakegula idatzi du. Enprekin ditugun egungo harremanak erreformatzen ere arreta jarri behar dugula dio, kontrolik gabekoak izateko joera baitute. Beharrezkoa da Enpresa eta Giza Eskubideei buruzko NBERen Printzipio Gidariak aplikatzea eta giza eskubideetan eragindako kalteetarako behar bezalako arreta korporatiboa sortzea, ingurumenean eragindako kalteekin zerikusia dutenak barne, legeriaren bidez derrigortuta.

4. mezua: **Ingurumen-ekintzak, klima-aldaketaekin lotutakoak barne, giza eskubideetan oinarrituta egon behar du**

Turkek adierazi du indar gehiago bideratu behar dugula ingurumen garbi, osasuntsu eta jasangarria izateko eskubidean. Bere ustez, irabazi material eta ekonomiko handiagoak lortzeko erreparatu diogu denbora luzeegian, ingurumena zaintzeko baino, eta, orain, planeta kalte handiak pairatzen ari da, eta egoera horren ondorio larrienak egoera ahulenean dauden biztanleak jasaten ari dira. Hala ere, aitortu du aurrerapen handiak egin direla ingurumenarekin lotutako giza eskubideei

buruzko zuzenbidearen arloan. Gero eta joera handiagoa egon da krisi klimatikoari giza eskubideetan oinarritutako auzi estrategikoen bidez aurre egiteko. Borroka horretako ahaleginen lehen lerroan haurrak eta gazteak daudela dio, baina hori ez dela haien erantzukizuna, boterea dutenena baizik. Hauxe idatzi du: «Estatuek, atzerapenik gabe, klimaldaketaren aurkako borroka finantzatzeko konpromisoak bete behar dituzte, egokitzapenari, galerei eta kalteei buruzkoak barne». Fronte horretan nazioarteko elkartasuna beharrezkoa dela nabarmendu du. Industria-iraultzaz gutxien baliatu dituztenak, eta kalte horretatik suspertzeko behar diren baliabideak gabe utzi dituzte. Turkek adierazi du nazioarteko lankidetzarik eza zeharo bidegabea dela.

Era berean, desberdintasunean eta giza eskubideetan arreta jarzteak klimaren aldeko ekintzen ardatza izan behar duela dio. Giza Eskubideen Ekonomiaren ikuspegia funtsezkoa izango da giza eskubideetan oinarritutako ingurumen-politiken esparrurako. Ingurumen-politika horietan, biztanleria osoa aintzat hartu behar da, ez soilik gehiengoa. Turkek adierazi du herri indigenen ahotsak sarritan funtsezkoak izan direla ingurumena babesteko. Herri horien giza eskubideak askotan urratu dira, besteak beste, haien tradizio, lur eta baliabideekin lotutako esku-bideak.

5. mezua: **Gobernantzak harkorra izan behar du: erabateko parte-hartzearen bidez egin behar da eta zigorgabetasunarekin amaitu behar du**

«Erakunde publikoetan konfiantza berreskuratzeko, pertsona orok aukera izan behar du bizitza publikoan parte hartzeko eskubidea zentzuz erabiltzeko».

Turkek deskribatzen du nola denek komunitatean parte hartzeak gizarte-kohesioaren sentimendua sustatzen duen, eta diskriminazioa da bide horretan egon ohi den oztopoetako bat. Marjinazio-praktika horiek gizabanakoak eta komunitateak atzean uzten dituztela eta gure gizartearen higadura dakartela adierazten du. Uste du parte-hartze esanguratsua oso garrantzitsua dela komunitateko kide bakoitzarentzat. Askotariko ikuspegiak irtenbide askoz eraginkorragoak lortzen lagundu dezakete. Adierazpen eta eztabaida askea lantzea eta bultzatzea lortzen ez duen gizarteazkenean gelditu egingo dela dio, eta horrek eze-gonkortasuna eragingo duela. Era berean, garrantzitsua da erabakiak hartzeko arduradunek mundu digitala eta komunikabideak aintzat hartzea. «Herriko plaza digitala» bultzatu behar dugu, denei irekia izango

dena, gorroto-diskurtsorik eta desinformaziorik gabea. Oso polarizatuta ez dagoen eta eztabaida eraginkor eta tolerantia bultzatzen dezakeen diskurtsoa ahalbidetzen saiatu behar dugu. Turkekin adierazi du, halaber, beharrezkoa dela zenbait pertsona-talderen gaitzespenaren aurka jardutea, hala nola migratzaileen, errefuxiatuen, politikari ospetsuen eta gatazken biktimen gaitzespenaren aurka.

Horrez gain, Turk goi-komisarioak aipatzen du gobernantza ona garrantzitsua dela, bai eta agintariekin giza eskubideen urraketengatik erantzukizun pertsonalak eskatzea ere. Adierazten du arreta jarri behar dugula enpresen erantzukizunean, zuzenbide penalean egon daitezkeen aurrerapenetan, justizia trantsizionaleko neurrietan, ohi-turazko zuzenbidea sistema juridiko pluraletan integratzean, giza eskubideekin lotutako kasuen ikusgarritasuna areagotuz, eta lidergo hobean, esklabotzaren eta kolonialismoaren ondorioen justizia erreparatiboari dagokionez.

6. mezua: **Giza adimenak gizadiaren zerbitzura egon behar du: guztiok goratuko gaituen teknologia eta zientzia**

Atal honetan, Turk goi-komisarioak teknologia digitalek inoiz izandako aurrerapen handien eragina aitortzen du. Aurrerapen horiek giza eskubideetan aurrera egiteko aukera berri asko eskainiko dituztela adierazi du, baina teknologia horiek giza eskubideetan eragiten dituzten kalteak ere ikusi ditu dagoeneko. Mundu digitalaren desberdintasun handiei buruz ohartarazi du; izan ere, biztanleriaren zati batzuek teknologiaren onurak eskuratzeko aukera osoa dute, eta beste batzuentzat, berriz, zailagoa da teknologia eskuratzeko, eta biztanleriaren zati handiak baztertuta geratzen dira egoera horrek eragindako ondorioengatik. Giza eskubideak teknologia garatzeko eta arautzeko moduaren erdigunean kokatu behar dira. Industria teknologikoa zorrotzago arautu behar da eta giza eskubideetarako babesak sartu behar dira. Bere esanetan, Mundu Itun Digitala, giza eskubideen arloko aholkularitza-mekanismo digitala, lagungarria izan daiteke estatuei eta enpresei politika eta jardunbide teknologikoak giza eskubideen ikuspegiarekin arautzen irakasteko. Hau dio Turkekin: «Funtsezkoa da estatuekin arreta handiagoa jartzea zientziaz baliatzeko eskubidean». Halaber, nabarmendu du garrantzitsua dela esparru horretan herritarrek parte hartzeko aukera gehiago izatea, eta nazioarteko lankidetzaren handiagoa izatea teknologiaren transferentziaren, ezagutzak partekatzearen eta finantzaketaren arloetan.

7. mezua: **Hitzetik harago joateko garaia da: gazteak eta haurrak zentzuz sartu behar dira erabakiak hartzeko prozesuetan, eta etorkizuneko belaunaldien izenean jardun behar dugu**

Turkek adierazi du Human Rights 75 ekimeneko Gazteriaren Adierazpenak oso argi utzi zuela gazteek emaitzetan eragiteko aukera izan behar dutela giza eskubideei buruzko erabakiei dagokienean. Politikan gazteen ordezkartzan dagoen defizitari aurre egin eta konponbidea eman behar zaiola adierazi du. Estatuek gazteen aholku-kontseilu nazionalak erabili behar dituztela dio. Halaber, aipatzen du hezkuntza-krisia gazteen gaitasuna ahultzen ari dela, parte-hartze esanguratsua izateko gaitasuna, alegia. Krisi horri aurre egin beharko litzaioke Idazkari Nagusiak hezkuntza eraldatzeari buruzko ikuspegi-adierazpenaren bidez. Adierazpen horretan, haur guztientzako kalitatezko hezkuntzan aurrera egiteko integralak diren giza eskubideen estandarrak azaltzen dira. Zehazki, adierazten du gazteek bereziki parte hartu beharko luke-tela planetako krisi hirukoitzari buruzko eztabaidan, beren belaunaldian duen eragin neurrigabeagatik. Turkek adierazten du haurrek jasaten dutela krisi guztien zatirik handiena, eta, beraz, haien iritzia beharrezkoak direla giza eskubideen politikak erabat ezartzeko. Epe luzerako estrategia gehiago egon behar dira etorkizuneko belaunaldien eskubideak babestuko dituztenak, hala nola Etorkizuneko Belaunaldiei buruzko Adierazpena. Adierazpen hori goi-bileran eztabaidatuko da, eta hori aukera ona izan daiteke helburu horretarako.

8. mezua: **Hori guztia ezin da lortu gure giza eskubideen sistema indartu gabe**

«Gero eta gai gehiago planteatzen dira, gero eta konplexuagoak. Hori dela eta, giza eskubideen esparruko munduko eta eskualdeko erakundeek eta mekanismoek berritzen jarraitu behar dute eraginkortasunaren, irisgarritasunaren, interkonexioaren, gardentasunaren, erantzuteko gaitasunaren eta inklusibotasunaren mesedetan.»

Turk goi-komisarioaren esanetan, giza eskubideen arloko egungo ikuspegiak modu sistematikoagoan bateratu behar ditugu. Horretan teknologiak berebiziko garrantzia izan dezakeela adierazi du. Era berean, adierazten du herritarrek, oro har, giza eskubideei buruzko erabaki gehiagotan inplikatu behar ditugula, eta giza eskubideak gartzeko egungo funtsezko erakundeak txikiegiak direla eta estatuen eta beste eragile batzuen babesa behar dutela. Adierazi du bulego horren-

tzat eta giza eskubideen sistemarentzat ezinbestekoa dela loturak egitea eta aliantzak sortzea, aurrerapausoak emateko. Oro har, giza eskubideen egituren eta mekanismoen epe luzerako osasuna estatuen eta haien laguntzaren mende dagoela dio, baita lankidetzan aritzeko eta el-karrizketa zailak izateko duten borondatearen mende ere. Turkek bere adierazpena amaitzen du aitortuz guk, komunitate global gisa, harro egon behar dugula giza eskubideen sistemaren bilakaeraz, eta sistema horri eusten saiatu behar dugula.

Gutxiengoak eta Aniztasuna: Giza Eskubideen Erronka Lortu Gabea

Eduardo J. Ruiz Vieytez eta Gorka Urrutia Asua

Giza Eskubideen Institutua, Deustuko Unibertsitatea (Bilbao)

Giza eskubideen aldeko borroka arrakasta ukaezinak lortu ditu, bai maila nazionalen, bai nazioartean. Gaur egun, gizakia babesteko aparatuak historiako mailarik altuena lortu du eta hori betetzen dela bermatzeko berariaz sortutako arau, erakunde eta mekanismo ugari daude. Hala ere, aldi berean, aitor dezakegu gaur egun giza eskubideak krisian daudela eta arrakastaz gaixo diruditela. Izan ere, giza eskubideen diskurtsoa izugarri zabaldu da joan den mendearen erdialdetik hona. Gaur egun, ia eragile politiko guztiek giza eskubideen aitortzan eta bermean oinarrituta eraiki nahi izaten dituzte beren diskurtsoak. Era berean, gizarte-mugimenduek, oso izaera desberdinetakoek, giza eskubideen zilegitasun sozial eta politikoaren inguruan eratzen dituzte beren diskurtsoak. Baina diskurtso mailako arrakasta hori ez da guztiz fidela, eta ez du politika eta jarrera benetan koherenteetan islarik. Azkenaldian ikusten ari gara eskubideak bazterten edo murrizten dituzten diskurtsoak gero eta eremu sozial eta politiko handiagoa hartzen ari direla. Aldi berean, hizkuntza politikoki zuzenean eskubideak beharrezko printzipio legitimatzaile gisa finkatuta badaude ere, egia esan, gehiengo handiek ez dute bere egin eskubide horien unibertsaltasuna, ezta haien sakontasun substantiboa ere.

Adierazle argiak daude esateko giza eskubideen kultura ez zela garai batean pentsatu nahi izan dugun bezain sendoa. Alde batetik, eskubideen inflazio moduko bat gertatu da. Giza eskubidetzat hartzen diren eskubideen zerrenda etengabe hazi da, eta berrikuntza sozial ba-

koitzean edo ekarpen akademiko edo politiko bakoitzean eskubide desberdin bat islatu nahi duten diskurtso batzuk erantsi dira, «belaunaldi» bat edo eskubide multzo bat izan ez denean. Horren ondorioz, giza eskubideen ideiak berak sendotasuna galdu du, eta «lorpen berrien» argudio-ahultasuna dagoeneko finkatuta zeuden eskubideetara zabaldu da. Aldi berean, ustezko eskubideak betetzen direla ziurtatu gabe aldarrikatzeak frustrazioa eta mesfidantza sortzea ere badakar sisteman. Eta giza eskubideen kontzeptuak zorrozatasuna eta sinesgarritasuna galetzen baditu, horrek eduki guztia kutsatzen du, lehen etapa historikoe-tan formulatu zirenean barne. Gauzak horrela, beharrezkoa da giza eskubideak eta horien birtualtasuna sendotzeko estrategia birpentsatzea. Kontua ez da eskubideen zerrenda zabaltzea, ezta berariazko taldeen-tzako kategoria berriak sortzea ere, eskubide finkatuenean berrinterpretazio eguneratuak defendatzea baizik.

Bestalde, giza eskubideek oraindik ez diote eraginkortasunez aurre egiten beren elementu definitzaileetako bati, beren unibertsaltasunari, hain zuzen. Hori, alde batetik, norberekoikeria antropologikoari zor zaio, halakoetan ia beti lehenesten baitu norberaren izatearen defentsa bestearenaren aurrean, batez ere muturreko egoeretan. Bestetik azken mendeetan gizateriak izan duen eta xx. mendean mundu osoan finkatu den antolaketa politikoa dugu. Hala, mundua lurraldean oinarritutako estatuetan banatzearen ondorioz, estatu horiek arduratu dira giza eskubideak ezartzeaz eta bermatzeaz, bai bertako herritarrei, bai atzeritarrei. Baina, horrek ekarri du eskubideak estatuko gizarte bakoitzean nagusi den kultura-identitate jakin baten bidez iragazi izana. Eskubideak nazionalizatzeko prozesuak, lurraldean oinarritutako estatuen bidez eratutako mundu batean saihestezina denak, eskubideen unibertsaltasuna hutsaldu du.

Unibertsaltasunaren higadura hori bi forma paralelotan gertatzen da. Alde batetik, komunitate politiko nazionalekoak ez diren pertsonak, atzeritarrei, eskubide askoren titulartasuna edo funtsezko edukia ukatzen zaie. Bestetik, pertsona guztiei aplikatzen zaizkie nagusi diren identitate eta kultura parametroak (estatu demokratikoetan gehiengoe-kin bat etorriko direnak). Normaltasuna, José Pablo Feinmannen iritziz¹, dagoen kontzepturik antidemokratikoa, Estatu bakoitzean eraikitzen da, kultur identitate nagusian parte hartzen ez duten pertsonak edo taldeak diseinu horretatik baztertze joera duen ikuspegi zehatzetik abiatuta.

¹ Feinmann, J.P. (2008): *La filosofía y el barro de la historia*. Bartzelona: Planeta.

Horrela, bada, giza eskubideek oraindik ere lortu gabe duten erronka nagusietako bat da unibertsaltasunaren titulartasuna eta gozamen askotarikoa uztartzea, eskubide horiek gauzatu ditzaketen lege eta politika esparruen barruan, hau da, estatu-nazioen esparruan. Horregatik, aniztasuna, hau da, gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko harremana da giza eskubideen eta demokraziaren beraren erronka kontzeptual nagusia. XIX. mendetik, John Stuart Mill², Alexis de Tocqueville³ edo Thomas Paine⁴ bezalako pentsalari ospetsuek demokraziaren arriskuei buruz ohartarazi ziguten, «gehiengoaren tirania» potentziala den aldetik. Benjamin Constantek, berriz, lehenago irakatsia zigun «herri oso baten borondateak ezin duela bidegabea dena bidezko bihurtu»⁵. Horixe da, hain zuzen ere, giza eskubideen aplikazioak gaur egun planteatzen duen arazoa; izan ere, estatu barruko gehiengoak dira legimititatea eta gaitasuna dutenak, ez bakarrik giza eskubideen titularrak beren testuinguruan aitortzeko, definitzeko eta interpretatzeko, baita horien edukia edo horiek gozatzeko modua zehazteko ere. Izan ere, Estatuak formalki demokratikoak izateak ez du berez giza eskubideen funtsezko elementuetako bat erabakitzen, hau da, Estatuaren eta gehiengoaren botereari mugak jartzea.

Izan ere, historikoki, giza eskubideak ekintza publikoaren muga gisa eratu ziren. Hala ere, egia da hori ikuspegi indibidualista, mende-baldeko eta pragmatikoz egin zela eta gaur egun ere horren ondorioa ordaintzen dugula. Era berean, gogoratu dezagun giza eskubideak Europako erlijioen gatazkaren eta Mundu Berriaren aurkikuntzaren ondoriozko esperientziatik sortu zirela historikoki. Hau da, alienitatearen esperientziatik, bestearekiko errespetutik, desberdinen arteko bizikidetzatik.

Garapen sozial eta ekonomikoak eta garapen teknologiko espontzialak ez dute ekarriko ezberdintasun sinboliko, identitario, erlijioso edo kulturalak amaitzerik edo desagertzerik. Aitzitik, interakzio handiagoa eta gatazkak izateko aukera handiagoak sortzen dituzte haien artean. Giza eskubideak sakonki birpentsatu behar dira ikuspegi horretatik. Kontua ez litzateke hainbeste gizadiaren identitate-beharrei erantzuteko eskubide berriak sortzea, baizik eta dagoeneko finkatuta dauden eskubideak berrinterpretatzea, izaera guztietarako aukera-berdintasuna ziurtatuko duen aniztasunaren esparruan.

² Stuart Mill, J. (1997): *Sobre la libertad. Comentarios a Tocqueville*. Madril: Espasa Calpe.

³ Tocqueville, Alexis (2023): *La democracia en América*. Madril: Trotta.

⁴ Paine, T. (1984): *Rights of Man*. New York: Penguin books.

⁵ Constant, B. (1874): *Œuvres politiques*. Paris: Charpentiers et Cie, Libraires-éditeurs.

Esan dezakegu aniztasuna, hau da, gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko bizikidetzatza bihurtu dela edozein gizarte demokratikoren politika publikoak definitzeko behin betiko oinarri. Horrek planteatzen digu hartu ditugun eskema politikoak zer kulturatan blaitu ditugun birpentsatu beharra. Eredu plural horretan, gizarte homogeneoak eratzeo asmoa bideraezina eta anakronikoa da. Aniztasun kulturalaren errealitate poliedrikoak eta identitate kolektiboen aniztasunak zalantzan jartzen dituzte gure eredu politikoaren oinarri tradizional batzuk, hala nola herritartasuna, parte hartzea, espazio publikoak birdiseinatzea eta, azken batean, giza eskubideak interpretatzea. Izan ere, giza eskubideak edo oinarritzko eskubideak ulertzea, aitortzea eta babestea kontuan hartu behar dira, baldin eta ezartzen diren gizartean kultura edo identitate aniztasuna lehen planteatzen ez bazen edo kontuan hartzen ez bazen.

Hori garrantzitsua da, mendeabaldeko liberalismoak predikatutako unibertsaltasuna estuki lotuta dagoelako kultura bakarraren ideiarekin, eta ideal liberala neutraltasun kulturalaren ideal bat delako, errealitatearen konplexutasun gero eta handiagoa dela eta, ezinezko bihurtzen dena. Javier De Lucasek⁶ adierazten duen bezala, gure demokraziek herritarren dimentsio juridiko-abstraktua eta funtzio estatiko eta atxikitzailea lehenesten dituzte, herritarren identitate, kultura edo talde dimentsioak alde batera uztea posible balitz bezala. Teorian, eskubide komunak defendatzeko sistema neutro gisa aurkezten dena, praktikan, funtsean desorekatuta dago, gehiengoaren duen taldearen mesedetan. Nolanahi ere, esan ohi dugu parametro kulturalen inguruan eraikitzen diren identitate kolektiboak garrantzitsuak direla gizartea antolatzeo eta eskubideak interpretatzeko orduan. Guzti bereziki kontuan hartu behar da gaur egungo testuinguruan, aniztasuna argiago islatzen baita gure gizarteetan, eta giza eskubideen esparrua hura behar bezala kudeatzeko beharrezko erreferentzia gisa ematen baita⁷.

Horrela, gizarte demokratiko batean aniztasunaren kudeaketaren gaia planteatzean, gehiengoaren eta gutxiengoaren artean giza eskubideekiko errespetuzko esparru batean egon behar duen harremanaz hitz egiten dugu. Unibertsalismoaren eta partikularismoaren arteko tentsioa edozein komunitate politikoren barruan ere gertatzen da eta kuantitatiboki nagusi diren joeren edo taldeen eta nagusi ez direnen ar-

⁶ De Lucas, J. (2003): *Globalización e identidades*. Bartzelona: Icaria. De Lucas, J. eta Solanes Corella, A. (arg.) (2009): *La igualdad en los derechos: claves de la integración*. Madril: Dykinson.

⁷ Koenig, M. eta Guchteneire, P. (arg.) (2007): *Democracy and human rights in multicultural societies*. Aldershot: Unesco Publishing/Ashgate.

teko oreka delikatua jartzen du mahai gainean. Aniztasunaren jokoan beti dago interakzioa demokrazian bere erabakiak inposatzeko gai den gehiengoaren eta bere aldarrikapenak indarrean jartzeko gehiengoaren baimena behar duten gutxiengoaren artean. Ikuspegi horretatik, kultur aniztasuna ez da Politikaren eta Zuzenbidearen, nazionalen eta atzerri-tarren, bertakoen eta arrotzen, edo integratuen eta integratu gabeen arteko jokoa, baizik eta talde, gehiengo eta gutxiengoan adierazpen edo elementuen arteko harremana. Aurrean dugun errealitate plurala ahalik eta modu demokratikoenean kudeatu behar dela onartuta, gi-zarte-babes handiagoa edo txikiagoa duten kultura-errealitate desberdinak aurkezten zaizkigu. Eta komunitate politikoak elementu kultural edo identitarioei eragiten dieten erabakiak hartu behar dituen bezala, borroka demokratikoaren ondorioz, gehiengoak duten taldeak erabakiak hartzeko orduan gutxiengoan gainetik jartzeko moduan daude.

Baina testuinguru guztiak ez dira berdinak, eta nortasunaren bi-dez beren eskubideez gozatu nahi duten pertsona guztiak ere ez daude egoera berean. Jomuga batzuen eta besteen legimititatea bereizteko gehien erabiltzen den desberdintasunetako bat gutxiengo zaharren edo tradizionalen eta gutxiengo berrien arteko bereizketa da. Izan liteke bereizketa ukatzen duenik egotea, gutxiengoak, definizioz, tradizionalak direla ulertuta; izan ere, gutxiengoaren ezaugarri definitzaileetako bat da denbora luzez lurralde zehatz batean edo espazio politiko batean egotea, estatu modernoaren eratuak den une historikoan egotea edo bertako kideak juridikoki biztanleria nazionalekoak izatea. Kasu horietako edozeinetan, nahitaezko ondorioa da gutxiengo berriei buruz hitz egitea kontraesana litzatekeela eta, beraz, ezin izango litzatekeela galdetu gutxiengo berrien eskubideei buruz edo eremu kulturantzun demokratiko berrian duten tokiari buruz.

Aurreko planteamenduak zentzua izan dezake «gutxiengo» kontzeptuaren bilakaerari erreparatzen badiogu, bai arlo juridikoan, bai politikoan. Instituzionalki, gutxiengoaren nazioarteko babesa lehen mundu gerraren ondoren planteatu zen, Europako eremu zabal batean gutxiengo multzo baterako, denak tradizionalak, berme sistema konplexu bat hartuta. Babesaren jatorriak, jakina, gutxiengo zaharrei buruzkoak dira. Baina kontuan izan behar da garai hartako testuinguruan, nekez uler zitekeela gutxiengo berririk Europan. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, giza eskubideak gutxiengoaren eskubideen aurkakoak ziren, eta hainbat hamarkadatan, kontzeptua baztertuta ez ezik, arbuia ere geratu zen. Gutxiengoaren babes juridikoa ez zen berriro agertu Europan laurogeiko hamarkadara arte, eta laurogeita hamarreko hamarkadan bultzada izugarria hartu zuen, Berlingo Harresia bat-batean erori ondoren. Gaur egun, gutxiengoaren Europako benetako zuzenbide bat dago,

eta gutxienerako babes-estandar bat duen ondare komun bat sortzen da. Egia da nagusiki gutxiengo tradizionaletan jartzen dela arreta, baina orain argi eta garbi adierazten da gutxiengo horiek «nazionalak» direla eta horrek atea zabalik uzten dio nazionalak ez diren edo tradizionalak ez diren beste gutxiengo batzuk sartzeari. Hori gutxiengoekin egiten den lan instituzionalaren bilakaera geldo baina pixkanakakoan islatzen da.

Nolanahi ere, gutxiengoaren kontzeptuak beharrezkoa izaten jarraitzen du, demokrazia ezin baita zenbakien joko huts batera mugatu. Oinarrizko giza eskubideen errespetuaren eta bermearen ideia bera ere, hain zuzen, gehiengoaren zenbaki-arauari mugak ezartzean datza. Suitzako 2009ko erreferendumak «demokratikoki» erabaki zuen minareteak eraikitzeke debekua Helvetiar Konstituzioan txertatzea⁸. Talde jakin baten aurkako erlijio-askatasunaren urraketa argia da, eta kasu bikaina da gutxiengo batek, kasu honetan gutxiengo berri horietako batek, ezaugarri duen identitate-elementuei buruz gehiengoaren erabakien mugak aztertzeke. Gutxiengo horren giza eskubideak gehiengoak murrizten ditu, itxuraz demokratikoa eta konstituzionala den prozedura baten bidez.

Estatu demokratiko liberal batek gutxiengo kulturalai lagundu behar die beren kulturak beste gehiengo batean zaintzen eta garatzen, gizartean edo ekonomian filosofia berarekin esku hartzen duen era berean. Horrek esan nahi du berezitasun kulturalak berariaz aitortu behar direla, baita berdintasuna lortzeko sustatu eta babestu ere. Hala ere, posizio horien teorizazio eskasa edo sendotasunik gabea egiazta dezakegu, eskubideen ikuspegitik behintzat.

Egoera horren aurrean, eskubideen ikuspegi egokirako alde zuzeneko jarraibide batzuk ezartzeko ahalegina egin genezake, aniztasunaren kudeaketaren desbideratzeak edo tentazioak dei ditzakegunak saihesteko, horiek gutxiengoaren eskubideen kontzepzio edo oinarri okerrak baitira. Giza eskubideen ikuspegi plural eta inklusibo egokirako, hau da, unibertsalerako, zenbait logika saihestu beharko genituzke, hauek hain zuzen:

- Berritasunaren logika saihestu: aniztasuna ez da fenomeno berri gure gizarteetan. Kontua da eskubideei buruzko diskurtso bat sortzea, gehiengoaren eta gutxiengoaren arteko jokoarekin koherentea dena eta berez berria ez dena. Aldi berean, gutxiengo berrien izaera ez da beti erraz bereizten gutxiengo tradiziona-

⁸ Ruiz Vieytez, E. (2013): «Democracia y religión. Problemas derivados de la decisión suiza de prohibir los minaretes», *Revista de Derecho Político*, 87, 253.-288. or.

len izaeratik eta, nolanahi ere, lausotzeko joera izaten du denborak aurrera egin ahala. Ezin dugu eskubideak eskuratzea irizpide kronologikoetan oinarritu, irizpide horiek, gainera, modu kolektiboan aplikatzen baitira, eta ez egozpen indibidualetan oinarrituta. Asmoa ez da eskubide berriak eraikitzea, lehendik dauden eskubideak aniztasunaren ikuspegitik berrinterpretatzea baizik.

- Pribatutasunaren logika saihestu: talde minoritarioen ezaugarri diren kultura-elementuak ezin dira talde horietako kideen eremu pribatura mugatuta geratu; aitzitik, kide horiei laguntzen diete, herritar diren aldetik, espazio publikora sartzen direnean. Ezin da ukatu identitateen aitortza gutxiengoaren eskubideak interpretatzen ditugunean, gehiengoaren ikuspegitik pentsatzen dugunean ez baitugu hori egiten. Kultura-elementu nagusiek oinarritzko eskubideen irakurketa antolatzen edo bideratzen badute, gauza bera egin beharko da talde nagusia osatzen ez dutenen identitate-elementuekin.
- Partzialtasunaren edo berariazkotasunaren logika saihestu: ez dugu aurrera egin behar kategoría edo pertsona-talde jakin batzuetarako eskubide bereziak edo berariazkoak sortzean edo aitortzean oinarrituta, baizik eta herritar guztiei dagozkien eskubide generikoak zabaltzean oinarrituta. Beharrezkoa da berariazko eskubideen baliagarritasuna zalantzan jartzea eta, gainera, gehienek normalean oker ulertzen dituzte eskubide horiek, pribilegio edo emakiden ikuspegitik.
- Esentzialtasunaren logika saihestu: ezin ditugu kulturak edo identitateak estatikoak balira bezala ulertu. Aldiz, gutxiengoaren kulturak etengabe aldatzen dira, gehiengoaren kulturen antzera. Esparru liberalean, pertsonen askatasuna izan behar dute kulturatan zehar mugitzeko eta haien identitate-atxikipena aldatzeko. Esentzialtasunak, gainera, eskubide indibidualen tesiaren aurrean eskubide kolektiboak eskatzen direlako ideia indartzen du. Ikuspegi juridiko hutsetik, benetako unibertsaltasunak ez digu eskatzen eskubide kolektiboak zentzu hertsian aldarrikatzea, baizik eta ondasun kolektiboak juridikoki babestea, gizabanako bakoitzak egikaritzeko aske izan behar duen eskubideen bidez. Eta, nolanahi ere, nazioarteko dokumentuetan azalderiaz, hausnartu gabe erabiltzen den eskubide kolektiboaren eta indibidualen arteko bereizketa berriro aztertu behar da.

Giza eskubideen gaur egungo garapen egoera, teorikoa zein arauemailea, urrun dago oraindik baldintza horiek irmo onartzetik. Lehen esan bezala, eskubideen arloan aurrerapausoak eman dira kultura-

aniztasuna kudeatzeko orduan, baina batez ere modu alderraietan edo, gutxienez, ez sistematikoki. Hasteko, gutxiengo berriak buruz ari garenean, oztopo bati egin behar diegu aurre. Alde batetik, populazio migratzaileen, ez-nazionalen edo antzekoen eskubideak arautzen dituzten indarreko nazioarteko arauak ia ez dute jasotzen kultura edo nortasun elementuak aipatzen dituen xedapenik. Bestalde, gutxiengoaren babesari edo kultura-aniztasunari buruzko arauak idazterakoan edo aplikatzerakoan, gutxiengo berriak baztertzeko joera nabarmena agertzen da.

Ingurune gero eta ugariagoan, parte-hartzea funtsezko elementua da erabakiak hartzeko, egokitzapenak bilatzeko, doikuntza hitzartuak egiteko eta espazio publikoak berrirakurtzeko prozesuei dagokienez. Gure asmoa ez da kritika guztiz erlatibistako jarrera hartzea, aparatua publikoa geldiaraziko duena askotariko kultura-elementuen bizikidetzari buruzko erabakiak hartzeko orduan. Edozein gizarteren egunerokotasunak parametroak eta jarraibideak etengabe hartzea eskatzen du. Erabakiek eraginkorrak izan beharko dute, baina, aldi berean, aldagarriak, zalantzarikak eta etengabeko birnegoziazioan berrikusteko modukoak. Funtsezkoena berrikuspen edo birnegoziazio etengabe hori egiteko modua da eta, batez ere, horretan nork eta nola parte hartzen duen ikustea. Hori dela eta, berriro diogu kultura-aniztasunaren kudeaketa egokian prozedurazkoa funtsezko bihurtzen dela eta, ondorioz, funtsezko kontzeptua parte-hartzea dela.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da eskubideen kontzepzio tradizionala irekitzea eta malgutzea, eskubide horiek malguagoak izan daitezen, bizitza ulertzeko modu batera ez ezik, zentzuz posible den modu guztietara ere egokitu eta aplikatu ahal izateko. Horregatik, pluralizazio demokratikoko prozesu horren asmoa ez da konponbide juridikoen eskema finko eta totalizatzaileari amaiera ematea, baizik eta, batez ere, konponbide horiek hartzeko prozedurak irekitzea. Pluralizazio demokratikoan, eskubideak klabe ireki eta integratzaileagoetatik berrirakurtzera behartzen gaituen egoeran, garrantzitsuena ez da lortu den azken emaitza normatiboa, baizik eta horretara iristeko prozedura. Gizarte plural baten nahia prozedurak eta partaidetzak partekatzea izan behar du, baina ez nahitaez nortasun-elementuak. Eskema horretan, partaidetza, metodo eta eskubide gisa, berrirakurtzea horren erdigunean kokatzen da.

Laburbilduz, aniztasuna da giza eskubideen behin betiko testa, eskubide unibertsalak diren aldetik. Demokrazia ezin da dinamika politiko soiltzat hartu gehiengoaren alde. Giza eskubideak, hain zuzen ere, eremu politiko bakoitzeko gehiengoaren zenbakizko jokoaren mugak dira. Demokraziak, soil-soilik gehiengoaren arau gisa ulertuta, ez ditu konpontzen talde minoritarioetako pertsonen kultura-aniztasunari buruzko auziak.

Ikuspegi kultural edo axiologiko desberdinek, identitateen asimetriak eta kanpoko adierazkortasunak eskubideak etengabe egokitu eta doitzera behartzen dute. Erronka nagusia da dauden eskubideak pentsamolde berri batetik aplikatzea, erabakiak hartzeko prozesuetan gutxiengoen ikuspegiak eta nahiak txertatuz, baita gutxiengo berrienak ere, elkarrizketarako eta parte hartzeko bide egokien bidez. Eraitza elkarren arteko egokitze orekatu ezegonkor eta zalantzaragarria izango da, ziurrenik bidegabekia eta sozialki inperfektua. Unibertsaltasunaren ulerkerak berri horrek segurtasun juridikoaren dosi jakin batzuei uko egin beharra dakar, eta horrek epe ertain eta luzerako kohesio eta harmonia sozial handiagoa ekarri behar du.

Komuna pentsatzea, pentsamendu kritikoaren erronka

*Alfonso Dubois Migoya*¹

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU)
Nazioarteko Ekonomiako eta Garapen Ekonomiako
Irakasle Emeritua

Inoiz ez da erraza izan gizarte bidezkoago bat bultzatuko duen al-daketaren alde lan egitea, baina gaur egun panorama konplexu baten aurrean gaude; garai bereziki iluna da aipatutakoa lortzeko. Arau-alda-ketak bultzatzen zituzten diskurtso tradizionalak indarra galdu dute, ongizatearen gizartearen helburuekin edo giza eskubideen erreferen-tziarekin gertatzen den bezala, eta horrek zailagoa egiten du pentsa-mendu eta konpromiso kritiko alternatiboa garatzeko pentsatzea eta lan egitea. Zerk zailtzen du norabide horretan pentsatzea eta jardutea? Zailtasun nagusia ez dira aldaketa-prozesu bizi eta azkarrek sortzen di-tuzten ziurgabetasunak, nahiz eta arazo handiak eragin. Klima-aldake-taren erronkez, teknologia berrien agerpenaz eta gertatzen ari denari buruz modu deskribatzailean adierazi ohi den guztiaz haratago, Mark Fisherrek zioen bezala, hegemonia berantiar kapitalistak ekintza kolekti-boari egiten dion blokeoa da auziaren mamia.

Blokeo hori proposamen kritikoen ukapenean islatzen da; honda-mendi saihetsezin batera eramaten dutela adierazten da, eta, horrek, sakoneko edozein kritikari zilegitasuna kendu ez ezik, sistemaren alter-natiba den edozein proposamen berri subertsibotzat edo etsaitzat har-

¹ HEGOA Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko presi-dentea izan da 1996tik 2010era arte.

tzera eramaten du. Diskurtso hori nolabaiteko uste komun baten parte bihurtu da, eta etorkizuneko promesa kolektibo bat imajinatzeak abentura erradikal edo idealista bat dirudi. Funtsezkoa da errealtate horretaz jabetzea; izan ere, arrazionaltasun neoliberalak gizartearen gaitasun kritikoa deuseztatzea lortzen badu, etorkizuna nolakoa izango den erabakitzea boterea dutenen interes partikularren esku geldituko da. Ideal demokratikoak, hala nola pertsonen proposamen erabakigarriak zehazten parte hartzea, izugarri murriztuta gelditzen dira, eta, askotan, deuseztatuta. Kolektiboa, komunitatea, aniztasuna ez dira beharrezkotzat jotzen etorkizuna pentsatzeko.

Komuna ahuldu egiten da indibiduala gizartearen erreferentzia bakar edo gutxienez erreferentzia nagusi gisa nabarmentzen duen ikuspegiaren aurrean. Mendebaldeko gizarteetan, alde batetik, ikuspegi neoliberalak nagusitzen dira; ikuspegi horien arabera, gizabanakoa oinarritzko ardatza da, eta lotura komunek garrantzia galtzen dute. Eta, bestetik, jarrera partikular, txiki eta baztertzailetatik balio komunitarioak defendatzen dituzten proposamen ultrakontserbadoreak gora egiten ari dira; beste kolektibo batzuk diskriminatzen dituen ikuspegi itxia da. Eta hori gertatzen da, paradoxikoki, erronka berriei aurre egiteko erantzun kolektibo bat gehien behar denean. Komuna nola ulertzen dugun definitzea da aurrean dugun erronka handia; izan ere, modu batean edo beste batean ulertu, proposamen desberdinak izango ditugu gizartearen etorkizunerako.

Zer neurritan ez da pentsamendu progresista edo kritikoa gai izan, oro har, askatasun indibidualaren defentsa partzial eta interesatu horri aurre egiteko? Oso errotuta dago askatasun indibiduala gure gizartearen eta bizitza-zentzuaren oinarrietako bat dela, eta ideia hori oso justifikatuta dago ikuskera jakin bati dagokionez. Horregatik, beldurra eragiten du hori zalantzan jartzeak, eta edozein kritika manipulatzeko da, joan den mendeko erregimen komunisten suspertzea dela argudiatuz. Idealizatutako askatasun horri buruz gogoeta murriztaile minimo bat egiteak erreakzio emozionalak eta erabateko deskalifikazioak eragiten ditu. Argudioak, azken finean, funtzionatu egiten du, eta geure buruari galdetu behar diogu ukapen horri eman zaion erantzun kritikoa behar bezain argia eta sendoa izan den, edo, aldiz, defentsarako soilik izan den, eta ez duen proposamen alternatiborik eskaini. Wendy Brownek bere buruari galdetzen zion ea gizarte-mugimendu errebindikatzaileak *erantzutera* soilik mugatu diren, ekimen-gaitasuna galdu duten, eta elkarren segidako erronken atzetik joan diren.

Horregatik, pentsamendu kritikoak interdependentzietatik, indibidualtasunetatik eta dimentsio komunitatik bizitako gizarte baten proposamena definitu eta azaldu behar du, gehiengoei iristeko moduan.

Proposamen horren bilaketa planteatzean, asmoa ez da proposamen unibertsal bakar bat lortzea. Ez dago lehentasunen edukiak zein diren ezartzen duen *eredu* edo kontakizun bakarra. Aitzitik, alternatibak izan daitezkeen hainbat forma eta eduki daude. Bizikidetzat sortzailea izan behar duten hainbat ikuspegiren aniztasuna beharrezkoa dela sinetsita baino ezin dira garatu pentsamendu kritikoak. Kontua da ikuspegi desberdinen eztabaidan edo bizikidetzan parte hartzea, eta, hor, nirea haietako bat da beste askoren artean, baina nahikoa funts eta konbikzio du besteekin batera modu sortzailean aritu ahal izateko. Piktetiky adierazi zuen irudipen arriskutsua dela instituzio justu eta emantzipatzaileei buruzko adostasun espontaneo batean pentsatzea. Era askotako aukerak daude. Berpiztu egin dira erregimen alternatiboak eta sozialismo-mota ugariak buruzko eztabaidak, eta sistemen arteko elkarriketak eta emulazio osasuntsu batek soilik eskain dezakete aurrera egiteko itxaropena. Pluraltasuna eta aniztasuna alternatiben funtsezko parte dira. Irtenbide bat bakartzat jotzen denean, gain behera hasten da indar alternatibo gisa.

Hau da oinarritzko gakoa: garai ilun hauetan behar bezain pentsamendu indartsua eta errealista dugun edo ez aldaketa- eta ziurgabetasun-egoera honetako bizitza posible eta desiragarriari buruz. Eta, zehazki, zer alternatiba proposatzen ditugun indibidualismo nagusiari aurre egiteko eta etorkizuneko erronkei erantzuteko. Zer bizitza komun? Nola pentsatzen dugu bizitza hori? Nola definitzen dugu?

Gaur egun indibidualari ematen zaion lehentasunaren aurrean, kontua ez da soilik *beste* aldea lehenestea eta kolektiboa erreferentzia bakartzat ezartzea, baizik eta argi eta garbi erakustea indibidualtasuna ez dagoela mehatxatuta komuna proposatzen denean; aldiz, defendatu egin behar da kolektibitatea dela haren izateko arrazoia, eta gizabanakoen eta gizartearen bizitza hobea ahalbidetuko duena. Kontua da garbi erakustea gaur egungo une historikoan giza kondizioa ezin dela ulertu aurrez aurre dauden bi errealtate gisa, baizik eta bizitzak zentzua duela gizabanakoaren eta komunitatearen arteko erlazioak dakarren tentsio sortzailearen barruan jarduteko gai garenean.

Helburua ez da erantzun zorrotza ematea, baizik eta posizio kritikoaren egungo egoerari buruzko eztabaida zabaltzea, agian behar bezain diskurtso sinesgarri eta konbentziturik ez duela onartuta. Arrazionaltasun menderatzaile horrek baretutako edo *menderatutako* eta planteamendu kolektiboekiko nolabait immunizatuta dagoen gizartearen aurrean, ezin da alde batera utzi hartan sartzen jakiteko eta hesi hori hausteko behararen erronka. Gero eta zabalagoa den eremuan aurrera egiteko moduko eskaintza pentsatu behar da, gehiengo handietara iristeko asmoarekin.

Helburu hori ez da erraza; zerbait berria diseinatu behar da horretarako, eta, horrek, aldi berean, kategoria eta jarrera berriak izatea eskatzen du. *Gu* esan ahal izateko, gaur egun, errealtatea mundu komun batean inplikaturik ikusten ikasi behar da berriro, eta horrek ez du esan nahi gizateria bere buruarekin biltzeko ideal edo nahi abstraktu bat izan behar denik gogoan. Aldiz, Marina Garcések² dioen bezala, atzerapauso bat eman behar da munduko ikusle eta kontsumitzaile indibidual gisa eusten digun distantziari dagokionez, eta ikusgaiaren eta ikusezinararen egungo baldintzen materialtasun zehatzean sartu behar da. Horregatik, komunari buruz galdetzeak pentsamendu eta ekintza kritiko oro baztertzeko horizonteari aurre egitea dakar, eta, hori egiteak arrazionaltasun kapitalistari erantzuna ematen laguntzen du.

Komunari buruzko diskurtso bat egiteko erreferentzien bilaketan, azken hamarkadetan komunitateari buruz izandako eztabaidan sortutako ekarpenak jasotzen dira paragrafo hauetan³, jarraibide gisa balio dezaketenak. Hau da abiapuntua: komunitatea ezin da hartu bere kideei forma ematen dien kontzeptutzat edo kontratu edo arrazoizko argudiaketa bidez adostasun batera iristeko gai diren gizabanakoak biltzen dituen instituziotzat. *Komunitate* kontzeptua egiten den edozein eraikuntza boluntarioaren gainetik dago, edo hura baino lehenagokoa da. Beste era batera esanda, ikuspegi horretatik suntsitu egiten da komunitatea edozein propietate positibo edo identitariotan oinarrituta eratze ahalegin oro. Era berean, baztertu egiten da pixkanaka gain behera joan den komunitate harmoniatsu bat lehenago bizi izanaren ideia. Hori pentsamendu mitiko bat da, eta ez du gogoan izandako jatorrizko komunitate baten existentziaren inolako erreferentzia historikorik. Aurreko komunitate idiliko baten ideia hori kultura askotan dago, eta, nolabait, eragina du gaur egun ere pertsonen gogoan eta sentimenduetan.

Pentsatu egin behar da komunitatea *egonaldi komuna* soilik dela; hots, izaki singularren agerpen hutsa beste oinarririk ez duela, non singularitasun bakoitzak bere horretan balio baitu, inolako ezaugarri berezirik eduki beharrik gabe. Edozein lanketaren ikuspegi sinplea da, biluzia: elkarrekin dauden izaki singularrak, ez elkartzen direnak, baizik eta espazio batean bizi diren izaki izateagatik erlazionatzen direnak. Komunitatea, berez, izaki mugatu eta singularren agerpen hori besterik ez

² Garcés, M. (2022): *Un mundo en común*. Bartzelona: Bellaterra Edicions.

³ Jean Luc Nancy, Roberto Espósito eta Giorgio Agambenen lanei egiten zaie erreferentzia, eta hortik elikatzen dira gogoeta hauek. Aipu espliziturik ez egoteak ez du esan nahi egileari horien jatorria egotzi zaionik; aitzitik, artikulua honen izaera dela-eta, estilo ez hain formala aukeratu da.

da, eta munduan beste batzuekin egoteak zehaztu egiten gaitu, giza-banakoaren eta komunitatearen arteko banaketari buruz hitz egin ahal izan baino lehen.

Komunitatean munduratuak garena esatean, ez da komunitate natural edo jatorrizko komunitate bati buruz hitz egiten. Agerpena besterik ez da, konpainiaren errealitatea eta harremanak. Hori da komuna, eta ez da pertsona bakoitzetik kanpoko zerbait, *artekoa* baizik, topaketaren espazioa, eta hori gabe ezin da bizitzarik izan. Ez dago indibidualaren eta komunaren arteko bereizketarik. Komuna gure existentziaren dimentsio ontologiko gisa agertzen da, edo singularitasunen kointziditze gisa, baina ez giza produkzio gisa, ezta gainditzen gaituen zerbait gisa ere.

Proposamen indartsua, sendoa eta erradikala da, baina abstraktua edo kontzeptualegia izan daiteke, eta, aldi berean, komunitatearen edozein lanketa teorikoren aurreko errealitatea zein den pentsatzera behartzen du. Komunaren lehen ideia hori ezin da proiektu gisa gauzatu. Politikoki kontsideratzen zaila den pentsamendu ez-normatibo bat da: subjektuen arteko erlazioa ez dator kezka moral batetik, ezta ongia sortzeko beharra sentitzetik ere; horrelakoak garena aitortzea besterik ez da. Baterako existentziaren errealitate sakona erakusteko balio du, errealitate horretatik abiatuta ikusi beharko baita nondik eta nola egin aurrera. Nora eramaten gaitu bizikidetza hutsaren gertaera ukaezin horrek?

Ikuspegi horretatik, zaharkitua eta alferrikakoa da kide izateari edo baztertzeari buruz hitz egitea; existentzia komun horretan izakiak ez du inolako betekizunik bete behar, ezta justifikatua edo zuzendua izan behar ere, baizik eta *den bezalakoa izan* behar du, besterik ez, Agamenen hitzetan. Hau da, subiranotasunik gabeko komunitate bat da jatorrizkoa, eta horrek esan nahi du ez dela etorriko den komunitate bat, baizik eta etortzen ari den komunitate bat, beti bilakaeran dagoena, eta inoiz iristen ez dena. Beharrezko prozesu jarraitu bat da, adierazpen subirano nagusia saihesten duena: barrualdearen eta kanpoaldearen arteko banaketa, propioaren eta arrotzaren artekoa. Horregatik, komunitatearen oinarritzko ideia horrek kontra egiten dio behin betiko edozein zehaztasun-moduri, baina zehaztasunen bat onartu behar da ezinbestean. Ezin da irekitasun eta aukera huts gisa jarraitu. Hartzen den zehaztasun bakoitzak beste aukera batzuk ez agortzea edo ezabatzea da erronka; aukera horiek, aldiz, iraun egin behar dute amaitutako azken bizi-formen zehaztasunari eta agortzeari kontra eginez. Datorren komunitatea mitorik gabeko komunitatea izango litzateke, obrarik gabeko komunitatea, aurretik zehaztutako paturik gabekoa.

Bistakoa da tentsioa dagoela komunitate-ikuspegi horren eta ekinztaren eta instituzioaren artean. Printzipioz, gizabanakoen askatasuna

mugatzeko edo ekintzaren balioak *hondatzeko* arriskua dute instituzioek, beren funtzionamendu-arauen agindupean jartzean. Baina erlazio hori modu positiboan uler daiteke, bien arteko loturak tentsio produktiboa sortzen baitu, ekintza instituzio-forma jakin batean agortu gabe. Posible al da instituzioaren nozio alternatibo bat, gertakari politikoa traizionatu besterik egiten ez duten lege-dispositiboetan eta erakundeetan askatasuna eta berdintasuna finkatzen dituzten forma eskuratzailerkin identifikatu behar ez dena? Instituzioa *marko gisa baino gehiago matrize gisa* pentsatu behar da. Hots, ez hainbeste bilakaera politikoa antolatzen duten muga gisa edo ekintzaren muga gisa, baizik eta aurrea hartzeko irudizko dimentsio gisa, berez ekiteko indarra duena; berak iragartzen duen emantzipaziorantz joko duten jarrerak sortzeko indarra duena, alegia.

Gogoeta horietatik diskurtso alternatibo posibleetarako ateratzen den ideia nagusia da munduan beste batzuekin egoteak zehaztu egiten gaituela, gizabanakoaren eta komunitatearen arteko banaketari buruz hitz egin ahal izan baino lehen. Inongo loturarik gabeko izaki bat, mundurik gabea, testuinguruarekin inolako erlaziorik ez duena, ezingo litzaiteke indibidualtasun gisa bizi, eta, gainera, orientazio oro galduko luke. Hortik dator, hain zuzen ere, bazterketaren tragedia. Identitate pertsonala ez da emandako zerbait, baizik eta ekintzan eta diskurtsoan *beste batzuekin batera existitzean* lortzen da. Gizatiar deitu daitekeen gizarte batek irekitzen du espazioa pertsonak elkartzeko, eta, hala, bakoitzaren eta taldearen ahalmenak deskubritzeko. Diskriminatzen eta baztertzen, eta askotan kanporatzen duen gizartea, ordea, giza eskubiderik funtsezkoena ukatzen ari da, sustraitzearena, hori baita gizakiari berez errealizatzeko aukera ematen diona.

Edozein proposamen alternatibok gizakia beti proiektu berritatz hartzetik abiatu behar du, eta hortik pentsatu behar da dimentsio komunitarioa gure garaiarekin koherentea den diskurtso baten oinarri gisa. Horrela bakarrik egin daiteke komunaren diskurtsoa giza zentzuz. Ez dago ezer errepikakorrik; bizitza etengabe berritzen da elkartzeko eta aniztasuna onartzeko espazioak sortzen direnean. Benetako parte-hartzea murrizten denean, berritzeko gaitasuna ezabatzen da.

Utopia lortu nahian: hiru mugimendu giza eskubideak (berr)antolatzeke

*Itziar Ruiz-Giménez Arrieta*¹

Nazioarteko Harremanetako Irakasle Titularra
Madrilgo Unibertsitate Autonomoan (UAM)

«Utopia horizontean dago.
Bi pauso gerturatzeko banaiz,
bera bi pauso urruntzen da, eta
horizonteak hamar pauso egiten ditu atzera.
Zertarako balio du orduan utopiak?
Horretarako, aurrera egiteko.»

(Eduardo Galeano)

Sarrera

Urtero bezala, abenduaren 10aren inguruan, Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Batzar Nagusiak 1948an Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zuela ospatzen da. Esfera globalean izandako aurre-rapenak gogora ekarri ohi dira: nazioarteko arau, instituzio eta mekanismoen mihiztadura oparoa sortzea, estatuek giza eskubideak *errespetatzeko*, *babesteko* eta *eraginkor egiteko* betebeharrak betetzen dituztela gainbegiratzeko; edo nazioarteko beste erregimen batzuetan

¹ Madrilgo Unibertsitate Autonomoko (UAM) Afrikar Ikasketetako Taldeko (GEA) koordinatzailea. 2022tik, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Genero Berdintasunerako Unitateko zuzendaria da.

sartzea: subiranotasuna, bakea, segurtasuna, garapenerako lankidetzatza, laguntza humanitarioa, klima-aldaketa, ekonomia edo merkataritza, eta estatu askoren kanpo-politika.

Era berean, efemeride hori une egokia izaten da «distira guztiak urre ez direla» gogoratzeko. Nahikoa da nazioarteko mekanismoen edo gobernu kanpoko erakundeen (GKE) txostenak begiratzea giza eskubideen egoera, gaur egun, tamalgarria dela egiaztatzeko². Nahikoa da defendatzaileen salaketa ugariak entzutea, genero-berdintasuna, diskriminaziorik eza, justizia soziala, eskubide zibil eta politikoak, eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak, edo ingurumenaren, ekosistemen eta lurraldeen defentsa, izatez, arriskuan daudela argi eta garbi egiaztatzeko.

Era askotakoak dira giza eskubideak kontrolik gabeko suaren antzera suntsitzen ari diren prozesu politiko, sozioekonomiko eta kulturalak nahiz genero- eta ingurumen-prozesuak, eta lotuta daude elkarrekin. Baina, halaber, era askotakoak dira eta elkarrekin lotuta daude bereziki *hegoalde globaletan*³ Eduardo Gleanoren aholkuari jarraitu eta su hori eragiten duten egitura global eta lokalak eraldatu nahi dituztenen ibilbideak. Eta, bidean, giza eskubideen *utopia* berrantolatzen ari dira.

Artikulu hau azken horri buruzkoa da, utopia hori lortu nahian gobernaezinek⁴ egindako ibilbideei buruzkoa. Zehazki, giza eskubideen agenda global eta lokalak despatriarkalizatzeko, deskolonizatzeko eta desantropozentrizatzeko zabaldu diren hiru mugimenduri buruzko hausnarketa da.

Azkenik, gogorarazi egin behar da agenda horiek baliabide politiko, normatibo, sozioekonomiko, kultural eta material desberdinak dituzten eragileen arteko elkarrietzeta gogorren (eta desadostasun handien) emaitza direla. Beraz, ez dira botere handia duten gutxi batzuen *jabetza*, nahiz eta batzuek mendebaldeko pentsamendu liberalaren asma-kizuna (eta inposaketa) direla defendatu⁵. Ez dira, halaber, boterearen ertzetatik giza eskubideak goratzen dituztenen produktu eksklusiboa. Bi prozesu horien emaitza kontingentea dira, gehienbat, bai eta beste di-

² Kontsultatu, besteak beste, Amnistia Internacionala, Human Rights Watch edo Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi Komisarioaren Bulegoaren txostenak.

³ Etiketa hau, guztiak bezala, polemikoa da, eta mugak ditu espazioari eta denborari dagokienez.

⁴ Izen hori 43. Teologia Batzarrean entzun zen. «Una mirada ecofeminista y decolonial a la guerra y la paz» izeneko hitzaldia eman nuen han.

⁵ Panikkar, R. (2007): *Human Rights as a Western Concept*. New Delhi: D.K. Print-world argitaletxea.

namika batzuen ere, denboran eta espazioan kokaturik, galdera hauei, adibidez, beste erantzun batzuk eman dizkietenak: Nork du eskubideak izateko eskubidea (titulartasuna)? Zer (edo zein) dira giza eskubideak? (Katalogoa)? Nork (estatuek, talde armatuek, enpresek, nazioarteko erakundeek, partikularrek...) dituzte erantzukizunak? Zer motatakoak dira betebeharrak horiek?⁶

Giza eskubideen despatriarkalizazioa

Lehen mugimendu hau, xx. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadatik feminista esaten zaiona, *longue duree*⁷ mugimendu bat da, berez: beren gizarteetan nagusi diren sexu eta generoko sistema patriarkalen eta sistema zis-heteronormatiboen aurka milioika emakume (eta milaka gizon) gobernaezinen matxinada. Narratiba kanonikoan (Europakoa eta mendebaldekoa) isildutako historia hori hemen jorratu ezin den arren, interesgarria da sei mugarri nabarmentzea, giza eskubideen agenda globala despatriarkalizatzea nola lortu duten azaltzeko.

Lehenengoa mundu osoko emakume gobernaezinen borroka luzea da (eta ez soilik Europako eta/edo mendebaldeko gizarteetan), «eskubideak izateko eskubidearen» alde; hau da, gizonen parekotasun aitortuak izateko eta giza eskubideak baldintza berberetan edukitzeko (eta haietaz gozatzeko). Beste mugimendu batzuekin batera (ikusita infra), haien ibilbide heterogeneoek giza eskubideen mendebaldeko doktrina liberala eraldatu dute, era askotako erresistentziekin⁸. Jatorrian eta duela hamarkada gutxira arte, Europako eta mendebaldeko gizonezkoen (gizonezko batzuen) *ondare* eskusibotzat ulertutako doktrina, ez dezagun ahaztu. Gizonezko hauena, hain zuzen ere: zu-riak, burgesak, ondo heziak, jabeak, zis-heteronormatiboak, helduak, gaituak eta kristauak.

Eta barne-desadostasun handiekin izanik ere⁹, mugimendu feministek, Angela Davisen hitzetan, «emakumeok ere pertsonak garela adierazten duen ideia erradikala» unibertsalizatzea lortu zuten. Ideia hori,

⁶ Ruiz-Giménez Arrieta, I. (2018): «Luces y Sombras del régimen internacional de los DDHH. Setenta años de luchas por expandir sus significados», *Revista Papeles*, 142.

⁷ Braudel, F. (1995): *La historia y las ciencias sociales*. Madril: Alianza.

⁸ Robinson, F. (2003): «Human Rights and the global politics of resistance: feminist perspectives», *Review of International Studies*, 29, 161.-180. or.

⁹ Feminismo kritikoei Europako eta mendebaldeko feminismoen joera arrazistak salatzen dituzte. Ruiz-Gimenez: *Luces...*, 46. or.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean¹⁰ dagoena, hogeita hamar urte geroago finkatu zen 1979ko *Emakumeen kontrako diskriminazio-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioarekin* (CEDAW)¹¹, eta aipatutako mugimendu feminista hasi zen.

Mugimendu horren bigarren mugarria giza eskubideen katalogoa zabaltzea izan da, mendealdeko narratiba liberalak gogora ekarri ohi dituen hiru belaunaldi ezagunetatik harago¹². Izan ere, bereziki *hegoalde globaletako* milioika emakume gobernaezinen ibilbideei esker, emakumeen eskubideak eta, batez ere, indarkeria matxistatik eta genero-diskriminaziorik gabe bizitzeko eskubidea *ius cogens* da gaur egun; hots, aginduzko eskubidea da. CEDAW Konbentzioan (1979) edo Vienako *Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentziaren Azken Adierazpenean* (1993) sartuta egoteaz gain, 1995ean, *Beijingeko Ekintza Plataforma*¹³ jarri zen abian. Marko hori, azken 20 urteetan, oso baliagarria izan da erakunde feministentzat; afrikarrentzat eta latinoamerikarrentzat, bereziki¹⁴.

Utopia lortu nahian erresistentzia eta indarkeria handiei aurre egin behar izan badiete ere, *hegoalde globaletako* emakume gobernaezinek protagonismo nabarmena izan dute esfera globalean¹⁵. Halaber, indarkeria matxisten aurkako borrokan eskualde-sistema aurreratuene-tako biren eraikuntza sostengatu eta bultzatu dute: *Emakumeen aurkako Indarkeria Prebenitu, Zigortu eta Desagerrarazteko Konbentzio Interamerikarra* (Belém do Pará Konbentzioa, 1994)¹⁶ eta *Afrikako Giza Eskubideen eta Herrien Agiriaren Protokoloa, Afrikako emakumeen es-*

¹⁰ 2. artikulua: «Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, politikako edo bestelako iritzi, sorterrri edo gizarteko jatorri, ekonomia-maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik».

¹¹ Ingeleseko siglengatik ezaguna, CEDAW.

¹² Hiru belaunaldi daudela jotzen da: eskubide zibil eta politikoak, eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak, eta eskubide kolektiboak. Hala ere, azkenaldian laugarren bat aipatzen da: eskubideak informazioaren gizartean. Izugarrizko garrantzia izan arren, emakumeen eskubideak eta diskriminazioaren kontrako araudiak ez dira belaunalditzat hartzen.

¹³ Emakumeari buruzko IV. Mundu Konferentziaren Azken Adierazpena. Ikusi NBEk Emakumeei buruz duen webgunea.

¹⁴ Ikusi, adibidez, Latinoamerika eta Karibeko nahiz Afrikako txostenak (Beijing+25).

¹⁵ Bai CEDAW egiteko, bai Vienan eta Beijingen, bai eta beste genero-agenda batzuetan ere.

¹⁶ 1996an sartu zen indarrean, eta Ameriketako Estatuak Erakundeko 35 estatuetatik 32k berretsi dute, Kubak, Kanadak eta Estatu Batuek izan ezik. Latinoamerikako feminismoari esker, Jarraipen Mekanismoaren (MESECVI) eta Giza Eskubideen Batzorde eta Gorte Interamerikarren jurisprudentzia-lana funtsezkoa izan da indarkeria matxisten aurkako borroka globalean.

kubideei dagokienez (Maputoko Protokoloa, 2003)¹⁷. Bestalde, handik denbora batera, 2014an, Europar indarrean sartu zen *Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzkoa* (Istanbulko Hitzarmena, 2011)¹⁸ eta, ondoren, Europako Kontseiluaren beste Hitzarmen batzuk, «*haurrak esplotaziotik eta sexu-abusutik babesteko*» (Lanzaroteko Hitzarmena, 2010) eta «*gizakien salerosketaren aurka borrokatzeko*» (Varsoviako Hitzarmena, 2007).

Azpirarratu egin behar da mugimendu feminista horrek sexu- eta ugalketa-eskubideak¹⁹ giza eskubideen egungo katalogoan sartzea lortu zuela. *Emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko adierazpenari* (1993), *Kairoko Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programari* (1994) eta giza eskubideen nazioarteko batzorde guztien oharrei dagokienez, sendotu egin da osasunerako giza eskubideak sexu- eta ugalketa-osasuna eta abortu seguru eta legalerako eskubidea barne hartzen dituela dioen ideia. Azken kasu horretan, bereziki nabarmendu behar da aipatutako Maputoko Protokoloa; izan ere, nazioarteko lehen tratatua da, emakumeen genitalen mutilazioa galarazteaz gain, emakumeek abortu medikoa izateko eskubidea aitortu duena, bortxaketa edo intzestua gertatuz gero, edo emakumearen osasun mentala eta fisikoa edo haren bizitza arriskuan baldin badago.

Hala eta guztiz ere, gaur egun, ugalketa-justiziak kimera izaten jarraitzen du gizateriaren erdiarentzat, eta, bereziki, emakume gazteentzat, beren bizilekuko erregimen politikoa eta legedi nazionaletan duten onarpena kontuan hartu gabe. Antzeko zerbait gertatzen da herrialde askotan lesbiana, gay, bisexual, transgenero, intersexual, queer eta abarren kolektiboaren (LGBTIQ+)²⁰ sexu- eta ugalketa-eskubideen *utopiarekin*. Dena den, utopia horri esker, kolektibo horrek zalantzan jarri ahal izan ditu gizarteetan eta giza eskubideen agenda globalean nagusi diren logika zis-heteronormatiboak, eta sexu-askatasunerako eskubidea eta sexu-orientazioagatik edota genero-adierazpen edo genero-identitateagatik indarkeriarik ez jasateko duten eskubidea aitortzeko bidea egin dute²¹.

¹⁷ Protokolo hori 2005ean sartu zen indarrean; Afrikako estatu guztiek sinatu dute, eta 44k berretsi.

¹⁸ Hitzarmen hori Europako 46 herrialdek sinatu dute, eta 34k berretsi.

¹⁹ Hemen sartzen dira sexu- eta ugalketa-osasuneko kalitatezko zerbitzu integralak, antisorgailuak, abortu segurua eta amaren osasunaren arreta, inolako diskriminaziorik gabe.

²⁰ NBERen webgune honetan LGBTI+ kolektiboaren eskubideei buruzko NBERen ebazpen nagusiak eta mekanismoak datoz.

²¹ Amnistia Internazionalaren arabera, homosexualitatea legez kanpoko da 64 estatutan, eta heriotza-zigorrarekin zigortuta dago 12 herrialdetan.

Gogora ekarri behar da mugimendu feministen ibilbide globalen laugarren mugarri bat: *utopia* hori gauzatzera behartuta daudenen he-dapena. Edo, beste hitz batzuetan esanda, betebeharrak eta/edo erantzukizunen titularren zabalketa. Lehen titulartasun hori estatuei bakarrik esleitzen zitzaizkien arren, gaur egun onartu egiten da estatukoak ez diren agenteak (partikularrak, enpresak, talde armatuak, nazioarteko erakundeak) direla giza eskubideen abusuaren erantzuleak.

Bosgarren mugarria 2000. urtetik aurrera Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna Agenda garatzea izan da, NBERen Segurtasun Kontseiluak 1325 ebazpena eta beste bederatzia ebazpen onartu ondoren. Ebazpen horiek, besteak beste, sexu-indarkeria gatazka-egoeretan nazioarteko krimen bihurtzen eta indarkeria hori ezabatzea estatuen nahitazeko betebeharrak bihurtzen lagundu dute²².

Seigarren mugarria emakume gobernaezin askok zainketak eta bizitzaren jasangarritasuna giza eskubideen katalogoaren erdigunean jartzeko egindako apustu sendoa da. Horri dagokionez, pausoak eman dira, oinarritzakoak oraindik, zaintzeko eta zaindua izateko eskubidea aitortzeko (*right to care*). Horrez gain, defendatu egin da lan duina izateko eskubidea zabaldu egin behar zaiela zaintzan aritzen direnei (gehienak emakumeak), eta, bereziki, *iparralde globalean* horretan aritzen diren emakume migratzaileei eta errefuxiatuei.

Zainketak eta bizitzaren jasangarritasuna giza eskubideen katalogoaren erdigunean jartzeko, emakume gobernaezin askok eta gizon gobernaezin batzuek, kasu askotan, bidezidor bihurrietatik igaro behar izan dute, eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak giza eskubideen katalogotik *ateratzea* eragozteko. Eta hori guztia lan duin, osasun, hezkuntza, elikadura, etxebizitza, energia, kultura eta abarretarako eskubidearen historia hemen jorratu ezin diren atzerapausoz eta erresistentziaz beteta egon delako²³. Gogoratu beharra dago eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak, eskubide zibil eta politikoekin batera, sartuta daudela Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean eta Vienako Konferentziaren Azken Adierazpenean (1993), eta zatiezinak, interdependenteak eta unibertsalak direla. Hala ere, sistematikoki urratzeaz gain, giza eskubide gisa zalantzan jartzen dituzte elite global eta lokal kapitalistek, eta, mugimendu feministek salatzen duten bezala, patriarkalek. Eraso horrek gizarte guztietan bete-betean eragin badu ere, eragin desberdina izan du gizonengan eta emaku-

²² Ruiz-Giménez Arrieta, I. (2016): «Mujeres, Paz y Seguridad: controversias feministas en torno a la paz liberal». In García Segura, Caterina, *La tensión cosmopolita: avances y límites en la institucionalización del cosmopolitismo*, Madrid: Tecnos, 322.-369. or.

²³ Ruiz-Giménez Arrieta, I. (2018): «Luces y... », 48.-50. or.

meengan. Genero-desberdintasunak areagotu, eta hainbat dinamika sortu dira; adibidez, pobreziaren feminizazioa, zaintza-sistemen krisia, zaintza-kate globalak, etab. Dinamika horiek agenda feminista²⁴ askoren erdigunean daude gaur egun.

Laburbilduz, giza eskubideak despatriarkalizatzeko erdietsitako lorpenen garrantzia batere ukatu gabe, erronkak izugarriak dira oraindik ere. Batez ere, generoaren aurkako kontrarreforma global baten era askotako adierazpen boteretsuak alde guztietan nagusi diren mundu honetan, kontuan izanik, gainera, kontrarreforma horrek aurrerapen feministen aurka indarkeria handiz egiten duela. Borroka hori ez da, zoritxarrez, muturreko ideologia erlijiosoen eta eskuin-muturraren *ondarea*, egungo mendebaldeko narratiba kanoniko liberalak kontrakoa adierazi arren. Leku guztietan beste forma sotil batzuetatik libratzen da, botere-egitura globaletan eta lokaletan irauten baitu, beste logika patriarkal eta zis-heteronormatibo batzuekin (ikusi *infra*) erlazionatuta.

Bigarren mugimendua: Giza eskubideen deskolonizazioa

Feminismoekin gertatu den bezala, mendeetan zehar zurien eta Europa eta mendebaldearen nagusitasunari eutsi dioten harremanak, egiturak eta hizkuntzak desagiteko elkartasun-sareak ehuntzen ibili direnen ibilbideen genealogia isilarazi egin da, bortizki, nazioarteko erlazioen historiari buruzko narratiba kanonikoetan. Isilarazte horrek, era berean, lagundu egin du azterketa postkolonial eta dekolonialek bote-rearen, jakintzaren eta izatearen kolonialtasuna deitzen duten hori esfera globaletan eta lokaletan (berriro) eratzen²⁵. Gobernu-forma horiek, denboran eta espazioan kokaturik, giza eskubideen mendebaldeko doktrina liberalaren historia bera markatu dute. Hainbestearino, non, aipatu bezala, orain dela gutxira arte, doktrina hori gizon zuri, kristau, heldu, zis-heteronormatibo, hezi, jabe eta europar jatorrikoentzat baka-rrik aplikagarria zela ulertzen baitzen. Aitzitik, Europako estatuek ez zuten erabiltzen inperio kolonialetan, ezta eliteek ere (europar jatorrikoak)

²⁴ Agenda horietan, zenbait gai eztabaidagarriak dira oraindik ere; esate baterako, prostituzioa, alokairu-sabelak eta transexualen, transgeneroen edo intersexualen eskubideak.

²⁵ Jerrems, A. eta Fonseca Santos, M. (2024): «Estudios poscoloniales y decoloniales». In Iranzo, A.; Ruiz-Giménez Arrieta, I. eta Iñiguez de Heredia, M.: *Manual de Estudios Críticos: Cartografías disidentes para comprender las relaciones internacionales*, Valencia: Tirant lo Blanch.

AEBetan, Kanadan, Australian, Zeelanda Berrian edo Latinoamerikako herrialdeetan²⁶.

Horregatik, gobernaezinen ibilbideak nabarmendu behar dira hemen. Izan ere, mendebaldekoak ez diren gizarteetatik (Afrikakoak, Asiakoak, islamikoak, herri indigenak, etab.) «eskubideak izateko eskubidearen» titulartasuna zabaltzea lortu dute, erresistentzia eta indarkeria handiei aurre eginda, baita giza eskubideen katalogoa zabaltzea ere, elkarrekin lotutako hiru mugimenduren bidez: borroka antikoloniala, arrazakeriaren aurkako borroka eta bizi, ekosistema eta planetaren jasangarritasunaren aldeko borroka (ikusi infra, 4. atala).

Hain zuzen ere, esan liteke, nire ustez, azken 75 urteetako munduko historian gatazka bipolarra edo 2001eko irailaren 11ko atentatuak baino askoz ere erabakigarriagoa izan dela *Mendebaldearen aurkako matxinada* deitutakoaren azken fasea (orain artekoa). Iraupen luzeko prozesu historiko bat da, konplexua, alderdi askokoa, eta adarrak eta kontingenteak ditu esfera guztietan (globala, nazionala, lokala). Gainera, garrantzi historiko eztabaida ezina duen narratiba hegemonikoak (Europakoa eta mendebaldekoa) isilarazitako prozesu bat da; giza eskubideen hizkuntzak errotik eraldatu zituen, haiei begirada zuria (*white gaze*) edo inperiala (*imperial gaze*)²⁷ kentzeko.

Jarraian, nazioarteko harremanetan, oro har, eta giza eskubideen nazioarteko erregimenean, bereziki, oraindik amaitu gabe dagoen mugimendu dekolonial horrek eragindako aldaketa batzuk aipatzen dira, labur. Alde batetik, mendeetan indarrean egon ziren inperio kolonialak desagertzea, eta, 1945ean, Bigarren Mundu Gerraren ondoren nazioarteko ordena eratzea. Orduz geroztik, eta mendebaldekoak ez diren gizarteen eraginari esker, nazioarteko gizartearen globalizazioa lortu zen (ordura arte, Europakoa eta mendebaldekoa zen nagusi), eta nazioarteko zuzenbide eurozentrikoaren berrikuspen sakon bat, oraindik amaitu gabe egon arren; gaur egun ere, hizkuntza eta praktika arrazistak dituen zuzenbidearena, hain zuzen ere²⁸. Horrela, adibidez, konkista kolonialaren eskubidea debekatzea lortu zen, baita subirano-

²⁶ Ruiz-Giménez: «Luces... », 46. or. edo Ruiz-Giménez Arrieta, I. (2005): *La historia de la intervención humanitaria: el imperialismo altruista*. Madril: Los Libros de la Catarata.

²⁷ Termino horren bidez etnozentrismo zuriaren ikuspuntua izendatzen da, zuritasuna eta mendebaldeko zibilizazioa aurrerapenaren erreferente bakarra direla onartzen duena. Neajai Pailey, R. (2020): «De-centring the white Gaze of Development », *Development and Change*, 51. liburukia, 3. zk.

²⁸ Barreto, J.M. (2018): «Eurocentric and Third-World Histories of Human Rights: Critique, Recognition and Dialogue», Schippers, B. (argit.), *Critical Perspectives on Human Rights*, London: Rowman & Littlefield.

tasunaren nazioarteko erregimena eta eskubide hori kodetu zuen *zibilizazio-estandarra* aldatzea ere²⁹.

Giza eskubideen nazioarteko agendan, mugimendu dekolonial hori erabakigarria izan da, bestalde, lau eremutan, gutxienez. Lehenik eta behin, eta Europako eta mendebaldeko gobernuen eta bertako gizarteetako sektore zabalen erresistentzia handiak gorabehera, «eskubideak izateko eskubidearen» titulartasuna zuriak ez ziren edo kristauak ez ziren pertsona guztiengana abaldu zen nazioarteko esparru juridikoan, inongo salbuespenik gabe³⁰. Horrez gain, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioen aginduzko izaera modu esponenzialean indartu zen. Eta horrenbestez, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren ondoren, giza eskubideei buruzko nazioarteko lehen tratatu handia *Arrazagatiko Diskriminazioa Ezabatze*ko Konbentzioa izan zen (1960). Diskriminazioaren aurkako nazioarteko araudi osoa ez ezik, aipatutako CEDAW Konbentzioa, *Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa* (1989) eta *Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa* (2006) ere inspiratu zituen. Halaber, arrazakeriaren aurkako mundu osoko mugimenduek goratu egin dute, eta Konbentzioak berak haiek elikatu ditu, bereziki, Ameriketako Estatu Batuetan, Kanadan, Australian, Zeelanda Berrian, eta, Afrikari dagokionez, Hegoafrikan, Rhodesian edo Namibian. Eta hauek onartu ziren, besteak beste: *Apartheid*eko krimenaren errepresioari eta zigorrari buruzko Nazioarteko Konbentzioa (1973) eta *Kiroletako apartheidaren aurkako Nazioarteko Konbentzioa* (1985). Mendebaldeko gainerako herrialdeetan gobernaezinen bidea ere argitu du. Horietan guztietan, arrazakeriaren aurkako arau-aurrerapenak egon arren, sektore sozial zabalen aurkako arrazakeria estrukturalak bere horretan jarraitzen du. Hauen aurkakoa, hain zuzen ere: gutxiengo erlijioso edo etnikoak, ijito-herria eta, azken hamarkadetan, bereziki, lekualdatzen ari diren pertsonak (errefuxiatuak, egoera erregularrean edo irregularrean dauden migratzaileak, etab.)³¹. Egoera horren ondorioz, arrazakeriaren aurkako mugimen-

²⁹ Ruiz-Giménez Arrieta, I. (2005), *La Historia de la Intervención Humanitaria: el imperialismo altruista*. Madril: Los Libros de la Catarata.

³⁰ Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 2.2 artikulua, adibidez, hau dio: «Ez zaio begiratuko pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari ere, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituen».

³¹ Ruiz-Giménez Arrieta, I. (2017): «El Naufragio de Europa: Reflexiones feministas en torno a la crisis de las políticas migratorias y de asilo», *Revista Europea de Derechos Fundamentales*, 29.

duak asko suspertu dira mundu osoan; esate baterako, *Black Lives Matter*³² mugimendua.

Bigarrenik, azpimarratu egin behar da arrazakeriaren aurkako matxinada dekolonialak nazioarteko arau-mugarri esanguratsu batzuk lortu dituela azken bi hamarkadetan. Lehenengoa 2001eko irailaren 8an *Arrazakeria, arraza-bereizkeria, xenofobia eta horiekin lotura duten intolerantzia-moduen aurkako munduko Konferentziaren azken adierazpena* onartzea izan zen. Adierazpen horretan, diskriminaziorik ezaren eta berdintasunaren printzipioak berrestez gain, eta «arraza-bereizkeria, genozidioa, apartheideko krimena eta esklabotza...» debekatzeak salbuespenik ez duela onartzeaz gain, kezkarritzat jotzen da «arraza eta kultura jakin batzuen nagusitasunaren teoriak, aro koloniallean sustatu eta praktikatu zirenak, era batera edo beste batera proposatzen» jarraitzea. Halaber, gogora ekartzen da estatuek neurri azkar, erabakigarri eta egokiak hartu behar dituztela arrazakeria-mota guztiei aurre egiteko, haiek salatzeke eta biktima guztiak babesteko, *genero-ikuspegia* aplikatuz³³. Horretarako, Durbango Ekintza Plana³⁴ onartu zen. Plan horretan, mendebaldeko herrialdeen aurkakotasunagatik, ez ziren sartu arrazakeriaren aurkako agendako gai batzuk: Ozeano Atlantikoan zeharreko esklaboen merkataritzagatik errepazioak edo apartheid Israelen. Hala ere, afrikarren ondorengoen agendak sartzea lortu zen³⁵.

Hirugarren mugarrria 2003ko uztailaren 1ean *Langile migratzaile guztien eta haien familien eskubideak babesteari buruzko Nazioarteko Konbentzioa* indarrean sartzea izan zen. Konbentzio horretan berriro azpimarratu zen migratzaileek, «gizakiak diren aldetik»³⁶, «eskubideak izateko eskubidea» dutela. NBEren Batzar Nagusiak 1990eko abenduaren 18an egindako nazioarteko tratatu bat da, eta, hogeita bost urte geroago, 48 estatuk baino ez dute berretsi (eta beste 11k sinatu). Ez du Europako edo mendebaldeko herrialde bakar batek ere egin, ezta gainerako potentzia handietako batek ere. Hala ere, gaitzespen horrek ez ditu salbuesten migratzaileen eskubideekiko nazioarteko betebeharretatik. Eta betebeharrak horiek *Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Itunean* eta *Errefuxiatuei buruzko Munduko Itunean*

³² Ameriketako Estatu Batuetan hasi zen eta gaur egun nazioartekoa den mugimenduari buruzko informazioa izateko, ikusi haren web-orria.

³³ Adierazpenaren sarrera.

³⁴ Ikusi Nazio Batuen Erakundearen webgunea.

³⁵ NBEren esparruan, Afrikarren ondorengoentzako Nazioarteko Hamarkada egin da (2015-2024), eta Foro Iraunkor bat (2021) eta Aditu Talde bat sortu dira.

³⁶ Konbentzioaren sarrera; NBEren Batzar Nagusiaren 45/158 Ebazpena.

(2016koak biak) berriro azpimarratu arren, gaur egun, sistematikoki urratzen dira oraindik ere *iparralde global* osoan eta, zehazki, Europar Batasunean, Ameriketako Estatu Batuetan eta mendebaldeko gaineko herrialdeetan.

Arrazakeriaren aurkako mugimendu dekoloniala, laugarrenik, Nazioarteko Zuzenbide Penalaren eremuan izan da erabakigarria. Eta hemen, alde batetik, genozidio- eta apartheid-krimenak Nazioarteko Gorte Penalaren Estatutuan (Erromako Estatutua, 1998) sartzea nabarmendu behar da. Eta, bestetik, Nazioarteko Justizia Gorteak duela gutxi hartutako zenbait erabaki, Israelek Palestinan giza eskubideak urratzeari dagokionez. 2024ko urtarrilean, esate baterako, Hegoafrikak³⁷ aurkeztutako demandaren ondoren, Gazan genozidioa «prebenitzeko eta zigortzeko» agindu zion Gorteak Israeli. Geroago, maiatzean, Rafahko (Gaza) erasoaldi militarari amaiera emateko agindu zion, baina Israelek, orain arte, ez ditu bete nazioarteko justizia-auzitegi garrantzitsuenaren erabakiak.

Bi hilabete geroago, uztailaren 19an, beste prozedura batean³⁸, Nazioarteko Justizia Gorteak kontsulta-iritzia eman zuen, eta han adierazi zuen Israel dela palestinarren aurkako giza eskubideen urraketa ugarien erantzulea, *apartheideko* krimena barne, eta Gazako, Zisjordanian eta Jerusalemgo lurralde palestinarrek okupatzea ilegala dela, eta, horrenbestez, «ahalik eta azkarren eman behar diola amaiera horri». Era berean, adierazi egin zuen herri palestinarren autodeterminazio-eskubidea urratzen ari dela Israel, eta NBERi eta estatu guztiei eskatu zien nazioarteko zuzenbidearekiko betebeharrak bete ditzatela eta beharrezko neurri guztiak hartu ditzatela, duela hamarkada batzuetatik luzatzen ari den eta mendebaldekoak ez diren estatu askok eta gobernaezinek argi eta garbi kolonialtzat jotzen duten egoera horri amaiera emateko. Are gehiago, mendebaldeko herrialdeek Israeli ematen dioten ia baldintzarik gabeko babeseta eta herrialde horien hautakortasuna eta estandar bikoitzak, askorentzat kutsu arrazista eta kolonial argia dutenak, ari dira, nire ustez, Mendebaldearen aurkako maxinada eta mugimendu dekoloniala indartzen mendebaldekoa ez den mundu osoan.

³⁷ Hegoafrika eta Israel Genozidio-delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioaren (1948) sinatzaileak dira.

³⁸ NBERen Batzar Nagusiaren 2022ko abenduko ebazpen batetik eratorritako beste prozedura bat da, eta, horren bidez, Nazioarteko Justizia Gorteari kontsulta-iritzia eskatu zitzaion «Israelek Palestinako lurralde okupatuan (Jerusalem eta Ekialdea barne) aplikatzen dituen politikek eta praktikek eragindako ondorio juridikoei» buruz.

Hirugarren mugimendua: Giza eskubideen desantropozentrizazioa

Bizia, ekosistemak eta lurraldeak defendatu dituzten gobernaezinen historia milaka urtekoa izan arren, giza eskubideekin lotutako hizkuntzen bidezidorretan zehar egindako ibilbideak berriagoak dira, eta, nazioarteko erregimenari dagokionez, hirurogeita hamarreko hamarkadan hasi ziren, mugimendu hauen ibilbide uztartuei esker: herri indigenak, arrazakeriaren aurkako mugimendua eta mugimendu ekologikoak; eta, feminismoen kasuan, ekofeminismoa. Horiek guztiek, agenda desberdinak izan arren, azken bi hamarkada hauetan bat egin dute argi eta garbi defendatzeko giza eskubideen katalogoan sartzea, lehenik, giza-kiok ingurune osasungarri bat izateko eskubidea, eta, azkenaldian, ingurumen seguru, garbi eta osasungarri bat izateko eskubidea.

Ibilbide horien genealogia azaltzerik ez dagoen arren, hemen azpimarratu behar da eskubide hori 100 konstituziotan baino gehiagotan finkatuta dagoela gaur egun³⁹. Halaber, NBEren Batzar Nagusiak onartu egin zuen 2022ko uztailaren 28an⁴⁰. Ibilbide heterogeneo horien elementu berrienetako bat izan da elkarrekin lotutako bi eztabaida sartzea giza eskubideen hizkuntzen esparruan, nazioarteko gainerako harremanetan bezala; eztabaida hauek, hain zuzen ere: krisi ekologiko globalaren inpaktuak (horren kausak eta erantzuleak) eta mendebaldeko pentsamendu moderno liberalean nagusi den antropozentrismoa zalantzan jartzea.

Bi eztabaidek elkarrikketa globaletara eraman dute giza eskubideen eta polikrisi ekologiko globalaren arteko interrelazioa, elkarren mendeko hainbat prozesuk eragin dutena; esate baterako: klimaldaketak, baso-soiltzeak, lurraren, airearen eta uraren kutsadurak, espezieen desagertze masiboak, baliabide naturalen eta ekosistemen espoliazioaren hazkunde esponenzialak industrializazio handiko, hazkunde demografikoko eta desberdintasun sozioekonomiko eta genero-desberdintasunen sakontze eta hedapeneko testuinguru batean. Gaur egun, ukaezina da prozesu horiek eredu sozioekonomiko globalaren (kapitalista eta neoliberal) inpaktu planetarioen ondorio zuzena direla. Eta eredu hori, ekofeminismoaren hitzetan, bizi, zainketa eta planetaren jasangarritasunaren egituraren kontra gerran ari da benetan⁴¹. Eta gatazka horretan (kapitalaren eta biziaren artekoan) zeregin erabakigarria dute sekuritizazio- eta militarizazio-logi-

³⁹ NBE (2019): *Ingurumen-zuzenbidearen egoera: munduko lehen txostena*.

⁴⁰ A/RES/76/300 ebazpena.

⁴¹ Mires, M. eta Shiva. V. *Ecofeminism*. London: Zed Books.

kek⁴² (patriarkalek, arrazistek eta antrozentrikoek). Izan ere, elite global eta lokal kapitalistek eta neoliberalak, logika horien bidez, jabetza kentzeagatiko pilatze- eta metatze-dinamikei eutsi eta haiek elikatu nahi dituzte⁴³.

Prozesu horien guztien arteko elkarren mendekotasun handia sarrean aipatutako su suntsitzailea elikatzen ari da, eta, aldi berean, agerian uzten ditu Europako eta mendebaldeko pentsamendu modernoaren jostura antropozentrikoak eta harrapariak. Halaber, artikulu honetan jorratutako mugimenduak bultzatzen dituzten milioika emakume eta gizon gobernaezinen ibilbideek bat egitea ahalbidetu du, eta erraztu egin du honako mugimendu hauetatik datozen ideiak giza eskubideei buruzko elkarrikteta global eta lokal desorekatuan sartzeari: feminismoak (zaintzaren etika); mugimendu antikapitalistak (eskubide sozial, ekonomiko eta kulturalak indartzea, enpresei eta giza eskubideei buruzko arau lotesleak, justizia soziala, etab.); antimilitarismoa eta bakezaletasuna, feminismo bakezalea barne (bakerako eskubidea, desmilitarizazioaren eta desarmearen aldeko apustua, Hagako Zuzenbidea⁴⁴ deitutakoaren garapena, etab.); ekologismoa eta, bereziki, ekofeminismoa eta feminismo posthumanoa⁴⁵ (animalien eskubideak, etorkizuneko belaunaldien eskubideak, ekosistemen eta lurraldeen eskubideak, desazkundera⁴⁶, etab.). Horri dagokionez, nabarmendu nahi ditut, adibidez, *ekoizidio* kontzeptuaren garapen teoriko-normatiboa eta Ozeano Bareko uharte-estatuek, besteak beste, ekoizidioa Erromako Estatutuan nazioarteko krimen gisa sartzeko sustatutako nazioarteko kanpaina⁴⁷.

⁴² Nazioarteko harremanen eta giza eskubideen sekuritizazioari buruzko literatura zabala dago. Besteak beste, Butler, M. (2020): *Securitization Revisited: Contemporary Applications and Insights*. London: Routledge. Edo Bondía García, David, Daza Sierra, Felipe eta Sánchez Mera, Ana (2015): *Defender a quien defiende: Leyes mordazas y criminalización de la protesta en el estado español*. Bartzelona: Icaria.

⁴³ Harvey, D. (2004): *El nuevo imperialismo*. Madril: Ediciones Akal.

⁴⁴ Suntsipen handiko armen (arma kimikoak, biologikoak, uranio pobretuzkoak, arma nuklearrak, etab.) erabilera mugatzen edo debekatzen duten nazioarteko tratatuen multzoa biltzen du. Acheson, R. (2023-24): «Revisión de la nueva Agenda de Paz y recomendaciones sobre el desarme y la desmilitarización», *Anuario CEIPAZ*.

⁴⁵ Braidotti, R. (2022): *Feminismo posthumano*. Bartzelona: Gedisa argitaletxea.

⁴⁶ Stucki, S. (2023): *One Rights: Human and Animal Rights in the Anthropocene*, Cham: Springer Nature; Montalván, D. (2021): «Antropocentrismo y ecocentrismo en la jurisprudencia de la Corte Interamericana de DDHH», *Araucaria, Revista Iberoamericana de Filosofía, Política, Humanidades y Relaciones Internacionales*, 43.

⁴⁷ Vanuatuk Erromako Estatutua aldatzeko zuzenketa formal bat aurkeztu du, Fiji eta Samoaren babesarekin. Kanpainari buruzko informazioa izateko, ikusi Stop Ecocidio izeneko webgunea. Europar Batasunean ingurumen-delituei buruzko 2024/1203 Zuzen-taraua onartu da.

Ondorioak

Orrialde hauetan, ahots gobernaezinen polifonia (erre)tratatzen saiatu gara. Ahots horiek, giza eskubideen nazioarteko erregimenaren historian zehar, eta azken bi hamarkadetan, batez ere, era askotako aliantzen sare trinkoa osatu dute, eta utopia lortu nahian egindako bide horretan, barne-eztabaidak ere izan dituzte, eztabaida mingarriak eta traumatikoak, batzuetan. Eta ibilbide horietan, ahots horiek giza eskubideen hizkuntzak metamorfizatu dituzte, zenbait mugimenduren bidez: feminista, dekoloniala, ekologikoa, baina baita antikapitalista eta bakezalea ere. Mugimendu horiek, mendebaldeko pentsamendu modernoan (neoliberal kapitalista, patriarkala, arrazista eta ekologiaren kontrakoa) nagusi diren logikak suntsitzea eta kapitalaren eta biziaren arteko gatazka eraldatzea lortu ez duten arren, aurrera egiten ari direnen *utopiak* inspiratzen jarraitzen dute, egunero, biziaren, zainketen, berdintasunaren, aniztasunaren, justiziaren eta bakeak egiteko beste modu batzuen egiturari eutsiz.

Nire bidaia giza eskubideen historian eta historiografian zehar

Jean-Paul Lehnars

Luxenburgoko Unibertsitateko historia-irakasle emeritua

Sarrera

1990eko hamarkadan hasi nintzen giza eskubideen historian interesatzen, Veneziako Giza Eskubideen eta Demokratizazioaren Europako Masterrean (EMA) parte hartu nuenean. Antolatzaileek giza eskubideen historiari buruzko sarrera egitera gonbidatu ninduten, programaren baitan. Lehenbizi, lege-ikasliburuak kontsultatu nituen. Haietan, ia beti, lehenbiziko kapitulua giza eskubideen historiari buruzkoa izan ohi zen. Kapitulu hori ia berdina zen denetan: Magna Cartarekin hasten zen eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin amaitzen zen. Halaber, giza eskubideen historiari buruzko liburu batzuetan begiratu nuen¹.

¹ Besteak beste: Oestreich, G. (1978): *Geschichte der Menschenrechte und Grundfreiheiten im Umriss*. Berlin: Duncker und Humblot; Haratsch, A. (2020): *Die Geschichte der Menschenrechte*. Potsdam: Universitätsverlag Potsdam (5. edizioa); Ishay, M. (2004): *The History of Human Rights: From Ancient Times to the Globalization Era*. Berkeley: University of California Press (2. edizioa). Schmale W. (argit.) (1993): *Human Rights and Cultural Diversity. Europe, Arabic-Islamic World, Africa, China*. Goldbach: Keip Publishing; Lamb, R. (2019): «Historicising the Idea of Human Rights», *Political Studies*. 67. libk., 1. zk., 100.-115. or. Bibliografia zabalagoa hemen: Lehnars J-P. (2014): «Pleading for a New History of Human Rights». In Gibney M., Mihr A. (argit.): *The SAGE Handbook of Human Rights*, 1. liburukia, New York: SAGE, 22.-38. or.

Nire irakurketak amaitzeko, iturri berri batzuk aurkitu nituen, eta Veneziako hitzaldian sartu nituen.

Ohartu nintzen giza eskubideen historiaz hitz egin baino lehenago, kontzeptuaren esanahiari buruz pentsatu behar nuela. Agiri nagusiak nire ikasleekin eztabaidatu nituen. Hitzaldiak eman nituen eta mintegiak antolatu nituen zenbait unibertsitate (Manchester, Deustu-Bilbo, Maastricht, besteak beste) eta elkartetan (Justice and Peace Europaren Batzar Nagusia, Bartzelonan). Giza Eskubideen UNESCO Katedra sortu nuen Luxenburgoko Unibertsitatean, eta eskolak, mintegiak eta nazioarteko hitzaldiak antolatu nituen. Esate baterako, 2015ean, «Describing a Process of Cultural Transformation. Human Rights and the Social Sciences» konferentzia egin genuen Luxenburgon. Gonbidatutako hizlarien artean, honako hauek zeuden: Samuel Moyn, Lynn Hunt, Bill Bowring, Jan Eckel, Mikael Madsen, Sibylle Van der Walt, Andreas Pettenkofer, Tom Hadden, Guy Haarscher, Jan Wouters, George Ulrich eta Attracta Ingram. Halaber, Afrikako XIII. mendeko gutunei buruzko talde batek parte hartu zuen (Mamadou Diakité, Mamadou Diawara, Jan Jansen eta Francis Simonis). Zenbait artikulu idatzi nituen, bat orokorragoa, *SAGE Handbook of Human Rights* (Mark Gibney-k eta Anja Mihr-ek² argitaratu zuten); beste batzuk, berriz, gai zehatzago batzuei buruz (adibidez, Olympe de Gouges, transgeneroari, duintasunari eta esklabotasunari buruz). 13 urtez Luxenburgoko Giza Eskubideen Aholku Batzordeko presidenteordea eta gero presidentea izan nintzela baliatu nuen.

Lehen aipatu bezala, giza eskubideen alderdi juridikoei buruzko tesuliburu bat irekitzean, askotan giza eskubideen historiari buruzko kapitulu bat aurkitzen dugu, Magna Cartarekin hasten dena, edo, batzuetan, Kyrosen Zilindroarekin, eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin edo Oinarrizko Eskubideen Europako Gutunarekin amaitzen dena. Liburu gehienen ikuspegia eurozentrikoa da, eta beste kontinente batzuetan, berriz, giza eskubideei buruzko agiriekin lotutako aipamenak urriak dira. Horietan, sarritan, nagusi izaten dira teleologia kronologiko eta atzera begirakoa, bai eta oso ikuspegi lineala ere. Historiako narratiba nagusiei begirada bat botatzen badiegu, litekeena da giza eskubideei buruzko kapitulu bat ez izatea, eta ez da ezohikoa giza eskubideen izena bera ere inoiz ez aipatzea. Baina horrek guztiak ez du kontuan hartzen azken hamarkadetan hainbat argitalpen berri plazaratu direla, eta berrikuntza berriak eskaintzen dituztela. Ez da nire helburua orrialde hauetan argitalpen berri horiek guztiak zerrendatzea, baizik eta lan berri horiek gidatzen di-

² Lehnern, J.P. (2014): «Pleading for a New History of Human Rights». In Gibney M., Mihr A. (argit.) *The SAGE Handbook of Human Rights*, 1. liburukia. New York: SAGE, 22.-38. or.

tuzten galdera batzuk aipatzea eta horien erantzunak bilatzen saiatzea (ikus nire kapitulua Gibney eta Mihr-en lanean).

Historialari batzuk buru-belarri ari dira giza eskubideei buruzko lehen agiria zein den jakiten saiatzen. Eta giza eskubideak unibertsalak badira, definizio unibertsal bat egon behar du. Baina hori guztia anakronikoa da. Eta zein da lehenengo agiria aurkitzearen balio erantsia? Giza eskubideetan interesa duten historialarien arteko polemiketako bat baino ez da hori, eta aurrerago helduko diot berriro gai horri. Halaber, horrek esan nahi du ez dela inoiz izango giza eskubideen historia bakar bat; kronologia asko behar ditugu.

Eztabaidak dirauela erakusten duten polemika batzuk ere aipatuko ditut, giza eskubideen amaierari buruzkoak ere bai (hori giza eskubideen historiaren amaiera ere izango litzateke)³.

Giza eskubideen definizioa

Beraz, lehenik eta behin, giza eskubideen definizioei buruz hausnartu behar izan nuen⁴. Adierazpenak eskubideen katalogoak dira eta adierazpenon testuingurua kontuan hartu behar dugu. Testuinguruaren gaia oso garrantzitsua da, eta aukera ematen digu kontzeptuaren esanahia hobeto ulertzeko. Giza eskubideei buruz pentsatzean, funtsean adierazpenik gabe ere existitzen den kontzeptu bat dela pentsatzen al dugu? Edo giza eskubideez hitz egiteko, ezinbestekoa al da agiri ofizialen bat egotea? Zer gertatzen da eskubide batzuen izenean borrokatzen diren herri-mugimenduekin? Zer gertatzen da eskualde edo herri mailako adierazpenekin, hala nola Erdi Aroan herri-mailan aurrera egin zuten askatasun-gutunekin?

Horrek nabarmendu egiten du, besteak beste, Philip Alstonek proposatutako azterketa-esparru baten garrantzia:

Giza eskubideak: ideia bat, diskurtso landu bat, mugimendu sozial bat, jardunbide edo erakunde bat, araubide juridiko nazional edo internazional bat, norbanakoen eta taldeen eskubideekiko errespetua sustatzeko sistema bat.

³ Hoffmann, S-L. (2016): «Human Rights and History», *Past and Present*. 232. libk., 1. zk., 279.-310. or.; Moyn, S. (2016): «The End of Human Rights History», *Past and Present*. 233. libk., 1. zk., 307.-322. or.; Hunt L. (2016): «The Long and The Short of the History of Human Rights», *Past and Present*. 233. libk., 1. zk., 323.-331. or.

⁴ Giza eskubideen sorrerako printzipioei buruz, ikus Bielefeldt, H. (2022): *Sources of Solidarity. A Short Introduction to the Foundations of Human Rights*. Nurenberg: FAU University Press.

Alde horretatik, hitzaurreen rola gutxietsi egiten da sarritan. Hitzau-reetan aurkitu ohi dugu adierazpen baten idazketaren testuingurua. Horiek gabe ezin dugu ulertu testuaren benetako esanahia, ezta zergatik aipatzen diren eskubide batzuk eta beste batzuk ez.

Noren eragina izan zuten adierazpenen egileek? Filosofoena, politikariena, diplomazialariena?

Eta giza eskubideen aldekoek gain, badaude eskubideok kritikatzeko dituztenak ere, hala nola Bentham, Marx eta Vatikanoko II.aren aurreko Eliza katolikoa.

Zer geratzen da adierazpenetatik kanpo?

Zergatik ez dago adierazpenik XIX. mendean? Erantzun bat izan daiteke konstituzioetan jada giza eskubideen elementuak txertatzen hasi zirela. Edo, agian, beste nozio batzuek garrantzi handiagoa hartu zutela, hala nola askatasunak. Hona hemen funtsezko galdera bat: Posible al da giza eskubideen kontzeptua hain garrantzitsua izatea, eta, horregatik, beste kontzeptu batzuk azaleratzea eragotzi izana?

Arazo gehigarri bat da inoiz amaitu ez ziren adierazpen ospetsuak daudela. Ziurrenik, adibide garrantzitsuena 1789ko Frantziako Adierazpena da. 17. artikulura arte iritsi ziren, Asanblea Nazionaleko kideek erabaki zutelako konstituzio bat idazten hasi behar zutela, eta geroago jarraituko zutela adierazpenarekin. Baina ez zioten inoiz berriz heldu adierazpenari, eta beste bi onetsi zituzten, 1793an eta 1795ean. Horietako azkenean, eskubideei eta betebeharrei buruzko kapitulu bana sartu zituzten, Afrikako Giza eta Herrien Eskubideei buruzko Adierazpena (1981) bezala.

Eta zer esan daiteke inoiz eztabaidatu ez diren huts egindako adierazpen eta hitzarmenei buruz? Adibidez, Erantzukizunen Adierazpen Unibertsala 1997an, teologoek, filosofoek eta estatu-gizon zaharrek landua, edo Erligio Intolerantziaren Forma Guztiak Desagerrarazteko Hitzarmena, 1962 eta 1997 artean garatua?

Eta azkenik, Stefan-Ludwig Hoffmannek ondorio hau adierazten du Past and Present aldizkarian idatzitako artikuluan: «Giza eskubideen historiografia berria bi joera hauetan bana daiteke: joera batek oraineko puntu egonkortzaileak bilatzen ditu eta giza eskubideen *longue durée*ko eboluzioan (historia sakona) aurkitzen ditu, eta, bestea, berriz, modu errebisionistan frogatu nahi du narratiba unibertsalista horien ezegonkortasuna eta, beraz, historikotasuna, hau da, gure uste politiko eta moralen iheskortasuna»⁵.

⁵ Hoffmann, S-L., *Ibid.* (ikus 3. oin-oharra), 2. or.

Hori kontuan hartuta, honako galdera honekin hasi nintzen: Hitz egin al dezakegu giza eskubideei buruz, kontzeptu hori existitzen ez denean ere? Hemen gutxienez bi «eskola» aurkitzen dira: bata, oso zorrotza da eta giza eskubideei buruz kontzeptu hori (edo lotutako kontzeptuak) existitzen denean soilik idazten du, eta oso berandu agertu da munduko historian (ikuspegi estua); bestea, ikuspegi zabalago batez idazten du giza eskubideei buruz, jada giza eskubideei buruzko nozioak agertzen direnean; adibidez, askatasunari, berdintasunari, inklusio solidarioari, justiziar buruzko ideiak filosofian eta erlijio ezberdinetan daudela aintzat hartuta.

Eztabaidak eta polemikak

Hartu al daiteke Magna Carta giza eskubideen agiritzat? Feudalismoaren testuingurua kontuan hartu behar dugu. Haren xedapen batzuek bai, giza eskubideen itxura dute; adibidez, 12. artikulua (Zergarik ez ordezkariarik gabe) eta 39. artikulua (*Habeas Corpus*). Oro har, Magna Carta ez da berez garrantzitsua. Peter Linebaughek interpretazio berri bat du, ordea, eta herri-ondasun komunen garrantzia azpimarratzen du, biziraupen ekonomikoari buruzko beste gutun batean, Ba-soaren Gutunean⁶.

Nor dira giza eskubideen adierazpenen egileak? Adibidez, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalekoak: René Cassin, John Humphrey, Eleanor Roosevelt, Charles Malik eta beste batzuk? Denek beren ekarpena egin zuten testuaren idazketan, bakoitzak bere esku-men espezifikoekin. Adierazpen horren berrikuntza unibertsaltasuna da. Mundu osoan ezartzea ez zen hain erraza izan, eta batzuek eskubide zibil eta politikoak azpimarratzen zituzten, eta beste batzuek, berriaz, eskubide ekonomiko eta sozialak. Eta aurrerapausoa ez zen berehalakoan gertatu; urte batzuk behar izan ziren; adibidez, Vietnamgo Gerraren aurkako manifestazioetara arte, edo geroago ere bai, masamugimenduen hasierara arte.

Pentsalari eta filosofo kristauen rola gutxietsi egin ohi da. Adibidez, Jacques Maritainen rola.

Eta zer gertatzen da giza duintasunaren kontzeptuarekin? 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean aipatzen da, baina ez 1950eko Europako Hitzarmenean. Hala ere, orain, Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaietan aurkitu daiteke.

⁶ Linebaugh, P. (2008): *The Magna Carta Manifesto. Liberties and Commons for all*. Berkeley: University of California Press.

Frantziak eta Britainia Handiak antzeko estrategiak erabili zituzten 1948tik aurrera: eskubideak defendatzea NBEn, baina, aldi berean, beren kolonietan giza eskubideak urratzea.

Hartu al daiteke esklabotzaren abolizioa giza eskubideen aldeko jardueratzat?⁷

Beste galdera bat antikolonialismoari buruzkoa da: Beti dago lotuta giza eskubideen defentsarekin eta sustapenarekin? Polemika da ea giza eskubideak funtsezkoak ziren jarduera antikolonialetan ala bereizketa zorrotza egin behar dugun honako hauen artean: batetik, giza eskubideak eta, bestetik, antikolonialismoaren eta autodeterminazioaren helburu nagusia⁸. Jensenek dio deskolonizazio-prozesuak ezarri zuela giza eskubideen gaia nazioarteko agendan, eta ez Mendebaldeko liberalak⁹.

Badago oraindik dirauen beste polemika bat. Aditu batzuek gizonaren nozioak emakumea barne hartzen duela argudiatzen jarraitzen dute. Horregatik uzten dute alde batera Olympe de Gougesen 1791ko Adierazpena. Arazo hori bereziki Frantzian sortzen da; izan ere, badi-rudi gizonaren eskubideen nozioak iritzi hori baieztatzen duela. Baina, gero eta gehiago, giza eskubideen kontzeptuak gizonen eskubideak ordeztzen ditu.

Nire bidearen bi adibide

Giza eskubideen historian interesa duen historialari baten lana erakusteko, bi adibide jarriko ditut neure esperientzietatik. Nire ibilbidearen une jakin batean, lehen gutuna zein izan zen galdetu nion neure buruari. Aipatu dudana bezala, historialari batzuek gogo handia dute giza eskubideei buruzko lehen agiria zein izan zen jakiteko. Ni neu Europar Batasuneko zenbait estatutako lehen agiriei buruzko

⁷ Martinez, J.S. (2012): *The Slave Trade and the Origins of International Human Rights Law*. New York: Oxford. Liburu horren berrikuspena: Alston, P. (2012) «Does the Past Matter? On the Origins of Human Rights», *Harvard Law Review*, 126. libk. 7. zk., 2043.-2081. or. Erantzuna Alstoni: Martinez, J. (2013): «Human Rights and History», *Harvard Law Review Forum*, 126. libk., 7. zk., 221.-240. or.

⁸ Brier, R. (2015): «Beyond the quest for a 'Breakthrough': Reflections on the recent historiography on human rights», *European History Yearbook*, 16. libk., 155.-173. or.; hor, 162. or., Moyn eta Eckel-i buruz.

⁹ Jensen S.L.B. (2016): *The Making of International Human Rights. The 1960s, Decolonisation and the Reconstruction of Global Values*. Cambridge: Cambridge University Press.

liburuki baten koeditorea izan naiz¹⁰. Baina, azkenean, erabaki behar dugu: Zein da gaur egun giza eskubidetzat jotzen dugunaren aipamenak dituen lehen agiria, edo *giza eskubideak* terminoa erabiltzen duena?

Ikertzaile asko bezala, 1315eko Magna Cartarekin hasi nintzen. Agiri horren 800. urteurrena dela eta, aipatu dudan bezala, Europar Batasuneko estatuetako giza eskubideen lehen agiriei buruzko liburu bat editatu nuen, EMAko nire hiru lankiderekin batera. Baina, gero, jakin nuen beste agiri bat izan zela Ingalaterran mende horretan, eta agiri horretan, herri-ondasunen garrantzia sartu zutela. Azkenik, Kyrosen Zilindroa deritzonaren berri ere izan zuen. Kyros erregeak (K.a 590/580-530 inguru) emandako dekretu bat da hori¹¹. Zilindro hori erabili zuen Mohammad Reza Shah Pahlavik Persian bere boterea legitimatzeko. Eta zilindroak giza eskubideei lotuta egon daitezkeen ideia batzuk baditu ere, ez da, berez, giza eskubideen agiri bat.

Beraz, azkenean, neure buruari lehen agiria zein izan zen jakitea hain garrantzitsua ote zen galdetzen amaitu nuen.

Beste adibide bat Kourougan Fouga (beste modu batzuetan ere idazten da) edo Mandeneko Gutuna izenekoa da. Hemen, kontua da ea Afrikako XIII. mendeko gutunak mito bat besterik ez ote diren.

Venezian hasi nintzen kezkatzen, EMA programaren esparruan giza eskubideen historiari eta historiografiari buruz egin nituen hitzaldietan. Ikuspegia oso eurozentrikoa zen, giza eskubideen historiari buruz argitaratutako ia testu guztiak bezala. Ahaztu egin zait nork eskatu zuen (ikasle batek? Nik neuk?) beste kontinente batzuetako testuak bilatzeko. Gogoan dut Togoko lankide batekin izandako elkarrizketa batean entzun nuela lehen aldiz Kouroukan Fougari buruz, Bamakon liburu bat prestatzeko saio batean. Benetan pozik nengoen. Gutuna gehitu nien gure ikasleek aztertutako testuei, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin batera. Halaber, aurkitu nuen bi testu ezberdin daudela izatez: batetik, Kouroukan Fouga Gutuna izenekoa, eta, bestetik, ehiztarien gutuna edo Mandeneko Gutuna. Desberdinak dira, bai edukian, bai estiloan. Horietako batean, adibidez, esklabotzaren abolizioari buruzko artikulua bat dago; bestean, ordea, esklaboak gizatasunez tratatu behar direla adierazten da. 2009an, UNESCOk «Mandeneko Gutuna, Kouroukan Fougan aldarrikatua» Gizateriaren Kultura Ondare Immaterialaren Zerrenda Erakusgarrian sartu du.

¹⁰ Suksi, M., Agappiou-Josephides K., Lehnert J-P., Nowak M. (argit.) (2015): *First Fundamental Rights Documents in Europe. Commemorating 800 Years of Magna Carta*. Cambridge/Anberes/Portland: Intersentia.

¹¹ Besteak beste, Haratsch-ek aipatua (ikus 1. oin-oharra), 18.-19. or.

Nire irakurketei esker, harremanetan jarri nintzen Francis Simonisekin. 2015ean, talde bat antolatu nuen aipatutako nazioarteko biltzarrean. Aurkezpenen ondorioa honako hau izan zen: bi gutunak agiri faltsuak dira, ez ziren inondik inora existitzen; asmatutako tradizio bat zen. Kourougan Fougan idatzitako Mandeneko Gutuna sartzea proposatu zuten Unescoko adituek akats bat egin zuten. Giza eskubideen historia globalari buruzko liburu bat prestatzen ari nintzela, Jan Jansenekin jarri nintzen harremanetan (Luxenburgon egin genuen biltzarrean parte hartu zuen Jansenek). Haren artikulua, Elara Berthoren lanarekin batera, nire ikuspegia aldatu zuen¹². Biek azpimarratu zuten Nianek¹³ historia eta literatura uztartuz egindako lanaren garrantzia. XIII. mendeko gutunak asmakizun bat zirela izan zen hasieran atera nuen ondorioa. Baina, ondoren, Jansenen eta Berthoren iritzia kontuan hartuta, asmakuntzaren ideia baztertu egin nuen. Ezin dugu asmakuntza bat izan zenik esan, izan ere, gutunak deiturikoetan jasotako ideiak jada existitzen ziren, eta garrantzitsua dena da ideia horiek gaur egun Afrikan giza eskubideen politikak inspiratu ahal izatea.

XIII. mendean Afrikan gutun baten existentziaren ideia oraindik aipatzen da; adibidez, Magali Lafourcadek 2018an argitaratutako *Les droits de l'homme* liburuan¹⁴, edo Antonio Papiscaren lanean (Veneziako EMA Master programaren sortzaileetako bat da)¹⁵.

Ondorioak

Historia ikaskuntza-prozesu bat da, eta prozesu hori ez da inoiz amaitzen. Eta eskala, noski, garrantzitsua da. Giza eskubideak ditugu, bai nazioarte-mailan, bai nazio-mailan, baina baita eskualde- eta herri-mailan ere. Giza eskubideak urratu egiten dira maila desberdin horietan guztietan. Horrek esan nahi du maila ezberdin horiek kontuan hartu behar ditugula giza eskubideen historia lantzerakoan. Adibidez, asko dago egiteko mikro mailan.

¹² Jan Jansenen eta Elara Berthoren arteko e-mailak, 2024ko maiatzetik irailera.

¹³ Besteak beste, Niane D.T. (1960): *Soundjata ou l'épopée mandingue*. Paris: Présence africaine; Niane, D. T. (2008): *La Charte de Kurukan Fuga. Aux sources d'une Pensée Politique en Afrique*. Paris: L'Harmattan.

¹⁴ Lafourcade, M. (2018): *Les droits de l'homme*. Paris: PUF (Que sais-je ? bilduma). Berak dioen bezala, «La charte du Manden, proclamée en 1222 à Kouroukan Fuga, dans l'actuel Mali, a marqué une claire opposition à l'esclavage, cinq à six siècles avant la proclamation de son abolition en Europe», 15.-16. or.

¹⁵ Papisca, A. (2015): *Noi, diritti umani. We, human rights*. Venezia: Marsilio.

«Giza eskubideek iraganean izan zituzten esanahi anitzak jakitea giza eskubideen berrinterpretazio produktiborako bidea ireki lezake gurean. Historia, beraz, berrikuntza-iturri izango litzateke»¹⁶.

Nota bene:

Testu honetarako, baliatu egin ditut Veneziako Giza Eskubideei eta Demokratizazioari buruzko EMA Masterrean giza eskubideekin lotuta eman ditudan hitzaldiak.

¹⁶ Brier (ikus 9. oin-oharra), 173. or.

Europako giza eskubideen erronkei aurre egitea: Europako Kontseiluko komisarioaren funtzioa

Michael O'Flaherty

Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioa

Giza eskubideen sistema globala da, zalantzarik gabe, modernitatearen lorpen handiena: giza ongizaterako ekarpen handiena da. Hizkuntza komun bat eta makineria bat eskaintzen dizkigu, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren (GEAU) 1. artikuluan aurreikusitako mundua lortzera bideratutako estandar eta erakundeen inguruan erakia: mundu bat, non pertsona guztiak askeak eta berdinak diren duintasunean eta eskubideetan.

Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioa naizen aldetik, nire eginkizuna, hain zuzen ere, 46 herrialde kideetan giza eskubideen bide batek izan dezakeen eta izan behar duen itxura erakustea da. Izan ere, giza eskubideak ez dira soilik legezko betebeharrak edo garai bateko ideia on bat; guztion artean eraiki dezakegun gizarte hobe baterako aurreproiektua dira. Gizarte horretan, gutako bakoitza askea eta gure desberdintasunetan errespetatua izango da, guztiok besteekiko errespetua izango dugu, eta babestuta egongo gara, inor atzean geratu gabe. Gure gizarteetan giza duintasuna eta giza balioak ohoratzeko bidea erakusten duen ibilbide-orri partekatu unibertsal bakarra da. Bestela esanda, ez dago B planik.

Giza eskubideen arloan, hau da, zalantzarik gabe, une zailena gure belaunaldiarentzat; beraz, asko dago jokoan.

Ukrainako gerra dago, noski, herriari eragindako izugarrikeriak, Errusiara eramandako haurren egoera latza barne. Ez da Ukrainaren aurkako eraso bat soilik, giza eskubideek loratzeko balioen, testuinguruaren eta ingurumenaren aurkako gerra da.

Giza eskubideen arloan, badaude beste gaitz etengabe batzuk, oraindik espazio publiko gero eta polarizatuago eta uzkurituago honetan desagerraraztea lortu ez ditugunak, besteak beste, diskriminazioa, arrazakeria, antisemitismoa, musulmanen aurkako gorrotoa eta LGBTI pertsonen aurkako intolerantzia.

Aurrerapenak lortu ziren esparruetan ere atzerakada ikusten dugu: zuzenbide-estatuaren higadura, emakumeen eskubideen aurkako atzerakadak, espazio zibikoaren aurkako aldarriak, adierazpen- eta elkartze-askatasunaren aurkako erasoak... etengabeko zerranda. Giza eskubideen defendatzaileek gero eta egoera kaskarragoari egin behar diote aurre leku askotan, desinformazioaren krisi neurrigabea gure erakundeentzat ondorio latzak eragiten ari den testuinguru honetan. Gainera, pobrezia ez da konpondu; aitzitik, desberdintasun sozioekonomikoak areagotzen ari dira.

Ezin dira alde batera utzi gizateria osoari eta etorkizuneko belaunaldiak eragiten dieten beste gai garrantzitsuak. Horietan guztietan, giza eskubideei buruzko gogoeta garrantzitsuak planteatzen dira: krisi klimatikoa eta krisi horretan aurrera egiteko moduak; trantsizio berdea egiteko bidezko moduak; adimen artifizialak gure bizitzetan duen rola, eta zein bizkorrak diren adimen artifizialaren bilakaera eta gudan eragiten ari den bilakaera. Gure erronka da giza eskubideak txertatzea gai horiei heltzeko moduan. Hori egiterakoan huts egiten badugu, giza eskubideak garrantzirik gabe gera litezke gure bizitzaren muinean, oso azkar.

Beraz, non daude giza eskubideak krisi larriko une honetan? Esan behar dut, neurri batean behintzat, desagertuta dabiltzala. Ez ditugu giza eskubideak ikusten gure gizarteak konpontzeko eta aurrera ateratzeko erantzunen erdigunean.

Sarritan, gobernuak giza eskubideak buffet gisa jorratzen dituztela ikusten dugu, edo batzuen giza eskubideak aldarrikatzen dituztela beste batzuenak ezabatzeko. «Nire agenda politikorako baliagarriak diren eskubideak hartuko ditut, baina buffeteetan utziko ditut beste eskubide horiek. Trabak besterik ez dira». Are okerrago, ikusten dugu, eta hau berria da, politikari batzuek eta baita gobernu batzuek eskubideak arbuiatzen dituztela, honelakoak esaten baitituzte: «Tira, nik ez dut eskubide horietan sinesten. Itun horretatik kanpo egon nahi dugu». Gaur egun ikusten dugun beste arazo bat da giza eskubideak askotan ideologia gisa aurkezten direla. Zerbait arrotza, kontrolatu beharrekoa, baz-

tertu beharrekoa. Edo iraganekoa den zerbait. Eta gero, kalera ateratzen garenean, onartu behar dugu pertsona gehienen begietara giza eskubideak kontzeptu polit baina egunerokotasunarekin zerikusirik ez dutenak.

Utzidazue zuekin lau aldarri partekatzen¹.

Egin beharreko lehenbiziko gauza esnatzea da. Aintzat hartu behar dugu zer dagoen jokoan, zer dagoen arriskuan. Stéphane Hessel intelektual frantses handiak haxe esan zuen gai horri buruz: «Indignez-vous». Haserretu. Ulertzen duzu zer ari zaren galtzen?

Egin beharreko bigarren gauza suspertzea da. Giza eskubideetara itzuli behar dugu, haiek ohitura bihurtu berriz ere. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala hartu eta arretaz irakurri behar dugu. Inbertsio handia egin behar dugu giza eskubideen aldeko hezkuntzan. Sar ditzagun berriz giza eskubideak gure ikastetxeetan, gure haurrek lorpen bikain horren berri izan dezaten, eta jakin dezaten zergatik diren garrantzitsuak beraientzat.

Eta gero, behin suspertuta, ekin egin behar diogu. Gure aldarrikapenak kokatu behar ditugu, gizarte hobe, bidezkoago, justuago baten alde, giza eskubideen kategoriak eta hizkuntza erabiliz.

Esate baterako, hartu dezagun gaur egungo gai garrantzitsuenetako bat: adimen artifiziala (AA). Garapen izugarria da gure bizitzan. Ahalmen handia du giza ongizaterako, gizarte oparoetarako, baina, era berean, ondo menderatzen ez bada, behar bezala gidatzen ez bada, kalte izugarria ekar dezake guretzat eta gure komunitateentzat. Kalte izugarria, bestela esanda, giza eskubideak babesteko. Beraz, giza eskubideei buruzko ikuspegia behar dugu orduan, gure aldarrikapenak egiteko. Bada bat non behin eta berriz esaten dugun industria teknologikoak badakiela giza eskubideei buruz, ez soilik pribatutasunari buruz, baizik eta eragindako eskubide guztiei buruz. Horrek eskatzen du industriak aplikazio guztiak erabilera-testuinguru guztietan probatzea, giza eskubideetan zenbaterainoko eragina izan dezaketan ikusteko. Adimen artifizialaren erabilera ikuskatzeko erakunde sendoak izatea eskatzen digu horrek, AAre testuinguruan gure giza eskubideen alde egiteko gaitasuna, baliabideak, eta ezagutza duten erakunde ikuska-tzaileak, hain zuzen ere. Eta, jakina, horrek AA gardena izatea eskatzen

¹ Lau puntu horiek TEDx Talk hitzaldi batean aurkeztu nituen, «Nola kokatu ditzakegu giza eskubideak gure ekintzen erdigunean?» izenburupean, 2022ko azaroan. [https://www.targ.com/talks/michael_o_flaherty_how_can_we_place_human_rights_at_the_heart_of_our_actions?utm_campaign=tedsread&utm_medium=referral&utm_source=tedcomshare].

du, gure eskubideetan kalterik eragin den jakin, konponbideren bat nonbait erreklamatu ahal izateko.

Baina ekiteko, beste zerbait egin behar dugu. Bat egin behar dugu. Giza eskubideak gure gizarte osoarenak eta guztiarentzat dira, eta, beraz, gizarte osoak lagundu behar du giza eskubide horiekiko errespetua lortzeko.

Hartu dezagun berriz AAren gaia. Giza eskubideetan adituak diren esku bakarrik utziko balitz, orduan ez genuke arrakastarik izango. Enpresa teknologikoetako jendearekin, industrialariekin, zientzialariekin eseri behar dugu, elkarrekin, baita filosofoekin ere, jakiteko zein diren arazoak eta zer itxura duten konponbideek. Orduan bai, arrakasta izango dugu.

Bada bat egitearen beste dimentsio bat, eta da giza eskubideek zenbaterainoko garrantzia izan dezaketen gurekin bat egitean. Azkenaldian belaunaldien arteko konfiantza-galera egon da. Gazteagoak ez dira fio nire belaunaldiarekin, ikusten dutelako huts egin diegula, eta arrazoi dute neurri handi batean. Adineko jendea ez da inorekin fidatzen, iruditzen zaiolako baztertu, ahaztu eta alde batera utzi dugula. Baina giza eskubideen hizkuntza partekatu eta unibertsal horrek, guztiok batzen gaituenak, belaunaldi horien guztien artean gizarte hobe eraikitzeko lan egiteko lexikoa eman diezaguke.

Ekarpen labur hau amaitzeko, egokia da azaltzea nola defendatuko ditudan giza eskubideak Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisario izendatu berria naizen aldetik.

Sistematikoki konprometituko naiz arduradun politikoeekin, eta haiek eta gure gizarteek aurre egin behar dieten arazo garrantzitsuetan giza eskubideekin lotutako alderdiak azaltzen saiatuko naiz, hala nola Ukrainaren aurkako eraso, gure bizitzen digitalizazioa, klima-aldaketa, gure gizarteetako desberdintasunak, gure muga zainza eta migratzaileei ematen zaien tratua.

Behin eta berriz azpimarratuko dut ez dela inor atzean utzi behar; horrek esan nahi du lehiapeko lurraldeetako edo lurralde okupatueta pertsonen eskubideen alde, erromanien eta *Travel*lerren komunitateen eskubideen alde eta baztertutako beste talde batzuen, hala nola zaintza instituzionalaren pean dauden adinekoen, eskubideen alde egitea. Lan irmoa egingo dut Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak aplikatzearen alde. Egiten dudana guztian emakumeen eta gizonen esperientzia desberdina aitortuko dut, eta irmo egingo dut lan emakumeen eta nesken giza eskubideen alde. Asko inbertituko dut giza eskubideen defentsarako elkarteetan, belaunaldien artekoetan barne —gazteekin eta adinekoekin—, baita enpresa-mundukoekin, erlijio-komunitateekin, kulturako eta kiroleko profesionalekin eta beste hainbat esparrutako jendearekin ere.

Gainera, ez dut inoiz ahaztuko Komisarioa gizabanako bat dela, eta ez burokrazia astun bat: arina, bizkorra, eta beti prest jendea dagoen lekura joateko, entzuteko, eta jendearen eta boterea dutenen arteko zubia izateko.

Egingo dudan guztia nire sinesmenak gidatuko du; hau da, giza eskubideak etorkizun hobe eta bidezkoago baterako bide partekatua direla.

Hitz itxaropentsu batzuekin amaitu nahiko nuke. Uste dut giza eskubideen erdigunea berreskura dezakegula. Uste dut 1948an eta ondorengo urte guztietan aurrerapen izugarriak egin direla, eta ezinezkoa dela hori guztia erabat atzeraraztea. Baina, era berean, nire bizipen pertsonalek eragiten didate itxaropena. Nire ibilbide profesionaleko une itxaropentsuetako oroitzapen batekin amaituko dut.

Duela 18 bat urte, nire lankideen talde batekin, oso minduta eta kezkatuta nengoen LGTBI kolektiboetako kideen oinarritzko giza eskubideak zenbateraino errespetatzen ez ziren ikustean. Beraz, giza eskubideen arloan zeuden konpromisoak LGBTI komunitateetako kideek bizitako esperientzian aplikatzeko moduei buruzko mapa bat egiteari ekin genion. Horiek printzipio multzo batean laburbildu genituen². Argitaratu egin ziren. Eragin handi samarra izan zuten. Baina nik partekatu nahi dudan oroitzapena blogari gay batena da, printzipioak argitaratu eta egun gutxira honako hau adierazi zuena: «Atzo, ez nintzen existitzen. Orain, printzipio horiek irakurri ditut gaur. Gizakia naiz.»

Horrelako oroitzapenek bultzatzen naute aurrera egiteko. Horrelako oroitzapenek bultzatzen naute aurrera egiteko. Horrelako oroitzapenek konbentzitzen naute, hain zuzen ere, mundu baten ikuspegiaz ohartu gaitzkeela, non denok aske eta berdinak garen duintasunean eta eskubideetan.

² *Principles on the application of international human rights law in relation to sexual orientation and gender identity* (Giza eskubideen arloko nazioarteko zuzenbidearen aplikazio-printzipioak, sexu-orientazioari eta genero-identitateari dagokienez), The Yogyakarta Principles, 2006.

Alfabetatze juridikoa: Funtsezko kompetentzia giza eskubideen hezkuntzan

Thérèse Murphy

Belfasteko Queen's Unibertsitateko zuzenbide-irakaslea,
Giza Eskubideei eta Demokratizazioari buruzko Europako Masterreko
(EMA) presidentea

Orla Ní Cheallacháin

EMAKo (Giza Eskubideen Campus Globala, Venezia, Italia) zuzendaria

Gutako bat nazioarteko harremanetan aditua da, bestea giza eskubideei buruzko zuzenbidean, eta elkarrekin zuzentzen dugu Giza Eskubideei eta Demokratizazioari buruzko Europako Masterra¹, Europako 43 unibertsitateren arteko lankidetzat aitzindaria eta Giza Eskubideen Campus Globalaren atal oparoa. Programa hori zuzentzea pribilegio bat da; normalean, erronkaz betetako rol bat ere bada. Alde batetik, giza eskubideen eta demokraziaren alde mobilizatzeko aukera dugu, seguruak eta baliabide onekoak diren leku eta espazioetan irakatsiz eta ikasiz, konpromiso kritikoa eta lankidetzan aritzeko gogoia duten adituekin. Azken batean, «giza eskubideei buruzko, giza eskubideen bidezko eta giza eskubideen aldeko hezkuntza» deitu izan denaren parte izateko pribilegioa dugu². Bestalde, hori da aurre egin beharreko erronke-

¹ <<https://gchumanrights.org/education/regional-programmes/ema/about.html>> 2024ko urriaren 17an azken aldiz ikusia.

² *UN Declaration on Human Rights Education and Training*, UN Doc. A/RES/66/137, 2012ko otsailaren 16a.

tako baten jatorria ere, galdera hau, alegia: zer behar da zehazki gaur egungo munduan giza eskubideei buruzko, giza eskubideen bidezko eta giza eskubideen aldeko master batean?³

Kapitulu honetan galdera hori aztertzen da. Hain zuzen ere, galdera hau egiten da: zer leku dute gaur egun zuzenbideak eta ezagutza juridikoek giza eskubideen graduondoko prestakuntzan? Alfabetatze juridikoa da erantzuna, eta hori agintzen da, bai eta giza eskubideetan alfabetatzearen zati gisa kokatzen ere, graduondoko konpetentzia nagusia baita⁴.

Hau da kapituluaren egitura. Hasteko, zuzenbideak giza eskubideei buruzko graduondoko prestakuntzan duen ohiko rolaren azalpen labur bat egingo da. Ondoren, rol hori denboran zehar nola aldatu den deskribatzen da: aldaketa horiek ontzat ematen dira, baina kezka ere sortzen dira. Azkenik, kezkei erantzuteko, alfabetatze juridikoari heltzen zaio.

Erronka

Beste garai batzuetan, inor gutxi galdetuko zion bere buruari zer leku duten zuzenbideak eta ezagutza juridikoek giza eskubideen graduondoko programa batean. Zuzenbidea zen nagusi eta, neurri handi batean, eztaba daezina. Zenbait programatan, aldezturik zuzenbidea ezagutzea aurretiazko eskakizuna zen; beste leku batzuetan, zuzenbideko oinarriak ez zuten ikasleak onartzen ziren, baina ahalik eta azkarren «zuzenbidearen bidea» hartu behar zuten zutela aholkatzen zitzaizkien. Izan ere, leku askotan, «zuzenbidearen bidea» zen giza eskubideen bidea. Bestela esanda, graduondoko programetan, giza eskubideei buruz ikasteak giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidea ikastea esan nahi zuen.

Gehienetan, giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidea irakasteko eta ikasteko ikuspegi berezia ere bazegoen. Diapositibaz diapositiba eta irakurgai-zerrendaz irakurgai-zerrenda, tresna juridikoek, erakundeek eta aktoreek funtsezko lekua zuten. Kasu zehatzetako gertaerak kenduta, ez zegoen ia aukerarik ikasleek abokatuak edo zuzenbidearekin lotutako politikariak ez ziren pertsonengandik hurbil ego-

³ *Ibid.*, 2(2) art.

⁴ Oro har, «giza eskubideetako alfabetizazioa» erabiltzen dugu, antzeko terminoetan oinarrituta, hala nola alfabetizatze zientifikoa. Horrekin lotutako erabilera zehatzago baterako, ikus, adibidez, Roux, C. eta Becker, A. (argit.) (2019): *Human Rights Literacies: Future Directions*. Cham: Springer.

teko. Gainera, teoria eta praktika falta ez baziren ere, arau juridikoei buruzko saioak erabat nagusi ziren, oro har.

Gaur egun, joera horiek gainbeheran daude: giza eskubideei buruzko graduondoko prestakuntza ere aldatzen ari da. Aldaketaren arrazoietakoa bat graduondoko programen hazkunde esponentziala da: soilik juridikoak diren eta zuzenbidearen ikuspegian oinarritutako giza eskubideen programei beste batzuk gehitu zaizkie, hala nola justizia globaleko edo sozialeko programak. Horietan, giza eskubideei buruzko legeria eta, oro har, giza eskubideak sartzen dira, modu orokorragoan, lehen planoan jarrita baino⁵. Horri dagokionez, gaur egungo graduondoko programa askok, beren deskribapenean, multidiziplinarrak, transdiziplinarrak edo diziplinar-tekoak direla adierazten dute. Era berean, ohikoa da programen deskribapenetan teoria, praktika eta hainbat trebetasun aipatzea, zuzenbidea aipatzen duten neurri berean.

Aldaketaren beste arrazoi bat da desberdintasuna aitortu, esploratu eta txertatzeko joera zabalagoa dagoela. Giza eskubideei buruzko ikerketa, adibidez, iraganean baino askoz ere askotarikoagoa da; neurri batean, zenbait arlotako adituek, hala nola antropologia-koek eta zientzia politikoetakoek, egindako ikerketa enpiriko aberatsei esker (jende askok irakurri ditu, gainera)⁶. Gainera, legelariak era berean erantzun dute⁷, giza eskubideei buruzko azkenaldiko ikerketa angloamerikarrari kontrapuntu bat sortuz, hura eszeptizismoak eta lotsak leunduta zegoela baitzirudien. Giza eskubideen metodoarekiko konpromisoak ere aldaketa bultzatu du: gai bizia bihurtu da, eta gogoeta kritikoa egitea ahalbidetu du gertaerak bilatzeko eta neurtzeko tresnei buruz, hala nola adierazleei eta eraginaren ebaluazioari buruz, baita abokatuek eskubideetan oinarritutako erreklamazioak egitean duten zereginarekin lotutako gaiak ere⁸. Oro har, gero eta gogo han-

⁵ Ikusi Nilssonek diseinatutako karakterizazioa: Nilsson, F. (2024): «Human Rights Education at Lund University: What are the Opportunities and Challenges for Collaboration?», *Lund Human Rights Reports and Working Papers*, <<https://lup.lub.lu.se/search/publication/54d8c661-6373-4172-8e0b-719e0dd89955>> 2024ko urriaren 17an azken aldiz ikusia.

⁶ Ikus, adibidez, Merry, S.E. (2006): *Human Rights and Gender Violence: Translating International Law into Local Justice*. Chicago: University of Chicago Press; Simmons, B.A. (2009): *Mobilizing for Human Rights: International Law in Domestic Politics*. Cambridge: Cambridge University Press.

⁷ Ikus, adibidez, Chua L. J. (2019): *The Politics of Love in Myanmar: LGBT Mobilization and Human Rights as a Way of Life*. Stanford: Stanford University Press; De Búrca, G. (2021): *Reframing Human Rights in a Turbulent Era*. Oxford: Oxford University Press.

⁸ Ikus, adibidez, Satterwhaite, M. (2022): «Critical Legal Empowerment». In de Búrca, G. (argit.): *Legal Mobilisation for Human Rights*. Oxford: Oxford University Press, 89.–122. or.

diagoa dago «epaitegietatik kanpo eta tokian bertan» ikerketak eta praktikak egiteko⁹, bai eta Gráinne de Búrca giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen izaera «esperimentalista» deitzen duenaren ulermen zorrotzagoak eta argiagoak baliatzeko ere, haren izaera dinamikoa eta iteratiboa nabarmenduta, goitik beherako eta behetik gorako eragile, erakunde eta prozesuen arteko elkarrekintzen bidez¹⁰. Beste joera garrantzitsu batzuk dira ikasle-kopuruaren hazkundera, neurri batean parte-hartzezko ekimenak zabalagoak direlako, baita zenbait ikasle gero eta mugikortasun-maila handiagoa dutelako ere. Azken joera horiek aniztasuna gehitu diote ikaslegoari: «buru, esku eta bihotz» gehiago daude orain parte hartzen giza eskubideei buruzko graduondokoetako ikasgeletan, eta horietako asko gogor ari dira curriculumak deskolonizatzeko lanaren alde egiten¹¹.

Aldaketa horiek ongi etorriak dira. Hala ere, bizitza intelektual, politiko eta sozialaren konplexutasun gero eta handiagoa islatzen dute, bai eta eskubideei buruzko diskurtsoen bilakaera ere; hein batean globalizazio-prozesuen ondorioak islatzen dituzte. Garapen teknologikoen ondoriozko denbora- eta espazio-konpresioak lotura berriak sortu ditu mugetan zehar: tokiko gertaerak global bihurtzen dira, eta espazio sozialak espazio fisiko zehatzetatik banandu dira¹². Aliantza globalak erakitzen diren bitartean, prozesu horren ondorioz, eskubideei buruzko diskurtsoak guztia eta ezer ez adierazteko moduan interpreta daitezke: izan ere, Merryk eta Levittek adierazten duten bezala, giza eskubideen esparruak «ideiak bidaiatzen laguntzen du», eta «kode moral unibertsal baten magia eta salaketaren eta dokumentazioaren bidez kasuak eraikitze teknologiak»¹³ eskaintzen ditu, eta, bestalde, ezer ez, bizitza sozial eta politikoaren «deslurralteratzea» dela-eta, zenbait galdera planteatzen dira, hala nola nora doazen eta nori helarazten zaizkien ideiak.

⁹ Ikus, adibidez, Chua, L. J. (2022): «Constitutional Interpretation and Legal Consciousness: Out of the Courts and onto the Ground», *International Journal of Constitutional Law*, 20. libk., 5. zk., 1937.–1957. or.

¹⁰ De Búrca (7. zk.).

¹¹ Tibbitts, F. eta Sirota, S. (2022): «Human Rights Education». In Tierney, R. et al (argit.): *International Encyclopedia of Education*. Amsterdam: Elsevier, 4. edizioa, 53.–63. or. Giza eskubideei buruzko hezkuntzaren garapena azaltzen da, giza eskubideei buruzko hezkuntzaren metodologia eraldatzaile eta emantzipatzaileak barne.

¹² Scheuerman, W. (2023): «Globalization». In Zalta, E. N. eta Nodelman, U. (argit.): *The Stanford Encyclopaedia of Philosophy*. 2023ko udaberriko edizioa.

<<https://plato.stanford.edu/archives/spr2023/entries/globalization/>> 2024ko urriaren 17an azken aldiz ikusia.

¹³ Merry, S. E. eta Levitt, P. (2017): «The Vernacularization of Women's Human Rights». In Hopgood, S., Snyder, J. eta Vinjamuri, L. (argit.): *Human Rights Futures*. Cambridge: Cambridge University Press, 213.–236. or.

Bitxia bada ere, orain arte, aipatutako aldaketek ez dute ikerketa handirik sortu zuzenbideak eta ezagutza juridikoak giza eskubideei buruzko graduondoko hezkuntzan duten rolari buruz. Hori kezkarria da, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza dibertsifikatzen den heinean, funtsezkoa baita historiaren balantzea egitea eta historiak ematen duen informazioa izatea, bai giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren historiak, bai giza eskubideekin lotutako historiak. Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren historiak erakusten du erakuntza hutsetik haratago doan hezkuntza-ahalegin berezia dela: giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren historiaren zati bat NBEK eta beste erakunde batzuek «giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztien errespetu eta betetze-maila unibertsala» bermatzeko duten jarrera da¹⁴. Era berean, giza eskubideen historia eta bilakaera historia globalaren parte da¹⁵. Beste era batera esanda, giza eskubideak ez dira azterketa zientifiko hutsa; giza eskubideak bizi egiten dira, kontingenteak dira, eta aurkaratu egiten dira.

Zuzenbideak eta ezagutza juridikoak giza eskubideen hezkuntzan duten zeregina ikertzea are garrantzitsuagoa da giza eskubideen bertsio ez-liberalen gorakadagatik¹⁶. Argi dago zuzenbidea justizia sozialerako tresna eta erregimen autoritarioen tresna dela aldi berean¹⁷. Ondorioz, zuzenbidea tresna inperfektua izan daitekeen arren, arduragabekeria litzateke hura diziplina anitzeko, diziplinarteko edo zeharkako diziplinetako ikastaroetan ez irakastea edo izan ditzakeen ahalmenak albo batera uztea. Argi dago, halaber, legezkotasuna giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiaren osagarria dela: esate baterako, ikuspegi horiek deskribatzeko erabiltzen den PANEL akronimo zabalduaren azken letra da legezkotasuna¹⁸. Gainera, kontzientzia juridikoaren zeregina funtsezkoa da oraindik ere, baita zuzenbiderako bidea eta zenbait eragilek zuzenbideak huts egiten duenean izaten dituzten erantzunak ere. Mugak muga, taldeek eta norbanakoek legea baliatzen dute oraindik ere gizarte-aldaketarako. Aro digital berriak sorra-

¹⁴ *UN Declaration on Human Rights Education and Training* (2. zk.).

¹⁵ Ikus, adibidez, Griffiths, D. (2023): «Human Rights Diplomacy: «Navigating an era of polarisation», *Chatham House Research Paper Series 2023*, <<https://www.chathamhouse.org/2023/04/human-rights-diplomacy>>, 2024ko urriaren 17an azken aldiz ikusia.

¹⁶ De Búrca, G. eta Young, K. G. (2023): «The (Mis)appropriation of Human Rights by the New Global Right», *International Journal of Constitutional Law*, 21. libk., 205. or.

¹⁷ Ikus, hurrenez hurren, De Búrca (7. zk.); Scheppele, K. L. (2018): «Autocratic Legalism», *University of Chicago Law Review*, 85. libk., 2. zk., 545. or.

¹⁸ PANEL akronimoari buruzko sarrera gisa, ikus <<https://ennhri.org/about-nhris/human-rights-based-approach/>>, 2024ko urriaren 17an azken aldiz ikusia.

razten eta sakontzen dituen polarizazioak beste arrazoi bat dira zuzenbidearen eta ezagutza juridikoaren zereginari buruzko ikerketa behar izateko. Adibidez, Martin Scheininek argudiatu du garapen horiek ikuspegi berri bat eskatzen dutela, zuzenbidea eta legezko erabakiak kontentzimendu edo argudio arrazional gisa hartzetik aldentzen dena, eta, horren orde, benetako frogan ebaluaziorantz mugitzen dena, diziplina anitzeko adituen ebaluazioak eta bat-egiteak erabiliz¹⁹.

Hori guztia edo zati bat saihesteak, zuzenbidea eta ezagutza juridikoa ezabatuz, lehen planoan giza eskubideen kritika eta giza eskubideei buruzko legeria soilik jarritz, edo zuzenbidea etikaren eta justiziaren zaku berean sartuz, bakoitzaren ezaugarriak indibidualak eta intersektzioak saihestuz, ez da batere mesedegarria giza eskubideei buruzko hezkuntzarentzat, ez eta, oro har, giza eskubideentzat ere. Laburbilduz, gure ustez, zuzenbidearen ahalmena ikusi eta ulertu behar da.

Preskripzioa

Laburbiltzeko: giza eskubideei buruzko graduondoko programa batego gidariak garenez, behin eta berriz egin behar diogu aurre galdera honi: zer leku dute zuzenbideak eta ezagutza juridikoak giza eskubideei buruzko hezkuntzan? Ez da galdera erraza erantzuteko. Nonahiko zuzenbidea ez da lagungarria, eta zuzenbidearen teknizismoak, zenbait testuingurutan garrantzi ukaezina duten arren²⁰, ez dira erraz transmititzen diziplina mistoko ikasgela batean. Zuzenbidea gogor kritikatzeara ere ez da baliagarria, besteak beste, zuzenbidearen zeregina desitxuratzeari duelako giza eskubideei dagokienez: zuzenbidea ez da dena giza eskubideei dagokienez, baina ezin da esan ezer ez dela. Erronka, nolabait, zuzenbidearekin liluratzeara eta desengainatzeara da. Gure esperientziaren arabera, giza eskubideei buruzko graduondoko ikasleek, oro har, ikuspegi horietako baten edo bestearen alde egiten dute. Irakasle eta programa-diseinatzaile eta -garatzaile garen aldetik, gure erantzukizuna da ikasleak animatzea xarmaren eta desengainuaren arteko kon-

¹⁹ Scheinin, M. (2024): Hitzaldi nagusia, Giza Eskubideen Institutuen Elkartearen (AHRI) Konferentzia, «Human Rights in a Polarized World: Realizing Human Rights in the Green and Just Transition», Lund, irailaren 13a.

²⁰ Tobin, J. (2021): «Teaching Human Rights: Four Key Capabilities». In Bhuta, N. et al (argit.): *The Struggle for Human Rights: Essays in Honour of Philip Alston*. Oxford: Oxford University Press, 189.–203. or.; 195. orrialdean, adierazten da «gaitasun teknikoa» dela giza eskubideei buruzko hezkuntzak garatu beharreko lau konpetentzietako bat.

trapuntuari eustera, sentiberatasun sakona izanik zuzenbidea denari eta izan daitekeenari dagokionez eta haren ahuleziei dagokienez, baina baita bidegabekeria kritikatzeko akuilu eta konponbide-iturri gisa duten potentzialari dagokionez ere²¹.

Aurrera egiteko modu bat da giza eskubideen arloko hezkuntzaren helburuari buruz pentsatzerakoan edukietatik gaitasunetara pasatzeko egin berri den deia aintzat hartzea eta galdetzea zer gertatuko litzatekeen giza eskubideak «behatzeko eta kritikatzeko objektu» gisa hartzetik haratago joango bagina, eta horren orde, giza eskubideak «diseinu dinamikoko Proiektu» gisa ikusiko bagenu²². Giza eskubideei buruzko hezkuntzan ikuspegi hori erabiltzen bada, zer rol dagokie zuzenbideari eta ezagutza juridikoari?

Hau da gure erantzuna, edo, hobeto esanda, gure preskripzioa: alfabetatze juridikoa funtsezkoa da giza eskubideak diseinu dinamikoko proiektu gisa ulertzeko. Zehazkiago, hiru arrazoi daude, gutxienez, alfabetatze juridikoak funtsezko konpetentzia izateko giza eskubideei buruzko hezkuntzan, batez ere diziplina anitzeko edo diziplinarteko izaera duten programetan (gurean, adibidez). Lehenik eta behin, herrialde-, eskualde- eta nazioarte-mailan, giza eskubideen aldeko erakundeak eta mekanismoak arrakasta nabariak ekarri dituzten eragin-, negoziazio- eta fintze-prozesu historiko luzeen emaitza izateaz gain²³, atalase bat dira, eta dagozkion betebeharrak dituztenek ez lukete atalase horren azpitik egon behar, eta tresnak eskaini beharko lituzkete, gutxienezko estandar horiei eusteko, hortik beherako egoerarik sortuz gero. Zuzenbidearen aukerak, mugak eta ahultasunak errekurtsorako eta berrikuntzarako bide gisa ulertzea funtsezkoa da konpromisoa izateko gaur egungo erronken, gertatzen diren urraketen eta etorkizunerako izan daitezkeen aukeren aurrean.

Bigarrenik, eta aurrekoarekin lotuta, arrazoibide juridikorako trebetasunak lantzea frogetan oinarritutako arrazoibide-mota berezi bat azpimarratzea da, arauak tokiko, eskualdeko eta nazioarteko mailan zehaztuko dituen. Hori aukera eta erronka da aldi berean. Egokitasuna eztabaida simulatuei erreferentzia eginez azaldu daiteke; izan ere, EMAREN programaren funtsezko ezaugarri bat dira, nahiz eta programa horrek erakartzen duen ikaslegoan zuzenbidean lizentziatuak gutxienez

²¹ Hemen, honako honi jarraitzen diogu: Fisher, E. (2021): «Legal Imagination and Teaching». In Rajamani, L. eta Peel, J. (argit.): *The Oxford Handbook of International Environmental Law*. Oxford: Oxford University Press, 135.–149. or.

²² Tobin (20. zk.), 195. or.

²³ Ikus, adibidez, Sikkink, K. (2017): *Evidence for Hope: Making Human Rights Work in the 21st Century*. Princeton: Princeton University Press.

goa diren eta horietatik are gutxiago abokatu-lanetan aritzera iristen diren. Diziiplina anitzeko programa batean, simulazioen (*mooting*) balioa bikoitza da. Bat, zuzenbideko oinarriak ez duten ikasleek ikasten dute nola egituratu behar diren aurkezpenak, zein hitzarmen diren garrantzitsuak erakunde bakoitzean, eta, ondorioz, nola interpretatu behar diren auzitegien erabakiak. Simulazioetan, prestakuntza juridikorik ez dutenek konbentzio jakin baten arabera posible denaren eta pertsona bakoitzak sentitzen duenaren arteko bereizketa egin beharko dute, esparru etiko edo normatibo zabalagoi erreferentzia eginez. Prestakuntza juridikoa dutenentzat, berriz, diziiplina anitzeko talde batekin simulazioak egitean, jardunbide juridikoan «jakintzat» ematen diren gauza batzuk zalantzan jarriko dira, ikasleei eskatzen baitaie azaltzeko zer mugak dituzten hitzarmen batzuek kalte batzuei aurre egiteko.

Hirugarrenik, eta agian garrantzitsuena, alfabetatze juridikoak «eskubide konplexu eta kontrajarrien erreklamazioak ebazteko» metodo bat ematen du, «legezkotasunaren, legitimitatearen eta proportzionaltasunaren» printzipioetan²⁴ oinarritzen den metodologia bat, edo, bestela esanda, «zergatik, nork eta zertarako» galdetzeko modu bat ematen du. Era horretako pentsamendu metodologiko hori gai konplexu eta mardulei buruzko diskurtso publiko polarizatzaileetatik ateratzeko modu bat da eta, batzuetan, diskurtso bitarretatik ateratzeko modua ere bai. Zuzenbidea ez da ikusten ari garen giza sufrimenduarentzako panazea, eta ezin dio bere kabuz heldu, adibidez, etorkizuneko belaunaldiari zor zaienaren gaiari, baina aukera bat ematen du galderak planteatzeko eta erantzuteko, politikaren berotasunetik urrun dagoen urrats batean. Metodologia juridikoek, gutxienez, kontuak emateko egitura bat eskaintzen dute, printzipioetan oinarritua, eta ez soilik minean, edo, Martha Nussbaum-ek dioen bezala, ordena juridikoak erabakiak etorkizuneko ikuspegi bihurtzen ditu.

²⁴ Nussbaum, M. (2017): «Jefferson Lecture: Powerlessness and the Politics of Blame», John F. Kennedy Centre for the Performing Arts zentroan emana, maiatzaren 1ean, <<https://www.law.uchicago.edu/news/martha-c-nussbaums-jefferson-lecture-powerlessness-and-politics-blame>> 2024ko urriaren 17an azken aldiz kontsultatua.

Haurren eskubideen erronkak Espainian

Jorge Cardona

Valentziako Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbideko katedraduna,
Nazio Batuetako Haurren Eskubideen Batzordeko kide ohia

Sarrera

Espainiako haur eta nerabeen eskubideen egoera aztertzen saiatuta, kontraesan handiak daudela ikusten da. Alde batetik, Espainian aurrerapen izugarriak egin dira legeetan, politiketan eta are erakundee-kin lotutako kontuetan; bestetik, milaka haur eta neraberen egoera, hobetu beharrean, larriagotu egin da, edo, gutxienez, haien eskubideen urraketa kronifikatu egin da.

Datozen paragrafoetan ideia horiek azaltzen saiatuko naiz.

Lege- eta erakunde-esparruaren bilakaera

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da Espainia izan zela 1989ko Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa berretsi zuen lehen 20 estatuetakoa bat. Berrespen horren ondorioz, Espainia Konbentzio horren edukia garatzen saiatu zen xx. mendeko azken hamarkadan, garrantzi bereziko hiru legetan: *4/1992 Lege Organikoa, ekainaren 5ekoa, Adingabeen Epaitegien Eskumena eta Prozedura arautzen dituen Legea erreformatzeari buruzkoa*; *1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa*,

eta 5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabeen erantzukizun penala arautzen duena.

Oinarrizko lege-esparru hori osatuz joan da XXI. mendean, haurren eskubideen errespetua, babeseta eta bermea hobetzen saiatzen ziren beste lege batzuekin. Horien artean, nabarmentzekoak dira, garrantzi berezia dutelako, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren sakoneko erreforma ekarri duten bi lege, bata arrunta eta beste organikoa. Horien bidez, gure legeria Espainiako haur eta nerabeen egoeran izandako bilakaerara egokitzeko saiakera egin da, eta Konbentzioari egokitzen ez zitzaizkion jardun edo interpretazio jakin batzuk zuzendu dira. Honako lege hauei buruz ari gara: 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa, eta 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoa. Bi lege horiei beste garrantzitsu bat erantsi behar zaie: 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriatik osorik babesteari buruzkoa.

Lege-garapen horrekin batera —hemen testu nagusiak baino ez ditugu aipatu, eta beste lege espezifiko batzuetan jasotako beste hainbat xedapen ere gehitu behar zaizkio, hala nola nazioarteko adopzioaren, osasunaren, hezkuntzaren, gizarte-babesaren eta abarren arloko legegintakoak—, politika integralak onartu dira; besteak beste, honako hauek: I. eta II. Haur eta Nerabeen Plan Estrategiko Nazionala (I.a, 2006tik 2009ra, eta II.a, 2013tik 2016ra); I., II. eta III. Haur eta Nerabeen Sexu Esplotazioaren aurkako Ekintza Plana (I.a, 2002tik 2003ra; II.a, 2006tik 2009ra; III.a, 2010etik 2013ra); Sexu Esplotaziorako Emakumeen eta Neskatoen Salerosketaren aurka Borrokatzeko Plan Integrala 2015-2018; Haur eta Nerabeak Babesteko Sistemako Haurren eta Nerabeen Sexu-esplotazioaren aurkako 2022ko Ekintza Plana; Haur eta Nerabeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko 2022ko Estrategia, eta oraintsuko Haur eta Nerabeen Eskubideen Estatu Estrategia (2023-2030).

Lege eta estrategia horien esparruan, instituzionalitatea ere indartuz joan da, eta, azkenean, 2023an Haurren eta Gazteen Ministerioa sortzera iritsi da.

Estatu mailako lege, politika eta erakunde horiez gain, autonomia-erkidegoetan ere badira arlo bereko lege, politika eta erakundeak. Haur eta nerabeen babesaren arloko eskumenak autonomikoak dira, eta Estatuko lorpenak azaltzean adierazi dugun mugarri bakoitza lortu ondotik, autonomia-erkidegoetan ere lortu dira arlo bereko mugarriak legeen, politiken eta erakundeen esparruan. Hala, haurrei buruzko lege autonomikoak ditugu, eta, aldi berean, aldatzen joan dira Estatuko legegintza aldatu ahala, dagozkion politika eta estrategia autonomikoekin eta erakunde autonomikoen garapenarekin batera.

Zalantzarik gabe, ezin dugu esan Espainian legeen, politiken edo erakundeen esparruan hutsunerik dagoenik haur eta nerabeen eskubi-deak errespetatu, babestu eta bermatzeko.

Errealitate gordina eta horren kausak

Hala ere, lege eta erakundeen mailatik errealitatara jaitsiz gero, egoera aldatu egiten da. Zalantzarik gabe, errazagoa da legeak eta politikak aldatzea, horiek errespetatu, aplikatu eta bermatu behar dituztenen gogamenak aldatzea baino. Hain zuzen ere, Nazio Batuen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen Batzordeak kondenatu egin du Espainia, desgaitasunak dituzten haurren hezkuntza inklusiborako eskubidea larriki eta sistematikoki urratzeagatik; Nazio Batuen Haurren Eskubideen Batzordeak ere kondenatu du, bidaidetik gabe iritsitako haur migratzaileen eskubideak larriki eta sistematikoki urratzeagatik; estatistika ofizial guztiek adierazten digute pobrezia- eta bazterketa-arriskuan dauden haurren kopurua jasanezina dela, % 30 ingurukoa alegia; haurren egoerari buruzko txosten guztietan nabarmentzen dira haurren eta nerabeen osasun mentalaren arloko arazoak, adikzioen eta suizidio-saiakeren ehunekoak oso altuak baitira; eta haurren nahiz nerabeen aurkako (eta haien arteko) indarkeria ere arazo orokorra da oraindik.

Berehala, galdera hau sortzen da: nola liteke, lege, politika eta erakundeen esparru hori izanik, Espainian haurren eskubideen egoera hain dramatiko izatea edo, are gehiago, haien babes eza areagotzea?

Nire ustez, hiru kausa-mota bereiz ditzakegu: batzuk orokorrak dira, egungo gizartean eskubide guztien egoeran gertatzen ari den bilakaerari dagozkionak; beste batzuk espezifikokiak dira, haur eta nerabeei dagozkienak; eta hirugarrenik, badira haur-talde jakin batzuei dagozkien kausa espezifikokiak ere.

a) Kausa orokorrak

Kausa orokorreari dagokienez, lehenik eta behin azpimarratu beharra dago norberekoikeriaren gorako joera nabarmenak desitxuratu egiten dituela demokraziaren eta giza eskubideen kontzeptuak; populismoaren joera ere gorantz doala hausnarketaren kaltetan, eta polarizazioa gertatzen ari dela. Nire ustez, hiru joera horiek estu lotuta daude elkarrekin.

Eztabaida sozial eta politikoetan, gero eta gehiago ikusten ditugu jarrera nabarmenki egoistetarako joerak: eskualde aberatsenak bali-

bide gehiago jaso nahi dituzte, berek gehiago ematen dutelako; gehien irabazten dutenek zerga gutxiago ordaindu nahi dituzte beren baliabideak libreago erabiltzeko; hemen jaio direnek ez dute nahi kanpoko inor etortzea, nahiz eta haien egoera ikaragarria izan... Beharbada, hauteskunde-kanpainak dira joera horren islarik deigarrienetako bat: kanpaina horietan, alderdiek hainbat gauza iragartzen dituzte, berekoi pentsatzen duen boto-emaileak botoa eman diezaien, onura indibiduala lortzeko, nahiz eta hori interes orokorraren eta giza eskubideen errespetuaren aurkakoa izan. Horren adibide deigarria izan zen Rodríguez Zapatero presidentek 2008ko kanpainan egindako iragarpena, hau da, berak irabaziz gero zergadun guztiei 400 euro itzuliko zizkiela iragarri izana. Horren ondorioz, helburu orokor eta politika sozialetarako diru-kopurua asko murriztu zen; hain zuzen ere, 5.000 milioi euro baino gehiago atera ziren horretarako diru-kutxa publikoetatik, nahiz eta Depresio Handitik izandako finantza-krisi larrienean murgilduta egon.

Joera horrek desitxuratu egiten du demokraziaren kontzeptua eta giza eskubideen errespetua. Demokrazia ez da bakoitzak berekoiki pentsatuz gehiengoak aukeratutako gobernua, baizik eta interes orokorrean eta guztion eskubideetan pentsatuz gehiengoak aukeratutako gobernua. Gizartearen interes orokorrean pentsatuz, boto-emaeen gehiengo batek aukera politiko jakin bat jotzen badu hoberentzat, legitimoki aukera horri dagokio gobernatzea. Baina gehiengo horretako kideak beren interes partikular eta berekoietan pentsatzen ari badira, gehiengoaren diktadura da, bere berekoikeria eta interesak gutxiengoari inposatzen dizkiona, nahiz eta hori txarra izan giza eskubideetarako, batez ere gutxiengoaren eskubideetarako.

Giza eskubideei oro har kalte egiten dien bigarren elementua, nire ustez, populismoaren gorakada da. Populismoak sinplismo oldarkorra du ezaugarri: arazo korapilatsuetarako irtenbide sinpleak proposatzen ditu; horretarako, biztanleria asaldatzeko du, jendeak egungo antolaketa sozial, ekonomiko eta politikoarekiko dituen frustrazioak baliatuta. Populismoa sistemaren aurkakoa da definizioz: populismoaren aburuz, erakundeak beti ustelduta daude eta aldatu egin behar dira, eta argudio emozionalak erabiltzen ditu horretarako. Populista eskuindar nahiz ezkertiarrek —baldin eta kontzeptu horiek oraindik ere existitzen badira— beretzat hartzen dute autoritate morala, eta uste dute berek bakarrik jarduten dutela herriaren izenean. Nagusitasun-uste hori dela eta, sistema juridiko eta politikoa gaitzesten dute. Erregimen populistak nahieran eraldatzen eta desitxuratzen ditu erakundeak, Estatuaren kontrol- eta oreka-mekanismoak ezabatzen ditu, oinarritzko legeak aldatzen ditu, oposizio politikoari entzungor egiten dio, komunikabideei

eraso egiten die, eta berekin bat ez datozen epaileei jazarri. Populistek gehiengoak ematen duen legimititatea aldarrikatzen dute (lehen aipatutako ikuskera egoistekin). Haien ustez, Estatuaren botereak orekatzeko mekanismoek ahuldu egiten dute gehiengoaren erabakia, eta, beraz, uste dute mekanismo horiek ere herri justuaren borondatearen aurka doazela. Bere ustezko autoritate moralak bere ekintza guztiak justifikatuko lituzke.

Globalizazioaren, austeritate-politiken eta gero eta desberdintasun handiagoaren eraginez jendeak bere ongizatea eta bizi-maila mehatxupean ikusi izanak bultzatuta, azken 20 urteetan boterera iristen ikusi ditugu, adibidez, Hugo Chavezen eta Maduroren gobernu populistak Venezuelan; Donald Trumpena Estatu Batuetan; Jair Bolsonarorena Brasilen; Evo Moralesena Bolivian; Javier Mileirena Argentinan; Nayib Bukelelarena El Salvadorren; Alexis Tsiprasena Grezian; Viktor Orbanena Hungarian; Giorgia Melonirena Italian; Recep Tayyip Erdoganena Turkian; Duterte Filipinetan; Thaksin Shinawatrarena Thailandian; Roh Moo-Hyunena Hego Korean; FPÖren eta OVPren arteko koalizio-gobernuarena Austrian; eta PSOEren eta Podemos/Sumarren artekoa Espainian, bai eta Alderdi Popularraren eta Voxen artekoa ere zenbait autonomia-erkidegotan. Gainera, aipagarria da eskuineko eta ezkerreko alderdi populistek gero eta eragin handiagoa dutela Frantzian, Alemanian, Erresuma Batuan, Danimarkan, Finlandian eta beste herrialde batzuetan.

Azken batean, aurreko bi elementuek gizarte polarizatua sortzen dute. Posizio antagonikoen artean ez dago elkarriketarako aukerarik; biak dira populistak, biak berekoiak. Aurkariak egiten duen guztia gaizki dago, eta oposizioaren blokeoak berekin dakar gobernuaren ekintzek ondorio negatiboak izatea. Nirekin ez bazaude, nire aurka zaude.

Zalantzarik gabe, joera horiek eragin negatiboa izan dute giza eskubide guztien errespetuan, babesean eta bermean, baina, bereziki, gizartean kalteberatasun bereziko egoeran dauden pertsonen eskubideetan, hala nola emakumeen, desgaitasuna duten pertsonen, migratzaileen edo haurren eskubideetan, eta, bereziki, nesken eskubideetan.

b) *Haurrei dagozkien kausa espezifikokoak*

Pertsona guztien eskubide guztiei dagozkien kausa orokorrekin batera, badira haurrei dagozkien kausa espezifikokoak ere. Horien artean, bi kausa-mota azpimarra ditzakegu: Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak ekarritako paradigma-aldaketa ez asimilatu izanari dagozkionak, eta ahots eta ordezkaritza politiko ezari dagozkionak.

Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak berekin ekarri zuen paradigma-aldaketa bat testu juridiko lotesle batean finkatzea; paradigma-aldaketa hori zuzenbidearen bilakaeran mamitzen joana zen pixkanaka: haurrak ez ziren hartzen jada zuzenbideak babestu beharreko objektutzat, baizik eta eskubideen subjektutzat.

Paradigma-aldaketaren ardatz nagusi gisa, Konbentzioak bi printzipio biltzen ditu, aurreko egoerarekiko «iraultzaileztat» har ditzakegunak: «haurraren interes gorenaren» printzipioa eta «haurri eragiten dieten erabaki guztietan haurri berari entzuteko» betebeharra ezartzen duen printzipioa. Bi printzipio horiek —hurrenez hurren Konbentzioaren 3. eta 12. artikuluetan jasoak— batera irakurri behar dira, eta haurra «eskubideen subjektutzat» hartzen duen estatutu berriaren oinarria dira. Bi printzipio horiek batera irakurtzeak haurra eskubideen subjektutzat hartzearen ikuspegia erakusten digu. Helduen eta haurren arteko harremanei buruzko ikuspegi berri bat dakarte, eta horrek dinamika demokratikoa dakar harreman horietan. Haurrak ez dira inoren «jabetzakoak», ezta gurasoen «jabetzakoak» ere. Haurrak beren buruaren jabe dira eta eskubideen subjektutzat hartu behar dira; haiei eragiten dieten erabaki guztietan haien interesa hartu behar da kontuan, eta haien iritzia entzun behar da interes horren edukia zehaztu aurretik.

Baina gauza bat da hori Konbentzioan eta hura garatzen duten legetan baieztatzea, eta beste gauza bat, oso bestelakoa, ideia horiek eragile juridikoek onartu izana. Alde horretatik, «gurasoen PINari edo betoari» buruzko polemikak eta haurrak Estatuaren ala gurasoen jabetzakoak diren eztabaidatzeak argi erakusten digu oraindik ere oso urrun gaudela haurri buruzko paradigma-aldaketa onartzetik; alegia, haurrak beren buruaren jabe bakartzat eta eskubideen subjektutzat ikustetik, eta, era berean, ohartzetik gurasoek eta Estatuak harekiko betebeharrak, ahalmenak eta erantzukizunak dituztela, baina ez eskubideak. Adibide horrekin batera, beste ehunka ere aipa genitzake, haurrak duintasun osoa duten eskubideen subjektu izateari buruzko kontzientiazio falta agerian uzten dutenak. Hona hemen, bada, adibide horietako batzuk: oraindik ere zigor fisikoa justifikatu egiten da askotan, zaplaztekoak edo zuzenketa fisikoak justifikatzen dituzten epaiak emanda; edo gurasoen baldintzen arabera erabakitzen da pobrezia-egoeran dauden haurren egoera arintzeko dirulaguntzak ematea edo ukatzea; edota, adibideekin amaitzearren, haurrak gurasoen luzakintzat hartzen dira, esaterako, ez baita aztertzen haurrak nazioarteko babeserako eskubidea duten ala ez, gurasoei eragiten dieten kausak soilik aztertzen dira-eta, eta gurasoei dagozkien kausen arabera bakarrik onartzen edo baztertzen da-eta seme-alabei asiloa ematea.

Haurrak eskubideen subjektu autonomo gisa ez hartzeaz gain, aipatu beharra dago ez dutela ahots eta ordezkaritza politikorik ere. Hori dela eta, errazagoa da haurrak ahaztea, edo, nolanahi ere, baliabide gutxi dagoenean haiei zuzendutako politikak sakrifikatzea, beste talde batzuei zuzendutako politikak lehenetsita, beste talde horiek beren ahotsa helarazteko bideak eta hauteskundeetan botoa emateko aukera dutelako.

Egia da Espainian haurren parte-hartzea duten kontseiluak garatuz joan direla, bai Estatuan, bai autonomia-erkidegoetan eta bai tokiko esparruan. Jardunbide egokiak dira, haurrei eta nerabeei dagozkien erabaki kolektiboak hartu aurretik haien ahotsa entzuteko aukera ematen baitute, gutxienez. Baina, oraindik ere, bide luzea dago egiteko jardunbide on hori orokortu dadin eta, batez ere, kontseilu horiek kontuak emateko mekanismoak ere izan ditzaten.

c) Haur-talde batzuei dagozkien kausa espezifikoak

Espainiako neska-mutil guztiei dagozkien kausa espezifiko horiez gain, bada zaurgarritasun bereziko egoeran dauden haurrei buruzko kausa-multzo bat ere. Zenbait estereotipok bat egiteak —besteak beste, matxismoa, adoltozentrismoa eta kapazitismoa— berekin dakar diskriminazio interseksionalak agertzea, eta horiek ez dira diskriminazioen batura hutsa, baizik eta diskriminazio modu espezifiko berriak ere bai.

Haurrak eta nerabeak ez daude diskriminaziotik eta genero-indarkeriatik salbuetsita; gainera, indarkeria-mota hori tinko finkatuta dago oraindik ere Espainiako gizartean.

Gizarteak zailtasunak erakutsi ditu desgaitasunak dituzten pertsonen eskubideen arlorako Konbentzioak ekarritako paradigma-alda-keta asimilatzeke, eta hori asimilatzea askoz ere zailagoa gertatzen da desgaitasuna dutenak haurrak direnean, eta, bereziki, neskatoak direnean.

Gure herrialdera bidaidetik gabe iristen diren haur migratzaile adingabeak (gaztelaniaz MENA akronimoaz ezagunak) despertsonalizatu egiten dira, arreta ez da haien haur-izaeran jartzen, eta horrek erakusten digu ahaztu egiten dela bai edozein arrazorengatik diskriminatzeke debekua bai pertsona gisa berezkoa duten duintasuna aitortzea.

Diskriminazioaren kausa horiek eta beste batzuk elkartzen direnean (hala nola gutxiengo etnikoetako kide izatea —ijitoak, kasu—, landa-eremu hustuetan bizitzea edo pobreak izatea), ezinbestean egin behar zaie aurre kalteberatasun-egoera berriei.

Ondorioa

Espainian, ugariak dira haurren eskubideei lotutako erronkak. Ezin da ukatu asko aurreratu dela legeetan, politiketan, estrategietan eta erakunde mailan, bai Estatuan, bai autonomia-erkidegoetan, bai eta tokiko esparruan ere. Baina horiek ezartzeko, baliabide ekonomikoak, giza baliabideak eta baliabide materialak behar dira, eta hortxe dago erronka, horiek emateko borondate politikoa izatean. 2015ean Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoaren erreforma onartu zenean, zehaztu zen erreforma horretarako ez zela aurrekontu-igoerarik behar, eta hori, argi eta garbi, gezurra zen, edo, nahiago bada, bestela esanda, argi adierazten zuen ez zegoela bertan esaten zena ezartzeko borondaterik. Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralaren Lege Organikoa onartu zenean, ez zen memoria ekonomikorik erantsi, eta haren garapenak erakusten du xedapenak desitxuratzen ari direla, edo are ahazten ere. Bestalde, Lege Organiko horrek berak hau dio azken xedapenetako hogeita laugarrenean: «Gobernuak, lege hau onesten denetik hamabi hilabete igaro baino lehen, adingabeen adina zehazteko prozedurari buruzko araudia garatzeari ekingo dio, bermatzeko Espainiak bere gain hartutako nazioarteko betebeharrak betetzen dituela eta adingabearen interes gorena, eskubideak eta duintasuna lehenesten direla». Hala, aitortu zuen ordura arteko prozedurak ez zituela betetzen ez Haurren Eskubideei buruzko Konbentziotik eratorritako betebeharrak, ez adingabearen interes gorena lehenetsi beharra, eta ez zituela errespetatzen haurren eskubideak eta duintasuna ere. Zoritxarrez, 4 urte geroago araudi horrek onartu gabe jarraitzen du. 2020an, Haur Pobreziaren aurkako Goi Mandataritza sortu zen, eta, hiru urte geroago, desegin egin zen, pobrezia-egoeran edo gizarte-bazterketako egoeran zeuden haurren kopuruak gora egin bazuen ere. Haur psikiatriako espezialitatea ez zen 2023ra arte sortu, haurren artean osasun mentaleko arazo larriak egon arren.

Horixe da haurren eskubideen erronka nagusia Espainian: eskubide horiek errespetatu, babestu eta bermatzeko borondatea izatea.

Genero-berdintasuna giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidean: atzerapausoen aurkako erresistentzia

*Lourdes Peroni*¹

Doktoretza ondoko ikertzailea, Soziologiako Fakultatea,
Varsoviako Unibertsitatea

Giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbideak gaur egun di-tuen erronkarik zailenen artean dago generoaren aurkako mobiliza-zioek planteatzen duten erronka. Azken urteotan, mobilizazio horiek Europa eta Latinoamerika osoan zehar hedatu dira, genero-berdinta-sunaren aurkako oldarraldia eragin dute eta eremu horretan lan egiten duten aktibisten aurkako giroak sortu dituzte². Herrialdeen artean des-

¹ Ekarpén hau Europar Batasunak finantzaturako Abortion Figurations proiektuan parte hartu nuenean idatzi nuen (ERC Consolidator Abortion Figurations, 101044421). Hala ere, adierazitako ikuspegiak eta iritziak nireak baino ez dira, eta ez dute zertan islatu Europar Batasunaren edo Europako Ikerketa Kontseiluko Agentzia Exekutiboarenak. Ez Europar Batasuna, ez eta agintaritzak emalea ere, ezin dira horien erantzule egin. Ekarpéna lan honetan dago oinarrituta: Peroni, L. (2024): «Mobilising in Times of Gender Equality Backsliding: International Human Rights Responses to Anti-Gender Discourse», *Utrecht Law Review*, 20. libk., 3. zk., 42.-55. or.

² Ikus, adibidez, Bárcenas Barajas, K. (koord.) (2022): *Movimientos Antigénero en América Latina: Cartografías del Neoconservadurismo*, Mexiko: Universidad Nacional Autónoma de México, Instituto de Investigaciones Sociales; Lombardo, E. et al (2021): «De-democratization and Opposition to Gender Equality Politics in Europe», *Social Politics: International Studies in Gender, State & Society*, 28. libk., 3. zk., 521.-531. or.; Moragas, M. (2021): «The Case of The Organization of American States». In Corrêa,

berdintasunak egon arren, mobilizazioek «genero-ideologiaren» aurkako kritika partekatu ohi dute, honako hauen aurka egiteko: LGBTQI eskubideak, ugalketa-eskubideak, eskoletako sexualitate-hezkuntza, genero-ikasketak diziplina akademiko gisa, eta generoaren termino bera³. Itxuraz «legean oinarritutako» giza eskubideak ere, hala nola genero-indarkeriaren aurkako babesa, aurkakotasun horren xede bihurtu dira⁴, eta horren erakusle da Europako zenbait herrialdetan emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren (Istanbulgo Hitzarmena) aurka egin dela⁵.

Generoaren aurkako mugimenduek, generoaren kontzeptuaren kritika egiteaz gain, hari aurre egiteko errepertorioak ere badituzte, eta, adibidez, «genero-ideologiaren» bidez gauzatutako «Mendebaldeko proiektu neokolonial» baten aurkako defendatzaile gisa aurkezten dute beren burua⁶. Nazioarteko eta eskualdeetako erakundeak, hala nola Nazio Batuen Erakundea eta Europar Batasuna, proiektu horren parte gisa ikusi ohi dira⁷.

Kritika horien aurrean, giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeak ez dira isilik geratu. Generoaren arloko atzerapausoak geldiarazten saiatu dira⁸, eta aktiboki egin diete aurre halako kritikei honako hauek: Europako Kontseiluko Giza Eskubideen Komisariotza, Istanbulgo Hitzarmenaren (GREVIO) Aplikazioaren Jarraipena egiten duen Organo

S. (argit.): *Anti-gender Politics in Latin America: Summary of Country Case Studies*, Rio de Janeiro: Sexuality Policy Watch, 164.-181. or.; Kováts, E. & Pöim, M. (argit.) (2015): *Gender as Symbolic Glue: The Position and Role of Conservative and Far-Right Parties in the Anti-Gender Mobilizations in Europe*. Bruxelles: Foundation for European Progressive Studies; Roggeband, C. & Krizsán, A. (2020): «Democratic Backsliding and the Backlash against Women's Rights: Understanding the Current Challenges for Feminist Politics», eztabaidarako dokumentua, 35. zk., NBE Emakumeak, 2020; Paternotte, D. & Kuhar, R. (2018): «Disentangling and Locating the 'Global Right': Anti-Gender Campaigns in Europe», *Politics and Governance*, 6. libk., 3. zk., 6.-19. or.

³ Paternotte & Kuhar (1. zk.), 8 eta 11.

⁴ Sosa, L. (2021): «Beyond Gender Equality? Anti-gender Campaigns and the Erosion of Human Rights and Democracy», *Netherlands Quarterly of Human Rights*, 39. libk., 1. zk., 8. or.

⁵ Krizsán, A. & Roggeband, C. (2021): *Politicizing Gender and Democracy in the Context of the Istanbul Convention*. London: Palgrave Macmillan, 34. or.

⁶ Korolczuk, E. & Graff, A. (2018): «Gender as 'Ebola from Brussels': The Anticolonial Frame and the Rise of Illiberal Populism», *Signs: Journal of Women in Culture and Society*, 43. libk., 4. or., 797.-821. or.; Paternotte & Kuhar (1. zk.), 9. or.

⁷ Paternotte & Kuhar (1. zk.), 9. or.

⁸ EDVAW Plataforma: *Independent Women Human Rights Mechanisms are Part of the Solution to 'Push Back the Pushbacks and Keep Pushing Back'*, 2019ko martxoaren 20a.

Aditua, *Belém do Pará*ko Hitzarmenaren Jarraipen Mekanismoko Adituen Batzordea (MESECVI), Emakumeen eta Nesken Diskriminazioari buruzko Nazio Batuen Lantaldea (WGDAWG) eta Emakumeen Aurrakako Diskriminazioari eta Indarkeriari buruzko Aditu Independenteen Plataforma (VAW)⁹.

Erakunde horietako batzuek ikusi dute antigenero-kanpainak geldiarazi egiten dituztela giza eskubideen aldeko tresnen berrespena, hala nola Istanbulgo Hitzarmenarena¹⁰, eta mantsotu egiten dituztela transgenero pertsonen giza eskubideak babesteko erreformak¹¹. Beste batzuek adierazi dute kanpaina horiek nazioarteko konpromisoak desgitea, NBERen itunen organoak eta prozedura bereziak ahultzea eta giza eskubideei buruzko legerian hizkuntza atzerakoa txertatzea dutela helburu, eta, horrela, azken batean, «giza eskubideen sistema zatikatzetza eta ahultzea»¹². 2018an, WGDAWGk hau ohartarazi zuen «narratiba kontserbadore eta atzerakoi bat berpizten ari da nazioarteko foroetan eta nazio-mailan». Azkenaldian, baieztatu egin du «emakumeen eta nesken giza eskubideen aurkako atzerakada» areagotu baino ez dela egin¹³.

Atzera egite horri aurre egiteko ahaleginean, giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeek, banaka edo batera, generoaren aurkako argudioak indargabetu dituzte, material-sorta zabal baten bidez: adierazpen publikoak, posizio-dokumentuak, txosten tematikoak eta hezikuntza-liburuxkak. Espero bezala, Istanbulgo Hitzarmenaren Kontrol Organoa izan da horri gehien aurre egin diona, generoaren aurkako diskurtsoa funtsezkoa izan baita Istanbulgo Hitzarmenaren aurkako diskurtsoan¹⁴. GREVIOk «Galderak eta erantzunak» izeneko dokumentu

⁹ Hauek osatzen dute plataforma: Emakumeen eta Nesken Aurrakako Indarkeriari buruzko NBERko Errelatore Bereziak (SRVAWG); Emakumeen aurkako Diskriminazioa Ezabatze Batzordeak (CEDAW); Emakumeen eta Nesken Diskriminazioari buruzko NBERko Lantaldea (WGDAWG); *Belém do Pará*ko Hitzarmenaren Jarraipen Mekanismoko Adituen Batzordeak (MESECVI); Emakumeen eta Etxeko Indarkeriaren aurkako Ekintzan Adituen Taldeak (WGDAWG); Emakumeen Eskubideei buruzko Jarraipen Mekanismoko Adituen Batzordeak (RWHI).

¹⁰ EDVAW Plataforma: *25 Years in Review of the Beijing Platform for Action, E-Booklet 2020 Contributions of the Platform towards its Implementation*, 36. or.

¹¹ Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioa (2024): *Issue Paper Human Rights and Gender Identity and Expression*, 100. or.

¹² WGDAWG: Txostena, A/HRC/38/46, 2018ko maiatzaren 14a, 15. eta 45. paragrafoak.

¹³ WGDAWG: *Escalating Backlash against Gender Equality and Urgency of Reaffirming Substantive Equality and the Human Rights of Women and Girls*, A/HRC/56/51, 2024ko maiatzaren 15a, 10. eta 87. paragrafoak.

¹⁴ Krizsán & Roggeband (4. zk.).

bat prestatu du Hitzarmenaren helburuak argitzeko eta «salatzeko zer-nolako desitxuraketak egin dituzten talde erlijiosoek eta ultrakontserbadoreek azkenaldiko urteetan, Hitzarmenari buruzko narratiba faltsuak zabaldu baitituzte, bereziki testuan jasotako «genero» kontzeptuaren inguruan»¹⁵. Izan ere, giza eskubideen aldeko nazioarteko beste hainbat erakundek genero kontzeptuari buruzko kritikak indargabetu dituzte eta giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidean duen balioa aldarrikatu dute, terminoaren kontzeptualizazioak egiten saiatzen diren bitartean¹⁶. Batzuek generoa ez-binariotzat hartzea baieztatu dute, eta «genero-identitatea eta -adierazpena horren babesean» daudela nabarmendu¹⁷.

Giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeek ere auzitan jarri dituzte genero-gaiek ustez sortzen dituzten mehatxuak, besteak beste, familia tradizionalari, balio kultural nazionaleri eta haurren eskubideei ustez egindako mehatxuak. Adibidez, familia heteronormatiboa herrialde bateko kulturari balioa emateko gai den eredu bakarra dela baztertzear, Sexu Orientazioan eta Genero Identitatean Oinarritutako Indarkeriaren eta Diskriminazioaren aurkako Babesaren arloko Aditu Independentear (IE SOGI) argudiatu du eredu horrek «ez duela kontuan hartzen, testuinguru gehienetan, familiak askotarikoak direla»¹⁸. Hala-ber, eta etxeko indarkeriaren aurkako babesak familiak suntsitzen dituela dioen argudioa auzitan jartzean, Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioak honako hau dio: «Etxeko indarkeria prebenitzeko eta hari aurre egiteko hartutako neurriak ez dira, ez, ezkontzak eta familiak suntsitzen dituztenak, etxeko indarkeria bera baizik»¹⁹. GREVIOk, bestalde, hau baieztatzen du: «ohiturak edo sinesmenak belaunaldiz

¹⁵ GREVIO: *The Council of Europe Convention on Preventing and Combating Violence against Women and Domestic Violence (Istanbul Convention): Questions and Answers*, 3. or.

¹⁶ Ikus, adibidez, MESECVI: *Declaración sobre la Igualdad de Género y el Empoderamiento de las Mujeres como Bien de la Humanidad*, 2017ko azaroaren 28a, 10. or.; Amerikarteko Giza Eskubideen Batzordea: *Avances y Desafíos hacia el Reconocimiento de los Derechos de las Personas LGTBI en las Américas*, 2018ko abenduaren 7a, 66. paragrafoa; WGDAGW (2020): *Gender Equality and Gender Backlash*, 1. or., eta Sexu Orientazioan eta Genero Identitatean Oinarritutako Indarkeriaren eta Diskriminazioaren aurkako Babesaren arloko Nazio Batuetako Aditu Independentea, *The Law of Inclusion*, AV HRC/47/27, 2021eko ekainaren 3an, 13.-14. paragrafoak.

¹⁷ Ikus, adibidez, Sexu Orientazioan eta Genero Identitatean Oinarritutako Indarkeriaren eta Diskriminazioaren aurkako Babesaren arloko Nazio Batuetako Aditu Independentea (2021): *Gender: The Law of Inclusion & Practices of Exclusion*.

¹⁸ *Ibid.*, 5. or.

¹⁹ Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioa: 3. hiruhileko jarduera txostena 2016, 2016ko azaroaren 16a, CommDH(2016) 37, 21.

belaunaldi transmititzea garrantzitsua da gure identitatea osatzeko», baina azpimarratzen du beharrezkoa dela emakumeei eta neskei kalte egiten dieten eta indarkeria jasateko arrisku handiagoan jartzen dituen tradizioak eta ohiturak aldatzea²⁰.

Haurrei ematen zaien sexu-heziketaren ustezko kalteei dagokienez, IE SOGIk argudiatu du ez dagoela «froga sinesgarririk baieztapen horietako bakar bat ere babesteko, eta, aldiz, sexu-hezkuntza integralak osasunean dituen onurak ondo dokumentatuta» daudela²¹. Genero-indarkeriaren aurkako giza eskubideen babesa emakumeengan gehiegi zentratzen dela dioten generoaren aurkako kritikoei, Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioak erantzun die, honako honen bidez:

Kritika egiten duten beste batzuk saiatzen dira esaten familiako indarkeriak emakumeei bezainbeste eragiten diela gizonei, eta bik-tima diren emakumeen kasuak azpimarratzea nolabait engainagarria edo «diskriminatzailea» dela. Europako herrialde guztietako datuek baieztapen hori balio gabetzen dute, eta aditzera ematen dute kasu gehien-gehienetan emakumea dela familia-indarkeriaren biktima²².

Transgenero pertsonen aurkako narratibei ere espresuki aurre egin dizkiete giza eskubideen aldeko nazioarteko hainbat erakundek. IE SOGIk, adibidez, dio narratiba horiek «normalizatu egin ohi dutela identitate erlijioso eta kultural faltsu monolitiko bat, diskurtso publikoaren barruan maiz beldur-giroa errotuz, botere politiko, sozial edota ekonomikoa lortzeko»²³. Halaber, Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioak gaitzetsi egiten du Europan generoaren aurkako diskurtsoak transgenero pertsonengan zenbait esparrutan duen eragin arriskutsua, hala nola kirolean, enpleguan edota komunak erabiltzeko baldintzetan²⁴. Komisarioak azaldu du nola elikatu duten generoaren aurkako

²⁰ GREVIO: *The Council of Europe Convention on Preventing and Combating Violence against Women and Domestic Violence (Istanbul Convention): Questions and Answers*, 9. or.

²¹ Sexu Orientazioan eta Genero Identitatean Oinarritutako Indarkeriaren eta Diskriminazioaren aurkako Babesaren arloko Nazio Batuetako Aditu Independentea (IE SOGI) (2021): *Gender: The Law of Inclusion & Practices of Exclusion*.

²² Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioa: 3. hiruhileko jardueratxostena 2016, 2016ko azaroaren 16a, CommDH(2016) 37, 21-22.

²³ Sexu Orientazioan eta Genero Identitatean Oinarritutako Indarkeriaren eta Diskriminazioaren aurkako Babesaren arloko Nazio Batuetako Aditu Independentea (IE SOGI) (2021) *Gender: The Law of Inclusion & Practices of Exclusion*, 5. or.

²⁴ Europako Kontseiluko Giza Eskubideen komisarioa (2024): *Issue Paper Human Rights and Gender Identity and Expression*, 70.-78. or., eta 92. or.

mugimenduek, «eta ez neurri txikian», transgenero pertsonen aurkako indarkeria eta gorrotoa²⁵.

Laburbilduz, herrialdeetan eta nazioartean generoaren aurkako kanpainak sortutako erronka iraunkorren artean, giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeek genero-berdintasunean aurrera egiteko arauak garatzen jarraitu baino gehiago egin dute. Aldi berean, generoaren aurkako diskurtsoari aurre egin diote, giza eskubideen atzera-kadari aurre egiteko. Prozesu horretan, giza eskubideei buruzko nazioarteko zuzenbidean generoaren kategoriak duen baliagarritasuna baieztatu dute, eta generoaren aurkako beldurrei aurre egin diete. Kapitulu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen da giza eskubideen nazioarteko diskurtso kontraaktiboaren tokiko oihartzuna aztertzea, bereziki herrialdean genero-berdintasunean atzera egin den testuinguruetan. Hala ere, garrantzitsua da nabarmentzea giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeek ez diotela utzi aldi berean genero-berdintasunaren aldeko defentsa ahalbidetzen eta babesten duten nazio-inguruneak sortzeari. WGDAWGk duela gutxi adierazi zuen bezala, helburua honelako inguruneak sortzea da: «emakumeen eta nesken aldeko mugimenduek eta beste eragile batzuek genero-berdintasunean aurrera egin ahal izatea bermatzeko moduko inguruneak, giza eskubideen aldeko defendatzaileen babesa eta konponbide eraginkorrak eskuratzeko aukera bermatuta, eta ikerketa bizkor eta inpartzialak eginda, urraketak egin direla salatzen denean»²⁶.

²⁵ *Ibid.*, 48. or.

²⁶ WGDAWG: *Escalating Backlash against Gender Equality and Urgency of Reaffirming Substantive Equality and the Human Rights of Women and Girls*, A/HRC/56/51, 2024ko maiatzaren 15a, 92(k) paragrafoa.

Migratzaileen giza eskubideen alorrean dauden joerak eta erronkak

Felipe González Morales

Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea,
Migratzaileen giza eskubideei buruzko Nazio Batuen
errelatore berezi ohia (2017-2023)

Nahiz eta migrazioa ez den inolaz ere fenomeno berria, eta giza-terriaren hastapenetatik gertatu den¹, historian zehar intentsitate handiagoko edo txikiagoko aldiak bizi izan ditu. Azken urteotan migrazioak gora egin du. Horri gehitu behar zaio, egungo egoeraren beste alderdi garrantzitsu bat den aldetik, migrazio-prozesuak mundu mailakoak izatera iritsi direla, bost kontinenteetan aldi berean ari baitira garatzen.

Illo horretan, Hego Globaletik Ipar Globalerako migrazio-fluxu tradizionalei Hegoalderetik Hegoalderako migrazio-prozesu esanguratsuak gehitu zaizkie kontinente guztietan. Horrez gain, oro har, kontinenteen barruko mugikortasuna handiagoa da kontinente batetik besterakoa baino. Migrazioa, gainera, dibertsifikatu egin da generoaren ikuspegitik, emakume migratzaileen ehunekoa asko handitu baita; migrazioaren feminizazioa deritzo prozesu horri². Gauza bera gertatzen da haurren migrazioarekin. Era berean, pertsonen mugikortasuna eragiten duten egoerak ere dibertsifikatu egin dira; hain zuzen ere, gaur egun askota-

¹ Bellwood, P. (2013): *First Migrants: Ancient Migration in Global Perspective*. Singapur: Wiley Blackwell.

² Migratzaileen giza eskubideei buruzko errelatore berezia, *Migrazioak emakume eta neska migratzaileengan duen eragina: genero-ikuspegia*, A/HRC/41/38, 2019ko apirilaren 15ekoa.

riko kategoriak daude: migratzaileak, babes-eskatzaileak, nazioarteko beste babes-modu batzuk hartutako pertsonak, aberrigabeak, desplazatuak, salerosketaren biktimak, trafikoaren biktimak eta beste kolektibo batzuk.

Migrazio erregularrarekin batera, bada migrazio irregular bat ere, pertsona kopuru handia barnean hartzen duena. Giza eskubideen urraketak migratzaile erregularrengan zein irregularrengan eragiten badira ere, giza eskubideen nazioarteko organoek migratzaile irregularren egoera azpimarratzen dute; izan ere, horiek izaten dira maizenik urraketa larrienen biktimak, zaurgarritasun- eta ikusezintasun-egoera handiagoan daudela eta. Gainera, errepresalien beldur direnez, probabilitate handiagoa dago migratzaile irregularrek beren eskubideetan jasaten dituzten urraketak zigorrik gabe geratzeko, bai horiek salatzeke dituzten zailtasunengatik, bai horrelakoak ikertzeke eta zigortzeko ardua duten estatu-erakundeen ekintza ezagatik edo zabarkeriagatik. Hori gorabehera, egoera erregularrean dauden migratzaileak ere diskriminazioaren eta giza eskubideen bestelako urraketan biktima izaten dira maiz, eta, beraz, nazioarteko organoek egoera horiei ere heltzen diete, batez ere langile migratzaileen egoerei.

Bada fenomeno larri bat, munduko eskualde guztietan ikusten dena: migratzaileen kriminalizazioa, hainbat mailatan³. Oro har, gizartearen imajinarioan eta agintarien diskurtsoan migrazioa delinkuentziarekin lotzen delako gertatzen da kriminalizazio hori, bai eta beste diskurtso xenofobo batzuen bidez ere. Maila zehatzagoan, berriz, esan daiteke, munduko hainbat eskualdetan migrazio irregularra despenalizatzeko arloan aurrerapausoak egin badira ere —hala nola jokabide hori zigor penala duten figuren katalogotik ezabatzea—, horrek ez dakarrela beti migratzaileen atxiloketak murriztea. Aitzitik, atxiloketak asko ugaritu dira estatu hartzaile nagusietan.

Joera horren barruan, ikus daiteke, kezka handiz ikusi ere, «berehalako kanporatzeak» izugarri hazi direla mundu osoan, hau da, kanporatze sumarioak eta kolektiboak, eskubide ugari urratzen dituztenak, hala nola osotasun fisiko eta psikikorako eskubidea, asiloa bilatu eta jasotzekoa, *non-refoulement* printzipioa (kanporatua ez izateko eskubidea), justizia baliatzekoa edo beste eskubide batzuk, kasuaren arabera⁴.

Aurrekoarekin batera, diskurtso edo jardun arrazistak izaten dira. Ildo horretan, ikus daiteke estatu batzuek erabat tratamendu desber-

³ Migratzaileen giza eskubideei buruzko errelatore berezia, *Migratzaileen berehalako kanporatzeek giza eskubideetan dituzten ondorioei lehorrean eta itsasoen aurre egiteko moduei buruzko txostena*, A/HRC/47/30, 2021eko maiatzaren 12koa.

⁴ *Ibid.*

dina ematen dietela migratzaileei, haien arraza edo etniaren arabera; izan ere, migrazio-bide erregularrak errazten dituzte batzuentzat, eta, aldi berean, beste batzuentzat eragotzi edo asko zaildu.

Horrek, oro har, zuzenean garamatza justizia baliatzeko eskubidearen auzia aipatzera, eta nabarmentzera zeinen garrantzitsua den estatuek horretarako oztopoak kentzea, migratzaileek baliabide judizial eta administratiboak eskuratu ahal izatea bermatzeko, horrela beren giza eskubideak eraginkortasunez erabili ahal izan ditzaten, eta, beharrezkoa denean, legezko ordezkaritza izan dezaten⁵.

Agiririk gabeko migratzaileak direnean, aipatutako horretaz guztiaz gain, adierazi beharra dago delituak eta abusuak salatze beldurra ere izaten dutela, atxilotuak eta kanporatuak izateko arriskua dela eta. Alde horretatik, oso garrantzitsua da immigrazioa kontrolatzeko agintarien eta zerbitzu publikoen artean «suebaki-hesiak» (*firewalls*) ezartzea, migratzaileek, haien migrazio-egoera edozein dela ere, aukera izan dezaten justizia, etxebizitza, osasun-arreta, hezkuntza eta gizarte- eta lan-zerbitzuak eskuratzeko, detektatuak, atxilotuak eta deportatuak izateko beldurrik gabe⁶.

Migrazioei buruz nazioartean gaur egun dauden eztabaidagaien artean, deportazioena da auzi polemikoenetako bat, azken urteotan asko handitu baitira. Zehazki, behartutako itzuleren eta borondatezko itzuleren arteko bereizketa da gehien eztabaidatu den alderdietako bat; izan ere, giza eskubideen nazioarteko erakundeek zalantzan jartzen dute itzulera asko borondatezkotzat jo ahal izatea⁷. Nazioarteko Zuzenbidearen arabera, estatuek hainbat muga dituzte ezarrita pertsonak deportatzeko boterean, baina muga horiek urratu egiten dira askotan.

Adierazitako ezaugarri komun horiek direla eta, nazioarteko babes-sistemen erronka asko ere elkarren antzekoak dira. Bai Nazio Batuen eta bai Amerikarteko Sistemaren giza eskubideen organoek behin eta berriz jorratu dituzte erronka horiek, kasu, txosten eta beste ekimen batzuen bidez. Horien eragina mugatua izan denez, ezinbestekoa da giza eskubideen nazioarteko sistemek ahaleginak areagotzea, estatuek behar bezala errespetatu eta berma ditzaten migratzaile guztien giza eskubideak, egoera erregularrean edo irregularrean egon.

Nazio Batuen erakunde-diseinuari dagokionez, duela gutxi arte NBEk ez du migrazioen arloan erakunderik izan, errefuxiatuen arloan ez bezala —NBE eratu eta gutxira sortu zen Iheslarietarako Nazio Batuen

⁵ NBE, *Migratzaileen Eskubideak*, A/73/178/Rev.1, 2018ko irailaren 25ekoa.

⁶ *Ibid.*

⁷ *Migratzaileen giza eskubideei buruzko errelatore bereziaren txostena*, A/HRC/38/41, 2018ko maiatzaren 4koa.

Goi Mandataritza (UNHCR), Bigarren Mundu Gerraren osteko Europako testuinguruan—. Egungo egoeraren konplexutasunak, ordea, migrazioen arloko erakunde bat sortzeko urratsak egitera eraman du, eta horren harira, garrantzitsua izan da Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea (ingelesez IOM) Nazio Batuetan sartu izana, bai eta berrikiago NBEren Migrazio Sare bat sortu izana ere, Migrazioari buruzko Mundu Itunari jarraipena emateko. Horri dagokionez, erronka nagusietako bat da giza eskubideen nazioarteko organoei ekimen horietan rol garrantzitsua bermatzea⁸.

Garrantzitsua da aipatzea, halaber, sendotu egin dela gizarte zibilak migrazioekin eta horiek dakartzaten erronkekin lotuta egiten duen lana. NBEn, Migrazioari buruzko Mundu Itunaren prestakuntzan geratu zen hori bereziki agerian. Alde batetik, hainbat herrialdetan migratzaileek beren erakundeak sortu ahal izan dituzte —dena den, jardun hori orokorra izatetik urrun dago oraindik⁹—. Bestetik, giza eskubideen aldeko GKE askok migratzaileen eskubideen babesa txertatu dute beren mandatuan. Orain dela gutxi arte, gai hori gutxi jorratzen zuten, edo agendaren bigarren mailako leku batean baino ez zuten lantzen. Ezauzgarri horiek Amerikako Estatuak Erakundean ere ageri dira.

Migratzen dutenen defendatzaileek, askotan, egiten dituzten lanen ondorioz, arriskuan jartzen dute beren bizitza edo osotasun pertsonala, eta nazioarteko araudia urratzen duten muga eta oztopo asko izaten dituzte beren lanean¹⁰. Alde horretatik, oso garrantzitsua da giza eskubideen nazioarteko sistemek gai hori beren agendetan erdigunean edukitzea, estatuak jardunetan eragin handiagoa izateko.

Amaitzeko, migrazio-politikei eta migratzen dutenen giza eskubideei buruzko hiru erronka orokor aipatu nahi nituzke.

Lehenengoa, denboran zehar migrazio-politikei sendotasuna eman beharri buruzkoa da. Oso ohikoa da (eta azken urteotan gero eta maizago ari da gertatzen) estatuak beren migrazio-politikak erabat aldatzea gobernu-aldaketa gertatzean. Baina ez hori bakarrik: gero eta gehiagotan ikus daiteke, halaber, gobernu berak ere errotik aldatzen dituela bere migrazio-politikak. Kasu gehienetan, errotiko aldaketa ho-

⁸ González Morales, F. (2020): «Multilateralismo, Migración y Derechos Humanos: Antes y Después del Pacto Mundial para una Migración Segura, Ordenada y Regular», *Revista Interdisciplinaria de Movilidad Humana*, 28. libk., 60. zk., 187.-204. or.

⁹ Migratzaileen giza eskubideei buruzko errelatore berezia, *Migratzaileen eta haien defendatzaileen elkartzeko askatasunerako eskubidea*, A/HRC/44/42, 2020ko maiatzaren 13koa.

¹⁰ *Migratzaileen giza eskubideei buruzko errelatore bereziaren txostena*, A/HRC/37/51, 2018ko urtarrilaren 16koa.

riek migratzaileen kalterako izaten dira, kalte larriak pairatzen baitituzte beren giza eskubideetan. Migratzen dutenek, oro har, ez dutenez ez boteretik ez eraginik, bat-batean haien eskubideak mugatzeak berekin dakarren kostu politikoa askoz txikiagoa da tokiko biztanleriaren esku-bideak murrizteagatik izango liratekeenak baino. Hori dela eta, migratzaileak sarritan «trukerako txanpon» moduko bat bihurtzen dira, al-dian aldiko interes politikoak babesteko, eta, beraz, ezinbestekoa da migrazio-politiken sendotasuna denboran zehar ziurtatzea.

Bigarren erronka giza eskubideak migrazioari buruzko eztabaida eta politiken erdigunean kokatzean datza. Azaldu dugunez, gaur egun arlo horretan nagusi den joera eskubideak murriztearena da, eta beste parametro batzuen mende jartzearena, batez ere segurtasunaren parametroen mende. Segurtasuna eta beste alderdi batzuk giza eskubide batzuetarako muga legítimoak izan badaitezke ere, ezin dira muga horiek giza eskubideen kontura argudiatuta aldarrikatu. Nazioarteko estandarren arabera, giza eskubideen babesak izan behar du arau orokorra, eta adiera zabalean interpretatu behar dira; aldiz, horien mugek —segurtasuna barne— mugatuak izan behar dute, eta modu murriztailean interpretatu behar dira.

Hirugarren erronka, egiaz, aipatu berriaren alderdi espezifiko bat da: artikulua honen hasieran adierazi bezala, azken urteetako giza mugikortasunaren ezaugarrietako bat feminizazioa da. Horrek berekin dakar migrazioari buruz genero-ikuspegia hartzeko erronka. Alde horretatik, Migrazioari buruzko Mundu Ituna da esplizituki hori egiten duen nazioarteko lehen tresna espezifikoa. Herrialde askotan ere ikusten dira ildo horretan egindako gauzak, baina gehienak oraindik ere hasierako etapetan daude eta hasiberriak dira. Hortaz, migrazio-politiketan genero-ikuspegia instituzionalizatzean datza erronka, ikuspegi hori politika horien logikan, oinarrietan eta neurri zehatzetan barneratuta gera dadin.

Herri indigenen eskubideak Nazio Batuetan: aurrerapenak eta egungo erronkak

Patricia Borraz

Indigenous Peoples Rights International (IPRI)
erakundeko aholkulari seniorra

2007ko irailaren 13an herri indigenen eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpena [*'Adierazpena'*] onartu izana mugarri izan zen nazioarteko zuzenbidean herri horien giza eskubideak aitortzeko, eskubide kolektiboak barne. Bazirudien, egun historiko hartan Nazio Batuen Batzar Nagusian emandako hitzaldietan adierazi zen bezala, harreman berria iragartzen zuela herri indigenen eta estatu kideen artean, elkarrekiko errespetuan oinarritua. 2014an egindako Herri Indigenei buruzko Mundu Konferentziak [*'Mundu Konferentzia'*] berretsi egin zuen *Adierazpena* ekintza zehatzen bidez aplikatzeko konpromisoa, nazioarteko sistemaren testuinguruan ere bai¹.

Gogoeta labur honek galdera bati erantzun nahi dio: zer aurrerapen egin dira ordutik hona NBERen esparruan indigenen eskubideak aitortzeko, errespetatzeko eta gauzatzeko, Mundu Konferentziaren hamargarren urteurrenean eta *Adierazpena* onartu zenetik ia 20 urte igaro diren honetan, eta zer erronka daude oraindik?

¹ *Herri Indigenei buruzko Mundu Konferentzia izenez ezagutzen den Batzar Nagusiaren goi-mailako osoko bileraren amaierako dokumentua, A/RES/69/2, 2014ko irailaren 25ekoa. Hemen eskuragarri: <https://documents.un.org/doc/undoc/gen/n14/468/32/pdf/n1446832.pdf>.*

Oro har, Nazio Batuen sistemak herri indigenen arloan egiten duen lanaren erreferentzia-esparrutzat hartu da *Adierazpena*. Herri indigenen eskubideei buruzko Erreloretza Bereziak funtsezko zeregina bete du *Adierazpena* eta harekin lotutako betebeharrak argitzeko eta estatuan nahiz nazioartean aplikatu daitezela sustatzeko. Jakina, ikuspegi hori bera hartu dute indigenen eskubideen arlorako NBEk dituen beste bi mekanismoek, nork bere mandatuen esparruan: Indigenen Gaietarako Foro Iraunkorrak (gaztelaniaz FPCI) eta Herri Indigenen Eskubideei buruzko Adituen Mekanismoak (gaztelaniaz MEDPI).

FPCIk, ECOSOCen erakunde aholkularia den aldetik, indigenei buruzko gaiak NBEren sistemaren barruan sustatzeko ardura du, haren agentzia espezializatuak ere barnean hartuta, agentzia horiek garrantzitsuak baitira estatuko politiketan eragiteko duten gaitasunagatik eta tokiko errealitatean duten eraginagatik. Agentziek, «erakundearteko laguntza-taldean» eratuak, aktiboki parte hartzen dute FPCIren saioetan, eta *Adierazpenarekiko* konpromisoa adierazi dute beren adierazpen eta politiketan, ekintza-plan orokor bat² garatzea barnean hartuta, bai eta aholkularitza-erakundeak ezartzeko konpromisoa ere, haietan indigenen ordezkariak izanda. Hala eta guztiz ere, ez dirudi hori beti betetzen denik tokian bertan egiten den lanean. Esate baterako, UNESCOk kritika larriak jaso ditu gizateriaren ondare diren lekuak hautatzeko, izendatzeko eta kudeatzeko garaian izan duen rolagatik. Munduko Ondarearen Batzordeak askotan ez ditu aintzat hartu leku horietan bizi diren herri indigenen eskubideen urraketak, barnean hartuta nahitaezko desplazamenduak, indarkeria eta kriminalizazioa³. Zalantzarik gabe, oso komenigarria litzateke FPCIk agentziekiko elkarriketa areagotzea ber-

² Sistema osorako ekintza-plana, Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpenaren helburuak lortzeko ikuspegi koherentea ziurtatzeko, E/C.19/2016/5, 2016ko otsailaren 19koa. Hemen eskuragarri: <https://documents.un.org/doc/undoc/gen/n16/044/12/pdf/n1604412.pdf> Plan hau Mundu Konferentzian hartutako konpromisoe-tako bat da, eta maila guztietan sentsibilizatzeko eta gaitzeko ekintzak hartzen ditu barnean, bai eta indigenei buruzko gaiak agentzien nazioko lanean sartzeko borondatea ere.

³ Munduko Ondareari buruzko Herri Indigenen Nazioarteko Foroa ezarri arren (<https://iipfwh.org/>), munduko ondare diren tokien izendapenarekin edo kudeaketarekin lotuta herri indigenen giza eskubideak urratu izanaren salaketak ez dira amaitu.

<https://www.oaklandinstitute.org/dispute-unescos-claim-never-asked-displacement-maa-sai>; <https://news.mongabay.com/2024/06/unesco-accused-of-supporting-human-rights-abuses-in-african-parks/>; <https://www.iprights.org/index.php/en/all-news/sign-on-petition-stop-the-eviction-of-indigenous-pastoralist-communities-in-ngorongoro-conservation-area?highlight=WyJ1bmVzY28iLCJ1bmVzY28ncyJd>; baita hau ere: <https://iwgia.org/es/convenci%C3%B3n-del-patrimonio-mundial-de-la-unesco/4742-mi-2022-convenci%C3%B3n-del-patrimonio-mundial-de-la-unesco.html>.

tan dauden arazoei buruz, eta *Adierazpena* benetan aplikatzea exijitzea, diskurtsoetatik harago joanda.

MEDPI erakundea, *Adierazpena* onartu zen urte berean ezarria, Giza Eskubideen Kontseiluaren (GEK) aholkularitza-erakundea da. Hasieratik saiatu da *Adierazpenaren* aplikazioa ikuskatzeko rola betetzen, eta hura ezartzeari buruzko puntu finko bat sartzen du urteroko bere agendan. Mundu Konferentzia prestatzeko eztabaidetan, erakunde indigenek MEDPIren erreforma planteatu zuten, funtzio hori modu eraginkorragoan bete ahal izateko, itunetatik sortutako lantaldeen antzera. Hala, mandatuaren erreforma lortu zen, 2016tik «inplikazio nazionala» deritzona barnean hartzen duena; horrek ahalmena ematen dio MEDPIri gai eta kasu espezifikoetan aholkularitza emateko, estatuek, erakunde indigenek edo beste eragile batzuek hala eskatzen dutenean⁴. MEDPIk *Adierazpenaren* aplikazioan jardunbide egokiak identifikatu, zabaldu eta sustatzeko mandatu ere bete behar du, eta hainbat azterlan aurkeztu ditu horiei buruz⁵. Urteroko saioetan egiten dituen elkarrizketa interaktiboek ahalmen handia dute tresna hori giza eskubideen sistema osoan sustatzeko.

Indigenen eskubideei buruzko erakundeen eremutik kanpo, itunetatik sortutako organoen lanean aurrerapauso nabarmenak egin dira; izan ere, herri indigenei buruzko itunak aplikatzerakoan, itun horien betebeharrak interpretatzeko tresna gisa sendotu da *Adierazpena*⁶, baina,

⁴ Ikus A/RES/69/2, 28. paragrafoa. 2016ko urriaren 5eko GEKen 33/25 Ebazpenak xedatu zuen MEDPIren mandatuaren parte zela: '... c) hala eskatzen duten estatu kideei eta/edo herri indigenei laguntza ematea, erabakitzeke ea aholkularitza tekniko behar den herri indigenen eskubideei buruzko lege eta politika nazionalak egitearen inguruan, eta hala badagokio aholkularitza hori emateko; horrek barruan har lezake Nazio Batuen beste erakunde, funts eta programa batzuekin harremanetan jartzea; d) hala eskatzen duten estatu kideei laguntza eta aholkularitza ematea, praktikan jarri ahal izateko bai aldizkako berrikuspen unibertsalaren eta itunetatik sortutako organoen gomendioak, bai prozedura bereziak edo bestelako mekanismo egokiak; e) estatu kideei, herri indigenei eta/edo sektore pribatuari, hala eskatzen dutenean, lankidetzara eta laguntzara ematea, elkarrikeria ahalbidetuz, alderdi guztiek egokitzen joz gero, *Adierazpenaren* helburuak lortzeko;...' (2. paragrafoa). Orain arte, MEDPIk hainbat kontutarako erabili du bide hori: legegintzari eta politikei buruzko lege-aholkularitzarako, herri indigenen ondare materiala aberriaratzeko aldera erakundeen artean elkarrizketa ahalbidetzeko. Ikusi <https://www.ohchr.org/es/hrc-subsidaries/expert-mechanism-on-indigenous-peoples/expert-mechanism-advice-under-country-engagement-mandate>.

⁵ Adibidez, ikuskapen-mekanismo posiblei buruzkoa (A/HRC/EMRIP/2023/3, 2023ko maiatzaren 30eko).

⁶ Ikusi, adibidez, CEDAW, *Emakume eta neska indigenen eskubideei buruzko* 39. gomendio orokorra, 2022ko urriaren 31koa: Batzordearen ustez, *Adierazpena* esparru zilegia da ituna sinatu duten estatuen betebeharrak eta oinarritzko betebeharrak interpretatzeko, *Emakumearen aurkako Bereizkeria-mota Guztiak Ezabatze*ko Konbentzioaren arabera (13. paragrafoa).

hala ere, oraindik ere badira inkoherentziak Batzordeen artean, baita horietako bakoitzaren barneko lanean ere, batez ere herrialdeen azterketekin lotutakoetan⁷. Halaber, *Adierazpenaren* erreferentzia sendotu egin da aditu independenteen jardunean: aditu horiek, alde batetik, arreta handiagoa jartzen dute herri indigenen eskubideetan, herrialdeetara egiten dituzten misioetan, eta, bestetik, gaikako hainbat txosten espezifiko egin dituzte, beren mandatuen esparruan herri indigenek dituzten eskubideen egoera ebaluatzeko⁸.

Estatu osakerako NBEko erakundeei dagokienez, GEKek urtero eman du «giza eskubideei eta herri indigenei» buruzko ebazpen bat; horrek *Adierazpenaren* helburuak lortzeko konpromisoa berresten du, eta gomendioak egiten dizkie bai nazioarteko sistemari bai estatu kideei. Urtero egiten du dei, Aldizkako Berrikuspen Unibertsalean (gaztelaniaz EPU) *Adierazpena* kontuan hartua izan dadin. Hala ere, indigenen eskubideen tratamenduari dagokionez, gaia ez da sakon aztertzen, eta koherentzia falta da prozesu horretan. GEKen beraren saioetan, estatu batzuk atzerapausoak ari dira planteatzen herri indigenen eskubide espezifikoaren aitortopenean, eta berriz ari dira irekitzen gainditutzat jotako terminologia-eztabaidak. Horrek erakusten du ezinbestekoa dela *Adie-*

⁷ Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuak, IPRI eta IWGIA erakundeekin batera, adituen mintegi bat antolatu zuen 2024ko otsailean Deustuko Unibertsitatean, ideiak trukatzeko eta, hala, itunetatik sortutako organoen lanak *Adierazpenarekiko* koherentzia eta sendotasun handiagoa izan dezan. Mintegiak gomendio praktikoko batzuk eman zituen, eta antolatzaileak horiek sustatzen ari dira orain, bai NBEn, bai erakunde indigenen artean.

⁸ Ikusi, adibidez: Erljio- edo sinesmen-askatasunerako eskubideari buruzko errelatore berezia: *Herri indigenak eta erljio- edo sinesmen-askatasunerako eskubidea: Behin-behineko txostena*, A/77/514, 2022ko urriaren 10ekoa; Emakumearen aurkako indarkeriari eta indarkeria horren kausei eta ondorioei buruzko errelatore berezia: *Emakume eta neska indigenen aurkako indarkeria*, A/HRC/50/26, 2022ko apirilaren 21ekoa; Substantzia eta hondakin arriskutsuak ingurumenari begira modu arrazionalen kudeatzeak eta ezabatzeak giza eskubideetan dituen inplikazioei buruzko errelatore berezia: *Substantzia toxikoek herri indigenen giza eskubideetan duten eragina*, A/77/183, 2022ko uztailaren 28koa; Edateko uraren eta saneamenduaren giza eskubideetarako errelatore berezia: *Herri indigenek edateko ura eta saneamendua izateko dituzten giza eskubideak*, A/HRC/51/24, 2022ko ekainaren 27koa. 2020-2022 aldiaren ikuspegi osoa izateko, ikusi MACKAY, Fergus (arg.): *Herri indigenak eta Nazio Batuetako giza eskubideen aldeko erakundeak. NBEren itunetatik sortutako organoen jurisprudentziaren, Giza Eskubideen Kontseiluaren prozedura berezien eta Herri Indigenen Eskubideei buruzko Adituen Mechanismoaren iritzien bilduma*, IX. liburukia, 2020-2021-2022, IPRI. Hemen dago esku-ragarri: <https://iprights.org/index.php/en/component/content/article/a-compilation-of-un-treaty-body-jurisprudence-special-procedures-of-the-human-rights-council-and-the-advice-of-the-expert-mechanism-on-the-rights-of-indigenous-peoples=volume-ix?catid-9&Itemid=102>.

razpenaren oinarrizko estandarrak defendatzen jarraitzea, baita esparru horretan ere⁹.

Gaur egun, bada beste prozesu bat martxan, Mundu Konferentzia-tik eratorria, agerian uzten duena zer-nolako aurrerapenak eta erresistentziak dauden sistemaren barruan *Adierazpena* gauzatzeko. Mundu Konferentziaren azken dokumentuan jasotzen denez, konpromisoa hartu du aztertzeiko ea nola hobetu daitekeen herri indigenen 'erakunde eta ordezkarien' parte-hartzea NBE-n dagozkien organoetan, nazioartean aitortuta dituzten eskubideen arabera¹⁰. Sistemak bere jardunean eta prozeduretan herri indigenen eskubideak —besteak beste, autodeterminazio askerako eta autogobernurako eskubideak— behar bezala aitortu ditzan herri indigenek berek egindako eskaerari erantzuten dio horrek, gaur egun ez baita horrelakorik gertatzen, herri indigenak ordezkatzeko dituzten erakundeek, haien gobernuak edo parlamentuak barne, «governuz kanpoko erakunde» gisa baino ez baitute akreditatzerik eta parte hartzerik¹¹.

Gai horri buruzko eztabaida-prozesua 2015ean hasi zen, Batzar Nagusiaren testuinguruan, indigenen ordezkarien eta estatuen arteko kontsulta-prozesu bat abiarazi baitzen, bi taldeetako ordezkarien eskutik. Kontsulta horietan, parte hartzeko modalitateen aukera posibleak identifikatu ziren, akreditazio- eta hautaketa-sistema egoki bat ahalbidetzeko. Oraindik ere martxan da prozesu luze hori, eta, zehaztapenetan sartu gabe, nabarmendu daiteke bai Batzar Nagusiaren esparruan bai GEK-en esparruan zenbait estatu kidek babestu egin dutela kategoria bereizi bat ezarri beharra herri indigenen erakunde eta ordezkari-entzat —herri indigenek berek izendatuak—, baina beste batzuk, berri-zi, prozeduretan edozein aldaketa egitearen aurka agertu direla, NBE

⁹ Interesgarria litzateke aztertzea nola tratatzen diren herri indigenen eskubideak eta identitatea ingurumenarekin lotutako negoziazio aldeaniztunen testuinguruan, hala nola Nazio Batuen Klima Aldaketari buruzko Esparru Hitzarmenari (gaztelaniaz CMNUCC) buruzko prozesuetan, eta nolako eragina duten atzerapauso potentzial horietan.

¹⁰ A/RES/69/2, 33. eta 40. paragrafoak.

¹¹ Altako azken dokumentua, Herri Indigenei buruzko Mundu Konferentzia prestatzeko Herri Indigenei egindako Mundu Konferentziaren emaitza, hemen eskuragarri: A/67/994, 2013ko irailaren 13koa. 10. paragrafoan hau adierazten du: *Herri guztien determinazio askerako eskubidearen aplikazio unibertsalarekin bat etorritik, gomendatzen dugu Nazio Batuek, jatorriz askeak garela kontuan hartuta, aitortu ditzatela nazioarteko zuzenbidean herri eta nazio indigenei berez dagokigun subiranotasuna eta determinazio askerako dugun eskubidea; eskatzen dugu, gutxienez, Nazio Batuen sisteman behatzaila iraunkorraren izaera aitortu diezagutela, bertako lanean zuzenean parte hartu ahal izan dezagun, gure gobernu eta parlamentu propioen eta gure gobernu-sistema propioen bidez, kontseilu eta agintari tradizionalak barnean hartuta.*

gobernuarteko erakundea dela azpimarratuta; horrez gain, azken horiek herri indigenen definizioari buruz agertu duten jarrera eta estatuek haien ordezkaritza gainean izan beharreko kontrolari buruz agertu dutena erabat dira *Adierazpenean* jasotakoaren kontrakoak¹².

Prozesu horrek argi erakusten du *Adierazpenean* adierazitakoa Nazio Batuen testuinguruan bertan benetan aitortzeak zer-nolako mugak dituen. Erronka da sistemarentzat, eta agerian uzten du bere horretan dirauela legez aitortzearen eta praktikan benetan aitortzearen artean dagoen arrakalak, eta proba moduko bat da, ikusteko ea estatuek benetan baduten borondatea *Adierazpenaren* bidez gainditu nahi diren bazterketa eta bidegabekeria historikoak konpontzeko¹³.

¹² Ezinezkoa da zehatz-mehatz zehaztea zer eztabaida izan diren ia hamar urtez Genevan (GEK) eta New Yorken (Batzar Nagusia) aldi berean egindako bi prozesuetan, baina hona hemen kronologia labur bat eta erreferentzia batzuk, baliagarriak izan daitezkeelakoan: 2015ean, Batzar Nagusiaren 70/232 Ebazpenak kontsulta-prozesu bat xedatu zuen, eta haietan adierazitako aukerak txosten batean bildu ziren (A/70/990). A/71/321 Ebazpenak hainbat entzunaldi informal jarri zituen abian, estatuek eta indigenek parte hartuta, FPClren saioetan (2017 eta 2018). GEKEN esparruan, 2019an gaia aintzat hartzen hasi zen, Batzar Nagusiak aginduta, egun bateko eztabaida-saioetan (hemen jasoak: A/HRC/44/35). 2020ko urtarrilean, elkarriketa-bilera egin zen Quiton, estatuei hartu beharreko neurriei buruzko gomendioak finkatzeko (Quitoko Azken Dokumentua, non indigenen erakunde koordinatzaile bat sortzea xedatu zen, prozesuaren jarraipena egiteko; hemen eskuragarri: <https://cendoc.docip.org/collect/cendocdo/index/assoc/HASH01c7/f7f8f23e.dir/ESP%20Quito%20Outcome%20Document%202020.pdf>). 2021ean, eztabaidarako mahai-inguru bat egin zen GEKEN (ikus A/HRC/49/59), eta horrek berekin ekarri zuen 48/11 Ebazpena onartzea; ebazpen horren harira, lau eguneko tailer bat antolatu zen 2022ko azaroan, herri indigenen partaidetzari buruzko printzipioak, partaidetza-espazioak, modalitateak, eta hautaketa-mekanismoak eta -irizpideak eztabaidatzeko (txostena hemen eskuragarri: <https://www.ohchr.org/en/events/events/2022/expert-workshop-possible-ways-enhance-participation-indigenous-peoples-work>). 2024ko uztailan, gai horri buruzko GEKEN sektorearteko lehen bilkura egin zen (<https://www.ohchr.org/en/hr-bodies/hrc/1st-interessional-meeting-participation-indigenous-peoples>), eta urte bereko urrian, bigarrena. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak (gaztelaniaz OACNUDH) txosten bat prestatu du eztabaiden berri emateko (A/HRC/57/35, 2024ko uztailaren 31koa, hemen eskuragarri: <https://documents.un.org/doc/undoc/gen/g24/129/40/pdf/g2412940.pdf>). MEDPIk, bestalde, bere txostenen eta bere saioetan elkarriketen berri eman du (ikus erreferentzia gisa https://www.ohchr.org/sites/default/files/documents/issues/indigenouspeoples/emrip/sessions/session16/EMRIP-16-Concept_note_Enhancing-participation.pdf). Aldi berean, Batzar Nagusiaren esparruan kontsulten prozesuarekin jarraitu da, baterako bideratzaile berrien bidez. Gaiari buruzko azken ebazpenean 2025era arte atzeratzen dira eztabaidak.

¹³ Eztabaidek aurrera jarraitu bitartean, GEKek indigenen partaidetzarako behin-behineko neurri bat hartu zuen bere 57. saioan (2024ko iraila-urria), eta horren arabera, eztabaida eta elkarriketa interaktiboak egiten dira MEDPIrekin eta Errelatoretzarekin. Lehenengo aldiz baimendu zen erakunde indigenen zuzeneko akreditazioa, MEDPIren eta FPClren bileretan gertatzen den bezala, eta hamabost minutuko hitz-txanda berezia

Ezin dugu hausnarketa hau amaitu herri indigenek beren lurraldean bizi duten egoera laburki aipatu gabe, hortxe baliatu ahal izan beharko lituzkete-eta aitortuta dituzten eskubideak. Giza eskubideen aldeko erakundeek aztertu dute ea zer-nolako eragina izan duen *Adierazpenak* etxeko esparruan, bai legeetan eta bai praktikan izandako aurrerapenei dagokienez¹⁴. Eraitza etsigarria da. Legegintzaren esparruan ere, nahiz eta iraganean eskubideen aitortenean hor gertatu zen aurrerapenik handiena, *Adierazpenaren* aplikazioak eskatzen dituen funtsezko zenbait ekintzatan —hala nola legegintza-harmonizazioan— aurrerapen gutxi izan dira, bereziki baliabideak erauzteko edo ingurumena kontserbatzeko jarduerekin lotutako legeetan. Latinoamerikara mugatuta, zuzenbidean atzerapauso kezkarriak sumatzen dira herrialde batzuetan. Ildo horretan, adierazgarria da Brasilgo «denbora-esparruaren» doktrina, edo Mexikoko Kongresuak onartu berri duen konstituzio-erreforma eskasa. Beharbada, aurrerapen positiboenak, *Adierazpena* esplitzitu kontuan hartzea barne, hainbat auzitegiren epaietan izan dira, lehen auzialdikoetatik hasi eta konstituzio-auzitegiatarainoko epaietan¹⁵. Zoritxarrez, epai horiek, behin eta berriz, ez dira betetzen, eta herri indigenen aurkako judizializazioa areagotzen ari da; gainera, haien aurkako indarkeriak eta kriminalizazioak bizirik dirau, eta ia ez da bati aurreratu haiek beren lurren, lurraldeen eta baliabideen gainean dituzten eskubideen benetako aitortenean eta elementu horien gaineko kontrol errealean.

Testuinguru horretan, giza eskubideen nazioarteko sistema indartsu eta eraginkor bat behar da, herri indigenen eskubideekin konprometitu, estatu kideetan *Adierazpena* gauzatzea sustatu dezan. Espero dezagun herri indigenek eta haien aliatuek konpromiso hori lortzeko egin duten lanarekin egungo erronkak gainditzea lortzea.

ezarri zen haientzat, giza eskubideen erakunde nazionalentzat ezarritako ereduari jarraituz. Horrela Kontseiluan indigenen gaiei buruzko eztabaidan parte hartzeko aukera hobetzen bada ere, oso urrun dago eskatutako aitortenetik.

¹⁴ Ildo horretan, bereziki garrantzitsuak dira Errelatoretza Bereziaren txostenak, bai gaikakoak, bai herrialdeetara egindako bisitei buruzkoak. 2017ko uztailaren 21eko A/72/186 dokumentuan aurki daiteke egoeraren azterketa labur bat (*Adierazpena* onartu zenetik hamar urtera egina).

¹⁵ Hemen, hainbat kasu biltzen dira aldizka: <https://www.iprights.org/index.php/en/en-resources/digest>.

Ekintza humanitarioa eta giza eskubideak: tentsioak eta sinergiak

Karlos Pérez de Armiño

Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetako irakasle titularra, HEGOA Nazioarteko Lankidetza eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzailea

Giza eskubideen babesa beti izan da ekintza humanitarioa definitzen duen alderdietako bat, hondamendi-egoeretan bizitza babesteko laguntza edo funtsezko ondasun eta zerbitzuak ematearekin batera. Hala ere, eskubideen babesari emandako garrantzia eta babes hori ulertzeko modua aldatuz joan dira denborarekin. Gainera, testu honetan ikusiko dugun bezala, bi osagai horien arteko harremanean —babesaren eta laguntza ematearen artekoan—, tentsioak izan dira, sarritan, jardun humanitarioan. Hala ere, duela denbora gutxitik hona, nazioartean, bai Nazio Batuen esparruan, bai GKE-en esparruan, bien arteko lankidetza indartzearen aldeko joera ari gara ikusten, biak elkarren osagarri direla azpimarratzen duten hainbat ikuspegi teorikok bultzatuta. Dena den, hori hainbat ekimenetan islatu bada ere, emaitzak apalak dira oraindik.

Esan bezala, giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren babesa hasiera-hasieratik izan da ekintza humanitarioaren diskurtsoaren parte, baina haren aplikazioa zenbait testuinguru historikoren mende egon da. Hala, 1990eko hamarkadan Gerra Hotza amaitzean zabaldutako agertoki global berriak erraztu egin zuen orduan *humanitarismo berria* deitu zen horren gorakada. Ikuspegi horrek helburu zabalagoekin lotzen zuen ekintza humanitarioa, hala nola garapena, bakea eta giza eskubideak sustatzearekin. Dena den, hiru helburu ho-

riek izaera politikoa zuten, interpretazio jakin batzuekin baitzetozen bat, garai hartan hedatzen ari ziren ideietan oinarrituta (garapena merkatu librearekin batera, bakea elementu egonkortzaile gisa, eta giza eskubide zibil eta politikoak). Hala, ekintza humanitariora politizatzeke eta haren printzipioak higatzeko beldurrak eraginda, hainbat sektore ikuspegi hori hartzearen aurka agertu izan dira, eta humanitarismo klasiko, mugatu eta independentearen oinarrietara itzultzea defendatu dute; beste batzuk, ordea, prest egon dira beste sektore batzuekin batera prozesu eta estrategietan inplikatzeko. Arlo humanitarioko ikuspegi-aniztasun horrek bizirik dirau gaur egun ere, eta giza eskubideen arloarekin erlazionatzeko modu desberdinen atzean dago; hain zuzen, erlazio hori ez da beti erraza izan.

Izan ere, arlo humanitarioko eragileen eta giza eskubideen arloko eragileen arteko lankidetzan, tradizionalki, hainbat oztopori egin behar izan zaie aurre, baita gaur egun ere. Arazo horietako batzuk gaur egungo gatazken konplexutasunetik eratorriak dira; hain zuzen ere, askotariko eragile armatuak ugaritu egin dira, biztanleria zibilarentzat oso kaltegarriak diren taktikak erabiltzen dituzte eta, batzuetan, ez dute agenda politiko zehatz bat helburutzat. Testuinguru horietan, erakunde humanitarioei eta giza eskubideen aldekoiei bereziki zaila egiten zaie beren jarduerak egitea eta koordinatzea, dela laguntza ematekoak, dela bitartekaritza egitekoak edo dela eskubideak babestekoak. Batzuetan, matxinadara deitzen duten eragileak terroristatzat jotzeak zailtasunak gehitu ditu. Hala, AEBk eta Mendebaldeko beste herrialde batzuek lan humanitarioa debekatu dute Somalian Al-Shababek kontrolatutako lurraldeetan. Bestalde, Nigerian argi geratu da gobernuak ez duela bere herrialdean nazioarteko zuzenbide humanitarioa aplikatzen Boko-Haramen aurkako operazio militarretan, operazio horiek antiterroristatzat jotzen baititu, eta horrek zaildu egin du giza eskubideen erakundeek eta erakunde humanitarioek eragiteko eta babesteko lana egin ahal izatea¹. Beste testuinguru batzuetan, hala nola Sirian, geopolitika globalak oztopatu ditu babeserako lan horiek, hirugarren estatuen babes diplomatikorik ez dagoelako eta Segurtasun Kontseiluak ezer egiten ez duelako.

Bi sektore horietako erakundeen arteko lankidetzarako beste zailtasun bat lehentasunetan eta babesaren ikuspegiaren dauden ezberdintasunetan datza. Sarritan, giza eskubideen aldeko erakundeen helburu nagusia da giza eskubideen urraketen ebidentziak biltzea, horien egi-

¹ Davies, G. (2021): *Protection advocacy efforts by INGOs in armed conflict situations. Breaking the Barriers*. HPG Briefing Note. London: ODI, 16. or.

leak identifikatzea eta epaituak izan daitezen presio egitea. Aitzitik, erakunde humanitarioak uzkur dira salaketako edo kontu emateko jarduera horietan inplikatzeko, horrek eragin kaltegarria izan dezakeelako gobernuarekiko edo lurraldea kontrolatzen duten eragileekiko harreman delikatueta, eta arriskuan jarriko litzatekeelako laguntza behar duten biztanleengana iristea, baita bertan lanean diharduten beren eragileen segurtasuna ere. Izatez, askotan gertatu da beldur horiek egia bihurtzea. Sirian, azken hamarkadan, gobernuak presio egin die nazioarteko GKE humanitarioei giza eskubideen urraketarik ez salatze, biztanleriarengana iristen jarraitu nahi bazuten. Sudanen, 2009an, gobernuak jarduteko baimena kendu zien GKE horietako batzuei, Nazioarteko Zigor Gorteak Darfurko gatazkari buruz egindako ikerketarako informazioa emateagatik, eta Etiopiako gobernuak ere gauza bera egin zuen 2021ean zenbait GKEekin, haiek publikoki agertutako jarre-rak zirela eta.

Herritarrengana iristearen eta eragina izatearen arteko tentsio hori, laguntzaren eta babesaren arteko tentsio hori, estuki lotuta dago eragile humanitarioek beren neutraltasuna zaintzeko duten kezkarekin, bai eta eragile armatuak eragile humanitario horiek neutraltzat jotzearekin ere. Hori da, hain zuzen ere, funtsezko printzipio humanitarioetako bat. Hala ere, zehaztu behar da neutraltasunaren interpretazioa aldatuz joan dela denborarekin. Gaur egun, erakunde eta espezialista gehienentzat, neutraltasuna ez da eskubideen urraketen aurrean isilik geratzea eskatzea, baizik eta ulertzen dute neutraltasuna bateragarria dela giza eskubideak babestearen alde egitearekin.

Gainera, hainbat ikerketak egiaztatu dute beste barne-faktore batzuek oztokatzen dutela erakunde humanitarioen eta giza eskubideen aldeko erakundeen arteko lankidetzak, bai Nazio Batuen sisteman, bai GKE-en artean. Hala, egiaztatu da badela lankidetzarik ezarako nolabaiteko inertzia edo kultura bat, nork bere interesak, ikusgarritasuna eta finantzaketa babesteko lehiak eraginda, eta horrek zaildu egiten du esparru operatibo edo posizionamendu komunak hartzea². Era berean, aipatu da arlo bakoitzeko langileek ez dutela bestearen ezaugarriei buruzko eza-gutzarik, eta horrek mugatu egiten diela baterako analisiak eta jarduerak egiteko gaitasuna. Erakunde humanitarioek, batzuetan, gabeziak dituzte gatazken dinamikak aztertze, eta eza-gutza tekniko mugatua dute nazioarteko zuzenbide humanitarioari eta giza eskubideen arloko zuzenbi-deari buruz, bai eta horiek babesteko dauden nazioarteko mekanismoei

² Metcalfe-Hough, V. (2021): *Collaborative advocacy between humanitarian and human rights actors. Opportunities and challenges*. London: ODI, 16.-17. or.

buruz eta horietara jotzeko moduari buruz ere. Era berean, giza eskubideen aldeko erakunde batzuen artean, batzuetan, ez dira behar bezala ulertzen lan humanitarioaren berezitasunak eta printzipioak.

Faktore horiek guztiek berekin ekarri dute erakunde humanitarioen eta giza eskubideen aldeko erakundeen arteko lankidetzaren bideratzeko egitura edo esparru instituzionalak oraindik urriak eta ahulak izatea. Bien arteko informazio-trukea eta lankidetzaren modu informalean egiten dira sarritan, jarduten duten tokian bertan ezarritako harremanean oinarrituta. Nazio Batuen sisteman bertan ere ikusi da koordinazio eskasa dagoela bi arloetako erakundeen artean, eta, ondorioz, batzuetan ez dagoela baterako azterketarik eta jarduera-esparrurik babesa gauzatzeko moduari buruz, ezta babesa jendearengana iristearekin eta laguntzarekin uztartzeko moduari buruz ere. Egoera hori dela eta, batzuetan, Nazio Batuek porrot egin dute biztanleria zibila eskubideen urraketa larrietatik babesteko orduan; hala egiaztatu dute bai NBEk Sri Lankan egindako jarduerari buruzko Petrie³ txostenak, bai Myanmaroko rohingyen egoerari emandako erantzunari buruzko Rosenthal⁴ txostenak.

Hala ere, inertzia eta zailtasun horiek guztiak gorabehera, nabarmendu behar da duela denbora gutxitik hona nazioarteko joera gero eta gehiago dagoela bideratuta eragile humanitarioen eta giza eskubideen eragileen arteko lankidetzaren hobetzera.

Joera horretan oso lagungarria izan da bi arloen arteko sinergiak sustatzen dituzten hainbat ikuspegi teoriko hedatzea. Korrante horietako batek —1990eko hamarkadaren erdialdetik aurrera sortua denak— defendatzen du ekintza humanitarioak, garapenerako lankidetzak bezala, *gatazkarekiko sentikorra* izan behar duela; hau da, *minik ez egiteaz* edo gatazkari nahigabe ez laguntzeaz gain, ahal den neurrian bakeari lagundu behar diola⁵. Ikuspegi hori zabaldu egin da azken hamarkadan, *lotura hirukoitzari* buruzko eztabaida indartsuarekin; hain zuen ere, horrek proposatzen baitu sinergiak bilatu behar direla ekintza humanitarioko, garapenerako lankidetzako eta bakea eraikitzeke jardueren artean⁶. Eztabaida horri esker, alderdi anitzeko jarduera-esp-

³ Petrie, Ch. (2012): *Report of the Secretary General's UN Internal Review Panel on United Nations Action in Sri Lanka*. Geneva: Nazio Batuak.

⁴ Rosenthal, G. (2019): *A brief and independent inquiry into the involvement of the United Nations in Myanmar from 2010 to 2018*. New York: Nazio Batuak.

⁵ Pérez de Armiño, K. eta Zirion, I. (2010): *La acción humanitaria como instrumento para la construcción de la paz. Herramientas, potencialidades y críticas*. Hegoaren Lan Koadernoak, 51. zk., Bilbao: Hegoa (EHU).

⁶ Weishaupt, S. (2020): *The Humanitarian-Development-Peace Nexus: Towards Differentiated Configurations*. UNRISD Working Paper 2020-8, Geneva: UNRISD.

rruen alde eta sektore desberdinen arteko lankidetzaren alde egitean, erakunde humanitarioen artean gero eta sendoago sinesten dute biztanleria zibilarren eskubideak babestea saihestezina zaiela haien berehalako beharrak asetzeko, zaurgarritasunari epe luzera aurre egiteko eta ingurune baketsuak eraikitzeko.

Horren ondorioz, erakunde humanitarioen eta giza eskubideen aldeko erakundeen artean ugaritzen ari dira lankidetzak-ekimenak, bai Nazio Batuen barruan, bai GKE-en artean, eta, hala, bi sektore horietako bakoitzak bere gaitasun espezifikoek ekarpena egiten du. Ekimen horietako asko babes ematearen esparruan gertatzen dira: gatazka batean nahasita dauden aldeetan edo hirugarren gobernu batean eragiteko jarduerak egiten dira, eta are salaketa publikoa ere. Hala, adibidez, giza eskubideen aldeko eragileek giza eskubideen urraketei buruzko informazio zehatza ematen dute, eta legeei buruz duten ezagutza partekatzen dute, bai eta eskubideak babesteko nazioarteko sistema eraikitzeko moduari buruzko ezagutza ere. Ekintza humanitariorako erakundeek, berriz, aztertzen dute ea zer-nolako inpaktua duten urraketa horiek biztanleen beharrianetan nahiz ahultasunetan, eta tokian bertan presentzia operatiboa izanez eta komunitateekin inplikatur ere sekulako ekarpena egiten dute. Elkarren artean aliantzak sortzea, hala sortzen diren lekuetan, lagungarria zaie informazioa partekatzeko, ebidentzia sendoagoak biltzeko, analisi sakonagoak eta testuinguruan hobeki kokatuak egiteko, eta hainbat motatako eragite-jarduerekin estrategia eraginkorragoak garatzeko.

Babesaren arloko eragileen artean horrelako lankidetzak egon dadin, oso lagungarriak ari dira gertatzen nazioarteko goi-mailako hainbat prozesu eta ekimen, batez ere Nazio Batuetakoak. Nabarmen-tzekoa da arlo horretan IASCEk (Inter-Agency Standing Committee), koordinazio humanitariorako foro global nagusiak, egindako urratsak. 2013an adierazpen bat egin zuen ekintza humanitarioan babesak duen zentraltasunari buruz, eta eremu horretan buru izateko ardura zuela aitortzen zuen. Ondoren, 2016an, *Ekintza Humanitarioko Babesari buruzko Politika* dokumentua aurkeztu zuen. Dokumentu horrek azpimarratzen du IASCEk konpromiso sendoa hartu duela babes lehenesteko eta ekintza humanitarioaren eremu guztietan ezartzeko, eta, aldi berean, mekanismoak ezartzen dituela eskubideen urraketa larrienei aurre egiteko⁷.

Gaineratu behar da Nazio Batuek 2024ko martxoan *Agenda for Protection* argitaratu zutela, babes erakunde osoaren erantzukizun

⁷ IASC (2016): *Policy on protection in humanitarian action*. New York.

nagusi eta kolektibo bihurtzeko helburuarekin. Egia esan, NBEk lehenago bazituen bultzatuak antzeko helburuak zituzten beste ekimen batzuk, hala nola *Human Rights Up Front*, Idazkari Nagusiak 2013an abiarazitakoa, baina *Agenda* da Nazio Batuen lehen dokumentu politikoa, bere babes-rol guztiak biltzen dituen, bere jardun-eremu guztietakoak: ekintza humanitarioa, garapena, bakea mantentzea eta giza eskubideak. Nazio Batuen sistemak babesaren arloan dituen egiturazko akatsei erantzuteko da *Agenda* hori; besteak beste, Myanmarri buruzko 2019ko Rosenthal txostenak erakutsitakoei. Gainera, Idazkari Nagusiak 2020an bere gain hartutako konpromisoetako bat gauzatzen da *Agenda* horretan; izan ere, Idazkari Nagusiak, giza eskubideen aldeko ekintzarako deia eginez, giza eskubideen eta beste jardungune batzuen arteko sinergiak hobetzea bilatzen zuen, eta gatazken prebentziorako osagarritzat aurkeztzen zituen giza eskubideak. Ekintzarako dei hori Nazio Batuek azken hamarkadan bere gain hartutako helburuaren esparruan kokatzen da, 2015ean argitaratutako hainbat txostenen argitan, bere hiru lan-zutabeak —hau da, bakea eta segurtasuna, garapena, eta giza eskubideak— hobeto integratzeko, ohi bezala ataletan banatzeari utzi eta politika integralagoetara eta koherenteagoetara igarota. Esparru horretan, giza eskubideen rolak pisu handia hartu du beste dimentsio batzuekiko erlazioan⁸. Nolanahi ere, plan horien aplikazio praktikoa, sarritan, urrun dago haien asmo anbiziotsuetatik, eta oraindik ere ibilbide luzea dute aurretik, tokian bertan gauzatzeko.

Azkenik, aipatzekoa da 2005etik martxan dagoela Babeserako Kluster bat, Nazio Batuetako zein GKE-etako ekintza humanitarioko eragileen eta giza eskubideen arloko eragileen arteko koordinaziorako funtsezko gune gisa. Hala ere, badirudi horren funtzionamendua ez dela guztiz egokia, motela eta burokratikoa delako, eta mugak dituelako ACNURen interes-eremuetatik harago (ACNUR da nazioartean esparru horretan lider den agentzia)⁹.

Laburbilduz, azpimarratu beharra dago azken hamarkadan indartu egin dela giza eskubideak babesteko intzidentzia-lana ekintza humanitarioaren funtsezko parte delako ideia, are gehiago lan hori gatazka armatuaren testuinguruetan egin behar denean. Hala, gero eta gehiago onartzen da bi sektoreek beren helburuetako asko partekatzen dituz-

⁸ Pérez de Armiño, K. (2023): «La reforma del pilar de paz y seguridad de Naciones Unidas. Respuesta a los nuevos retos y al riesgo de irrelevancia», *Revista Española de Derecho Internacional*, 76. libk., 2. zk., 367.-400. or.

⁹ Niland, N., Polastro, R., Donini, A. eta Lee, A. (2015): *Independent Whole of System Review of Protection in the Context of Humanitarian Action*, Norwegian Refugee Council.

tela eta beren gaitasunak nahiz ahaleginak konbinatuz aukera gehiago dituztela beharra duten pertsonak babesten eraginkorrak izateko.

Hala ere, oraindik ere bide luzea egin behar da esparru estrategiko eta operatiboak hobetzeko eta bi sektoreen arteko lankidetzari begira sortutako ekimenak aplikatzeko. Lankidetza horrek, nolanahi ere, errespetatu egin behar ditu eragile bakoitzaren mandatuak, lehentasunak eta nortasuna, eta egokitu egin behar du bere intentsitatea eta forma-tua, testuinguru bakoitzaren baldintzen arabera.

Lankidetza horretan aurrera egiteko, bi sektoreetako erakundeek oraindik ere prestakuntza, plangintza eta koordinazioa hobetzeko erronkari erantzun behar diote. Hala ere, babeserako oztoporik handiena geopolitika globalean dago gaur egun. Gatazka-egoerek —hala nola Gaza, Ukraina eta Sudangoek— agerian uzten dute gatazkan lehian ari diren aldeek eta hirugarren estatuek ez dituztela giza eskubi-deak eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa aintzat hartzen, eta age-rian uzten dute, era berean, bai Segurtasun Kontseiluaren paralisia eta bai babeserako ekimen multilateral eraginkorreki ekiteko zailtasuna.

Deustuko Unibertsitatea eta giza eskubideak

Juan José Etxeberria

Deustuko Unibertsitateko errektorea

Jesusen Lagundiak, 1540an San Ignazio Loiolakoak sortu zuenetik, pertsonen heziketa integrala izan du eginkizun nagusietako bat.

Jesusen Lagundiaren hezkuntza-tradizioan, ikasleen prestakuntza integralak lau helburu lortzera bideratu du bertako jarduna: *fides*, *humanitas*, *iustitia* eta *utilitas*. Horiexek dira Ledesma-Kolvenbach unibertsitate-paradigma pedagogikoaren lau zutabeak, Jesusen Lagundiko Buru Nagusi Peter Hans Kolvenbach-ek 2001 eta 2007 bitartean zenbait hitzalditan formulatu zuenaren arabera. Ikuspegi hori ez da berria. Juan Alfonso Polancok —San Ignaziok bildutako lehen jesuitetako batek— zioen bezala, Jesusen Lagundiko ikastetxeen helburua argia zen sorrera-garaian jada: hurkoari zerbitzu ona emateko ikastea.

Prestakuntza integral horren bidez, begirada kritikoa landu nahi da, errealtatearen eraldaketan oinarrituta. Funtsezkoa da prestakuntza horrek justizia soziala bilatzean jartzea arretagunea, gure ikasleak kontziente, konpetente, errukitsu eta konprometituak izan daitezen.

Vatikanoko II. Kontzilioaren babesean, Pedro Arruperen lidergo profetikoaren pean, xx. mendeko 60ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, Konpainiak beste bide bat hartu zuen, fedeak berak eskatu bezala justiziarekiko kezkan oinarrituta (32. Kongregazio Nagusia, 1975). Peter Hans Kolvenbachen hitzetan, «bidegabeki sufritzen ari zen mundu ba-

terako emandako erantzun zehatza, errotikoa eta egokia»¹ izan zen ildo berri hori. Egia esan, ordutik, jesuitek lan inspiratzailea egin dute justizia eta giza eskubideak sustatzen beren misioaren hainbat eremutan, hezkuntza barnean hartuta.

Deustuko Unibertsitatea ez da Elizaren eta Jesusen Lagundiaren bilakaera horretatik kanpo geratu. José Antonio Obieta Chalbaud sj jaunak, besteak beste, argi ikusi zuen unibertsitateak justiziaren eta giza eskubideen mundura zabaldu behar zuela. Harvardeko Unibertsitatean hezia zen, eta Deustuko Unibertsitatara Nazioarteko Zuzenbide Publikoko irakasle gisa itzuli zenean, giza eskubideen institutu bat sortzea bururatu zitzaion, Europako eta Ipar Amerikako unibertsitate askoren ereduari jarraituz. Zoritxarrez, ezin izan zuen bere ametsa gauzatu, lehenago hil baitzen, baina esparru horretan bikaintasunezko irakaskuntzaren eta ikerketaren sustapenerako zentro bat sortzeko gogoia sorrarazi zuen bere ikasle batzuegan. Aita Jaime Oraá sj jaunak hartu zuen haren lekukoa. Oxfordeko Unibertsitatean doktorego-ikasketak egin eta bueltan itzuli zenean, 1997ko azaroaren 14tik² aurrera Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua izango zenaren oinarriak jartzea lortu zuen. Horrela, Deustuko Unibertsitateak giza eskubideekiko hartutako konpromiso horren bidez, bat egin zen hamarkada batzuk lehenago Pedro Arrupek emandako bultzada profetikorekin.

1998an, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (1948) onartu zeneko 50. urteurrena ospatzeko, Deustuko Unibertsitateak, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuaren eta Forum Deustoren³ lankidetzarekin, ikerketa-proiektu bat egin zuen, eta horren emaitza izan zen lan kolektibo bat, Adierazpen Unibertsalaren esanahiaren eta inpaktuaren analisisan sakontzen duena, diziplina anitzeko ikuspegia hartuta⁴.

Giza Eskubideen Institutuaren jardunari esker, Deustuko Unibertsitateak nazioarteko bokazioa indartu du, eta arreta eman die kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen eta taldeen giza eskubideei, hala nola migratzaileen, herri indigenen, gizarte-bazterketako egoeran dau-

¹ Kolvenbach, P. H. (2000): *El servicio de la fe y la promoción de la justicia en la educación universitaria de la Compañía de Jesús en Estados Unidos*, Santa Clarako Unibertsitatea, Kalifornia, 2000ko urriaren 6a.

² Azaroaren 14a ez da ausazko data, baizik eta nahita aukeratu zen Pedro Arrupen jaiotza ospatzeko, 1907ko azaroaren 14an jaio baitzen, Bilbon.

³ Giza Eskubideen Institutua (1999), *Los derechos humanos en un mundo dividido*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, Bilbao.

⁴ Giza Eskubideen Institutua (1999), *La Declaración Universal de los Derechos Humanos en su Cincuenta Aniversario: Un Estudio Interdisciplinar*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

den pertsonen edo terrorismoaren biktima direnen giza eskubideei. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Deustuko Unibertsitateak NOHA (*Network on Humanitarian Action*, 1994) sarea sortzen parte hartu izana. Hain zuzen ere, munduko hainbat eta hainbat txokotan ekintza humanitarioaren esparruan eta garapena sustatzeko esparruan jardun/jarduten duten profesionalen belaunaldi asko prestatu dira sare horri esker. Era berean, 1997tik aurrera, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuaren jardunak berekin ekarri zuen Deustu izatea EMA (*European Master in Human Rights and Democratisation*, Venezia) sarea sortu zuen unibertsitateetako bat; sare hori, gerora, *European Inter-University Center for Human Rights and Democratisation* (EIUC) bihurtu zen. Era berean, zentro hori, 2019an, *Global Campus of Human Rights* bihurtu zen: bost kontinenteetako ehun unibertsitatek baino gehiagok osatutako sare bat, goi-mailako irakaskuntza giza eskubideen eta demokratizazioaren esparruan sustatzen saiatzen dena. *Global Campus of Human Rights* erakundearen babespean, eta Europar Batasunaren (EB) eta beste emaila batzuen laguntzarekin, gaur egun Giza Eskubideei eta Demokratizazioari buruzko zortzi master eskaintzen dira: Venezian, Buenos Airesen, Sarajevon, Bangkokon, Yerevanen, Pretorian, Beiruten eta Bishkeken.

Azken urteotan, migratzaileen eskubideen defentsa da Jesusen Lagundia eta haren unibertsitateak kezkatzen dituen gai nagusietako bat. Giza Eskubideen Institutuaren lana, Deustuko Unibertsitateko beste talde batzuekin nahiz Jesusen Konpainiako Espainiako beste unibertsitate batzuekin lankidetzan egina, oso garrantzitsua izan da unibertsitateak ekarpen esanguratsua egiteko pertsonen duintasunaren defentsan eta gure gizartearen etorkizunerako funtsezkoa den gai horretan. Arlo horretan, erabakigarria izan da Deustuko Unibertsitateak IMISCOE (International Migration Research Network) sarean parte hartzea; alegia, migrazioen eta integrazioaren esparruan ikerketa eta ezagutzaren transferentzia sustatzeko Europako sarerik handienean parte hartzea.

Azkenik, gure unibertsitateak, Giza Eskubideen Institutuaren bitartez, Association of Human Rights Institutes (AHRI) delakoan parte hartzen du. Elkarre horrek giza eskubideen 80 zentro baino gehiago biltzen ditu, 5 kontinenteetakoak, eta munduan giza eskubideen kultura sustatzen saiatzen da. Esparru horretan, Deustuko Unibertsitateak sarearen Urteko Konferentzia antolatu zuen 2023ko irailean, giza eskubideen defentsan aritzen diren pertsonen egoera gero eta zaugarriagoari buruzkoa⁵. Kon-

⁵ AHRI Conference, *Human Rights Defenders Under Siege*, University of Deusto, Bilbao, 7-9 September 2023, <https://live.eventtia.com/en/ahriconference2023>.

ferentzia hura baliagarria izan zen mundu akademikoak, giza eskubideen defentsarako GKE-ek eta politika publikoen esparruan erantzukizuna duten pertsonen elkarrekin hitz egin eta hausnartu zezaten, giza eskubideen defendatzaileak babesten eta haiek segurtasun-baldintzetan lan egin ahal izateko ingurune egokia sortzen laguntzearren. Konferentzia horretan oso parte-hartze nabarmena izan zuten *Herrialde Indigenentzako Giza Eskubideetako Prestakuntza Programako* ikasleek. Programa hori 2000. urtetik eskaintzen du Deustuko Unibertsitateak, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoarekin lankidetzan eta Elankidetzan, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren laguntzaz. Programak, beraz, 20 urtetik gora daramatza martxan, eta denbora horretan guztian 200 agintari indigena baino gehiago prestatu ditu, beren jatorrizko herrialdeetan giza eskubideak sustatzeko eta defendatzeko prozesuen buru izan daitezzen; eta horretan dihardute agintari horiek oraindik ere. Ildo horretatik, aukera hau baliatu nahi dut gure ikasleetako bati bihotz-bihotzez omenaldia egiteko. Cristina Bautista Taquinás da ikasle hori, Kolonbiako Cauca harraneko Nasa herriko indigena. 2017an Deustuko Unibertsitatean ibili ondoren, bere herrialdera itzuli zen, eta 2019an erail zuten, inpunitate osoz, beste lau kiderekin batera, komunitate indigenen eskubideen defentsan egiten ari zen lanagatik. Honela zioen Cristinak berak, Nasa herriaren arbaso agintari gisa egiten zuen lanagatik mehatxuak jasotzen zituenean: «Hitz egiten badugu, hil egiten gaituzte; isilik bagaude ere bai. Bada, orduan... hitz egin dezagun!».

Giza eskubideak sustatzeko jarduera horietan guztietan oso kon-tuan izan dugu beti zeinen garrantzitsua den ikertzea eta ikerketaren emaitzak zabaltzea. Horregatik jarri genuen martxan *Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak* bilduma. Hain zuzen ere, orain 100. zenbakia ateratzera iritsi da. Bilduma honek hasiera-hasieratik jorratu nahi izan ditu giza eskubideen funtsezko alderdiak, zorroztasun zientifikoz, baina betiere mundu akademikotik haragoko irakurle multzo zabalago batengana iristen saiatuta. Orain bildumaren 100. zenbakia argitaratu da, ekimenak harrera ona izan duen seinale. Bejondeigula harrera horregatik. Eskerrak eman nahi dizkiegu bildumaren historian zehar argitalpena babestu duten erakundeei, bereziki Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzari eta, jakina, koadernoak ikerketetarako, irakaskuntza-lanetarako eta/edo dibulgazio-lanetarako erabiltzen dituzten irakurleei ere bai. Zuei esker, gure ahaleginak badu zentzua.

Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak, 113 zenb.

ISBN (zenbakia): 978-84-1325-273-5

DOI (zenbakia): <https://doi.org/10.18543/PICP8936>

Bolumen honetan jasotzen diren gogoeten helburua da espazio bat irekitzea, giza eskubideen etorkizun posiblea irudikatzeko. Etorkizun hori inoiz baino mehatxatuago dago gaur egun. Oraingo egoerak agerian uzten du giza eskubideen narriadura eta estatuek berek dituzten gaindiezinezko oztopoak eraginkortasunez betetzeko.

Gogoeta hauek elkarriketa bat abiarazten dute giza eskubideen inguruan helburu jakin batekin: haiek (ber)kokatzea horizonte zehatz batean. Lehenengo gogoeta izan ezik, Cristina de la Cruzek idatzitako sarrera, gainerakoak, beste batzuekin batera, Bilduma honen 100. zenbakiaren parte dira. Guztiak hautatu dira diskurtso estuegi baten horizontea —zalantza beteriko garaian gertatzen den diskurtsoa— zabaltzen duten begirada eskaintzen dutelako.

Begirada horrek gure pentsamoldeak eraldatzea bilatzen du, eta giza eskubideen etorkizunerako itxaropena hartzeko lekua eskaintzea. Garrantzitsua da begirada horrek giza eskubideen inguruko narrazio berri bat eskaintzen digula, ez bakarrik haien egungo egoera antzemateko, baizik eta oraina berreskuratzeko; agian giza eskubideek babesten duten onaren, haien ulermenaren eta funtzionamenduaren aurrean sentikorrago bihurtuko gaituena.

Zalantzarik gabe, giza eskubideen arloko erronken identifikazioak eskubideak ezagutzeko, aldarrikatzeko eta defendatzeko gaitasuna hobetzen laguntzen du. Haien etorkizuna proiektatzeko hutsune normatiboak identifikatzeko aukera ere eskaintzen du. Ariketa horrek ikuspegi bat eskaintzen du, ez soilik gobernantza globalaren zailtasunei buruz, baizik eta eszenatoki horrek eskaintzen dituen aukera-egiturei buruz eta gizatasuna lantzeko eta zaintzeko nahia hartzeko irekitzen diren itxaropen-horizonteei buruz ere.

Cristina de la Cruz Filosofiako irakasle titularra da, eta Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko ikertzailea.



Deusto

Argitalpenak
Deustuko Unibertsitatea